

## KIROLDEGI BERRITUA GERTU

Bergarako Labegaraietako kiroldegi berritua bihar, zapatua, inauguratuko dute; 2.600.000 euroko inbertsioa izan du / 24




Bergarako Labegaraietako kiroldegi berrituaren kantxa, oraingo martitzenean. XABIER URZELAI




Bergarako Zubieta Berri elkarteko kideak Zubieta kalean asteen. JOKIN BEREZIARTUA

### Zubieta berritzerakoan auzotarren iritzia aintzat hartzea eskatu dute / 26



**Ziklo-krosa hauspotu izanak poztu egin du Superprestigio proba batean postu onena duen Iñigo Igartua / 38**



**Ontzi arinak hobeto birziklatzeko ekimen sorta aurkeztu du Debagoieneko Mankomunitateak / 5**

#### SINADURAK

	JOKIN LARRAÑAGA / 17
	IKER AGIRRE / 8
	MARTIN BERRIZBEITIA / 18
	JOSU ZUGASTI / 11
	ANDER ETXEBERRIA / 48

**puntua**

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna

Ane Zabaleta ikertzaileari elkarriketa

**MERKEALDIA**  
hau da zure momentua

**2 mó**  
progresibo  
erreflexuen aurkako lenteekin

**199€**  
(lehen 229€)

Kontratuak optikan konpainiaren eskeragatik.


Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIÓPTICAS**

[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)





## Bi asteotan egoerak okerrera egin du, baina abenduko langatik urrun

Azken astean positiboen goranzko joera berretsi da bigarren astez, baina abendutik urrun dago  $-1.023$  izan zen intzidentzia-tasa. Aramaiok atzo erregistratu zuen tasarik altuena, 2.229,73koa; azken bi asteetan 33 positibo erregistratu dituzte

**Maialen Santos** ARRASATE

Ekain hasieratik otsail hasiera Debagoienera, eskualdeko herriek eta gainontzeko lurraldeek izandako eboluzioa islatzen du grafikoak. Hain zuzen, betiere, hilabete bakoitzeko lehen eguna oinarri hartuta, aurreko hamalau egunetan 100.000 biztanleko zenbat lagun kutsatu diren erakusten du; hamalau eguneko intzidentzia-tasa, alegia.

Debagoienera eskualdeko intzidentzia-tasaren bilakaera goranzkoa izan da ekainetik hasi eta abendura bitartean. Hilabete hartan erregistratu zuen baliorik altuena, zehazki; 1.023ko tasa. Handik aurrera beheranzko joera hartu zuten positibo berriek, otsaila hasierara arte.

Hain justu, azaro eta abendu hasieran erregistratu ziren intzidentzia daturik okerrerenak

herri guztietan, Leintz Gatzagan izan ezik. Abendu hasieratik urtarril hasierara, baina, beheranzko joera hartu zuten positibo berriek herri guztietan, Oñatin eta Leintz Gatzagan izan ezik. Azken hilabete honetan, hau da, otsailera arte, beheranzko joera jarraitu egin du kasu gehienetan; Bergaran, Aramaion eta Antzuolan izan ezik. Oñatin ere behera egin du intzidentzia-tasak otsailaren hasierara arte.

Azkenik, nabarmentzekoa da ekainean herri ia guztien intzidentzia-tasa hutsa zela, baina

**AZKEN EGUNETAKO POSITIBO KOPURUA IKUSITA, BAHEKETA EGIN ZUTEN ATZO ARAMAIOKO ESKOLAN**

Aramaiok 67,56koa izan zuela maiatzaren 21ean izandako positibo batek eraginda. Horrek erakusten du herri txiki batean izandako positibo batek nabarmen igo dezakeela intzidentzia-tasa. Uztailean, ildo beretik jarraitu zuen joerak, baina Arrasaten eta Bergaran ekainean hautemandako hiru kasuek zerotik gandi kokatu zuen intzidentzia-tasa: 9,05ean eta 6,65ean, hurrenez hurren.

**Tasarik altuena, Aramaion**  
Eskualdeko herriei dagokienez, intzidentzia-tasarik altuena Aramaiok erregistratu zuen atzo, (2.229,73); izan ere, azken zazpi egunetan 27 positibo izan dituzte herri horretan. Atzora arte, baina, intzidentzia-tasarik altuena  $-1.908,22-$  Antzuolak erregistratu zuen azaroa hastean

bat, lurraldeetako tasak gaindituz; izan ere, urriko azken bi asteetan 43 positibo baieztatu zituzten herrian. Garai hartan, Nafarroa zen okerreren zegoena  $-1.120,54$ ko tasarekin-, baina azpimarratzekoa da Debagoienera, Gipuzkoak, Arabak, Bizkaia eta Nafarroak ez dutela sekula hilabete hasieran Antzuolak erregistratutako tasa hori gainditu. Gerora, urtarril hasierara arte, behera egin zuen herri hartako intzidentziak, baina otsail hasieran, aldiz, igo egin da berriro.

Arrasatek 1.604,86ko intzidentzia-tasa erregistratu zuen abenduaren leian  $-Antzuolak erregistratutakoaren ostean, altuena-$ . Esan behar da, gainera, lurraldeek baino tasa altuagoa izan zuela, eta arrazoi horregatik izan zen zenbait egunetz Euskal Autonomia Erkidegoko intzidentzia-tasa altuena zuen udalerria. Ekainetik kopuru horretara iritsi arte goraka egin zuen intzidentziak Arrasaten  $-iraila izan zen salbuespen bakarra, behera egin zuen-$ . Goia jo zuenetik, baina, behera egin du intzidentzia-tasak.

**JOAN DEN ASTEKO EGUBAKOITZEAN, 5.000 KUTSATUEN LANGA GAINDITU ZEN DEBAGOIENEAN**

Eskoriatzak abendu hasieran jo zuen goia; 1.131,61eko tasarekin, lurralde guztiak gainditu zituen. Sasoi hartan Debagoienera gainontzeko lurraldeak baino okerrago zegoen  $-1.023$ ko tasa zuen-. Jarraian zeuden Gipuzkoa (575,02), Bizkaia (370,39), Araba (374,43) eta Nafarroa (250,15).

Leintz Gatzagan abenduko azken bi asteetan baieztatutako hiru COVID-19 kasuek herriko tasa izugarri igo zuten, 1.200eraino. Kasu horretan ere, lurraldeen gainetik kokatu zen herri hori.

### Bigarren dosia, gaur

Oñatiko San Martin adinekoen egoitzako 70 egoiliar eta 21 langilek gaur hartuko dute koronabirusaren aurkako txertoaren bigarren dosia; eta langileetako beste batzuk, aldiz, martitzenean ziztatuko dituzte. Egoitza horretan, urtarrilaren 15ean eta 19an ziztatu zituzten lehenbiziko aldiz.

Aretxabaletako GSR Debagoienera egoitza ere martitzenean, otsailak 9, hartuko dute txertoaren bigarren dosia bertan bizi diren 125 egoiliarrek eta 117 langilek.




## Positibo kasuak

	aste honetan	aurreko astean
Arrasate	44	45
Bergara	34	24
Aramaio	27	6
Aretxabaleta	16	13
Oñati	10	5
Eskoriatza	6	1
Antzuola	5	4
Elgeta	0	1
Gatzaga	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>142</b>	<b>99</b>

OHARRA: EGUZTENERA ARTEKO DATUAK  
ITURRIA: OSASUN SAILA

## Baieztatutako positibo metatuak Debagoiengan

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



Azkenik, aipatzekoa da otsail hasieran intzidentzia-tasa baxueneko herria dela Leintz Gatzaga (0), eta gero daude Eskoriatza (73,11) eta Oñati (78,47).

Aramaiok, aldiz, pandemian zehar erregistratutako kopuru altuena zuen otsailaren leian -1.216,22-, gainontzeko lurraldeez eta Debagoienaz gaindi.

### Lurraldeek, goia azaroan

Grafikoa lurraldeka aztertuz gero, ikus daiteke azaroaren leian erregistratu zela intziden-

tzia-tasarik altuena Gipuzkoan (946,74) eta Nafarroan (1.120,54). Debagoiengan, aldiz, hilabete geroago, abenduaren leian, jo zuen goia -1.023ko tasarekin-. Araban eta Bizkaian, azkenik, hilabete honen hasieran zenba-

## LURRALDEEK BAINO INTZIDENTZIA-TASA ALTUAGOA ZENBATU ZUEN ANTZUOLAK AZAROAREN 1EAN

tu dute tasa altuena: 653,22 eta 715,55, hurrenez hurren.

Aurrez aipatu moduan, Debagoieneko joera goranzkoa izan da abendura arte, eta behera egin du horren ostean. Gainontzeko guztietan joera gorabeheratsua izan da; baina, oro har, azarora arte goraka egin du. Nabarmentzekoa da, bestetik, urtarriletik otsailera gora egin duela intzidentzia-tasak Hego Euskal Herriko lurralde guztietan, baina Debagoiengan ez da hala gertatu.

Azkenik, Debagoieneko intzidentzia-tasa Gipuzkoarekin alderatuta azpitik egon da ia hilabete guztietan, honako hilabete hauetan izan ezik: ekainean, abuztuan, urrian, abenduan eta urtarrilean izan ezik.

## BESTE LURRALDEETAN EZ BEZALA, OTSAIL HASIERARA ARTE BEHERA EGIN DU ESKUALDEKO TASAK

## Maskaren produkzioa murriztu egin du Wolfratexek

Azken asteetan maska kirurgikoen produkzioa jaitsi egin dutela azaldu du Bergarako Wolfratex enpresako gerente Iker Elizburuk: "Eskaerak jaitsi egin dira, eta horrenbestez, produkzioa egokitu egin dugu".

Aitortu duenez, ekoizpen-ahalmena handia da enpresa horretan, eta une honetan ekoizpen gaitasuna eta salmenta gaitasuna ez datoz bat. "Bi hilabete eta erdirako produkzioa gordeta dugu almagazenean, eta hala, eskaerei aurre egiteko nahikoa dugu". Era berean, langile kopurua -58 izatera iritsi ziren- eta txandak ere murriztu dituzte: orain, lantalde txiki batek dihardu lanean, egunean txanda bakarra egiten.

### Etorkizuneko erronkak

"Maskaren hornikuntzan zerbitzu integrala ematea dugu misio, eta horregatik inbertitzen jarraitzen dugu", adierazi du Elizburuk. Hain justu, FFP2 gisako maskarak ekoizteko makina berri bat erosi dute: "Banatzaile lanak egiten ari gara dagoeneko zerbitzu hori eskaintzen, baina hilabete gutxian espero dugu makina martxan jarri eta lantalde polita izatea bertan lanean".

Horretaz gain, tokiko bezeroen beharra azpimarratu gura izan du gerenteak: "Momentu honetan gure merkatuan produktu txinatarrak asko dira, eta horren aurka lehiatzea oso zaila egiten zaigu". Gehitu duenez, bezeroek tokian ekoizitako produktuak



Maskara kirurgikoak ekoizten dituen Wolfratex enpresa. XABI GOROSTIDI

baloratzen ez badituzte eta kalitate hobeko produktuak erosteko prest ez badaude, "produktio erritmoak murriztuta jarraitu beharko du". Hala eta guztiz ere, eskerrak eman gura

izan dizkie Wolfratexi babeserakutsi dioten bezeroei: "Esan beharrik ez dago oso eskertuta gaudela inguruko bezeroei, gure produktuari balioa ematen jakin dutelako".

### Azken astean, 142 kutsatu

Joan den egunetik eguazten honetara arte, 142 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19 gaitzak, aurreko astean baino 43 gehiago -99 izan ziren-. Arrasaten (44), Bergaran (34) eta Aramaion (27) hauteman dituzte kasu gehien. Hain zuzen, azken herri horretako positibo berriek gorakada nabarmena izan dute azken egunetan -atzoko intzidentzia-tasa 2.229,73koa zen-, eta, horri lotuta, zenbait udal eraikin ixteko erabakia hartu du Udalak. Eskolan izandako positibo kopuruagatik, Osakidetza baheketa orokorra egin zuen atzo bertan (Ikus 16. orria). Elgetan eta Leintz Gatzagan, bestetik, positiborik ez dute hauteman azken astean. Baina ibarrean, oro har, bi astez jarraian gora egin dute positiboek.

Osasun Sailaren semaforoaren sistemaren, laranjaz zeuden atzo Arrasate, Bergara eta Aretxabaleta; eta horiz, Oñati. Astelehenean argitaratu zuen Osasun Sailak herri gorrien zerrenda, baina Aramaio ez zen ageri, gune horian dagoen osasun eremuaren baitan dagoelako. Horrek esan gura du, besteak beste, ostalaritza-establezimenduek zutela itxi beharrik izan.


Pandemia hasi zenetik eguazten honetara arte, 5.113 debagoiendar kutsatu ditu gaitzak. Hain justu, grafikoa ikusten denez, 5.000 kutsatuen langa gauditu zuen eskualdeak joan den egubakoitzean. Grafikoa ikusten denez, lehenengo mila kutsatuak batzeko ia zazpi hilabete behar izan ziren (martxotik irailera), baina gero, bizkorrago batu ziren (42, 15 eta 24 egunetan). Bukatzeko, azken 1.000 kutsatuak 52 egunetan metatu dira (abenduaren 8tik urtarrilaren 29ra arte).

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte, bost lagun zeuden ingresatuta.

### San Martin, kutsatu barik

Debagoieneko zahar etxeei dagokionez, Oñatiko San Martin egoitzan gaixorik zegoen egoiliarra sendatu egin zen joan den zapatuan. Hori horrela, koronabirusu kasu positiborik ez dago, gaur-gaurkoz, egoitza horretan.

Bestetik, Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzan hamahiru lagunek gauditu dute gaitza, eta lauk jarraitzen dute koronabirusak jota.



Ezkerraldean, Erresuma Batuko bandera; eskuinekoan, Europakoa. ELIONAS2 / PIXABAY

# 'Brexit'-ari buruzko akordioa: muga-zergarik ez, baina aduanak bai

Abenduaren 24an itxi zuten 'brexit' gogorrik ez izateko akordioa Europako Batasunak eta Erresuma Batuk. Urtarrilaren 1ean indarrean jarritako arauak aztertzeke saioa egin du SPRI erakundeak, eta bailarako enpresa batzuk hasi dira eraginak igartzen

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

Euskal enpresa askok amesgaiztoak zituzten *brexit* gogor batek eduki zitzakeen ondorioekin, baina, 2020ko abenduaren 24an bi aldeek lortutako akordioari esker, beldur asko uxatu egin dira, momentuz. "Lortu zitekeen akordiorik onuragarriena lortu dugu Europako Batasunarentzat eta euskal enpresentzat. *Brexit* gogor batek kaosa ekarriko luke alor ekonomikora, eta, azkenean, muga-zergarik gabeko sistema bat lortu dugu", adierazi du Ekonomiaren Garapenerako sailburu Arantza Tapiak, gaiari buruz asteazkenean SPRIk egingako jardunaldian.

**Araudi berria**

Aspektu asko jasotzen ditu *brexit*-aren harira lortutako akordioak, baina euskal enpresen ikuspegitik garrantzitsuenak

produktuen salmentarekin eta garraioarekin lotutakoak dira. Aduana sistema bat ezarriko da; beraz, produktuek ez dute lehengo zirkulazio librea edukiko. Burokrazia areagotzea eta bidalketak berandutzea eragingo du horrek. Baina alde positiboa ere badu akordioak, Europako Batasunean ekoiztutako edo eraldatutako produktuek ez dute eta muga-zergarik edo kuotarrik ordaindu beharko. "Akordio hau gabe %7 eta %12 arteko muga-zergak ordaintzea aurreikusten zen; hortaz, oso albiste ona da", adierazi du Nazioarte-

**BUROKRAZIA AREAGOTZEA ETA GARRAIO EPEAK LUZATZEA ERAGINGO DUTE ADUANEEK**

kotzeko Euskal Agentziako zuzendari Pablo Fanok.

Hori bai, zergarik ez ordaintzeko, European egin edo eraldatu diren produktuak direla ziurtatu beharko da. Txinan ekoiztu eta euskal enpresa batek komertzializatutako produktuek, adibidez, muga-zergak ordaindu beharko dituzte.

Pertsonen mugikortasunarekin lotuta, negozio bidaiak sei hilabeteko epealdiarekin egin ahaliko dira. Erresuma Batuan bizi ahal izateko, ordea, puntu bidezko immigrazio sistema bat ezarri dute. Bertan bizi nahi dutenen formakuntza eta ingeles jakituria maila aztertuko dituzte, eta horren arabera puntuazio bat edo beste ezarri. Alde horretatik, ingelesezko B1 hizkuntza maila aurrez edukitzea derrigorrezko baldintza izango da bertan bizi ahal izateko.

## Nola eragingo die 'brexit'-ari buruzko akordioak bailarako enpresei?



**JOXE URZELAI**  
COPRECI

### "Entrega epeak atzeratzen ari dira"


"Aduanak jarri dituztenez, gure produktuek ez dute lehengo *free-pass* izaerarik. Aduanak pasa behar dituzte orain, eta, horren eraginez, kamioi ilarak pilatzen ari dira, eta gure produktuen entrega epea atzeratu. Erresuma Batuan segurtasun stockak ezartzea ikertzen ari gara, baina horrek kostuak handitzen ditu. Oraingoan, ez dute muga-zergarik ezarriko, baina, etorkizunean jarriz gero, arazo itzela litzateke".



**MONICA VAZ**  
FAGOR ELECTRONICA

### "Ez dugu espero aldaketa handirik"

"Erresuma Batuan dugun bezero kopurua nahiko baxua da; beraz, hasiera batean, ez dugu espero aldaketa handirik izaterik. Nagusiki, erdi-eroale produktuak dira Erresuma Batuko bezeroek gehien eskatzen dizkigutenak. Egia da aduanetan egin beharreko lan burokratikoak gora egingo duela, baina, gure kasuan, bezeroei eragingo die, eurek hartuko baitute aduanetako agente bat".



**AINHOA PETRALANDA**  
JMA

### "Ondorioak jasaten hasi gara jada"

"Lortutako baldintzak ez dira estatukideek dituztenen parekoak. Esate baterako, hemendik aurrera, aduana-aitorpenak beharko dira Erresuma Batua salgaiak bidaltzeko eta jasotzeko. Ohiko trafikoan atzerapenak eragiten ditu neurri horrek, baita garraio gastuak handitzea ere. Guri dagokigunez, eskatzen diren tramite guztiak betetzen ari gara, eta aldaketa horren ondorioak jasaten ere bai".



**BALTASAR PEREZ**  
FAGOR ARRASATE

### "Eragingo digu, baina oso modu apalean"

"Bezeroren bat edo beste dugu Erresuma Batuan. Alde horretatik, zerbait igarriko dugu, baina oso modu apalean. Logistikoak burokrasia gehiago egin beharko dute, hori bai. Makinak esportatzen ditugunez, gure produktua hiru egun geroago heltzeko ez da kalterik egingo bezeroei. Horrek arazoak sortzen badizkie, ekoizpena beste herrialde batera eramango dute, ziur asko".



# Ontzi arinak hobeto birziklatzea helburu

Hori betetzeko 'Ondo bereiztua, asko aurreztua' izeneko kanpaina jarri du martxan Mankomunitateak, herriz herri ekimenak antolatuz. Azken bi urteetan gora egin dute hori koloreko edukiontzietan pilatutako hondakin inpropioek, eta 150.000 euroko galerak eragin

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitatea aspalditik dabil *zero zabor* filosofiarekin lanean, eta hainbat izan dira hiri hondakinen kopurua gutxitzeko eta berrera-bilpena eta birziklapena areagotzeko martxan jarritako kanpainak.

Horren harira, *Ondo bereiztua, asko aurreztua* izeneko kanpaina berria aurkeztu zuten asteazkenean, edukiontzi horiekin eta ontzi arinen birziklatzarekin lotuta helburu garbia duena: "Edukiontzi horietan pilatzen diren hondakin inpropioak gutxitzea da helburua", azaldu zuen Mankomunitateko presidentea Maite Antonek.

Azken bi urteetan gora egin du edukiontzi horietan botatzen diren hondakin ez egokien kopuruak. Pixoihalak eta hondakin organikoak dira horietako batzuk. Hala, ontzi arinen bilketan egon ohi den hondakin inpropio kopuru altuak birziklapen pro-



Arazi elkarteko Nerea Ibañez eta Mankomunitateko presidentea Maite Anton. X.G.

zesua eteten eta zailtzen du. Ez hori bakarrik, ingurumen kaltea eragiten du eta diru-galera handia ere badakar Mankomunitatearentzat. "Azken bi urteetan, behar bezain ondo ez birziklatzeagatik, 150.000 euroko diru-

galera eduki du Debagoieneko Mankomunitateak".

## Ekimenak herriz herri

Hori ikusita, ondo birziklatzeko kontzientzia debagoiendarren artean zabaltzeko, kanpaina bat egingo dute, herriz herri joango dena. "Aste honetan hasi eta martxoa amaitu bitartean, zapaturo bailarako herri batera joango gara. Informazio puntu bat jarriko dugu, herritarrek eskuorri informatiboak har ditzaten. Horrez gain, haurrentzako eta gazteentzako tailerrak egingo ditugu: muralak margotuko ditugu, ginkana estiloko jokoak... Hala, jolasean ari diren bitartean ikasi egingo dute, eta karakterizazioa hobeto egiteko pautak jasoko dituzte", adierazi du kanpaina egingo duen Arazi elkarteko Nerea Ibañezek.

Ekintza presentzialetan protokoloak zorrotz beteko dituzte. Modu telematikoa ere parte har daiteke, hobeto birziklatzen laguntzeko ideiak proposatzeko aukera jarri dute eta. Parte hartzaile guztien artean kotoi organikoarekin egindako poltsak eta saskiak zozketatuko dituzte.

## Ekimenak bailarako herrietan

### Egun erdikoak

- **Antzuola:** Otsailak 6.
- **Aretxabaleta:** Otsailak 20.
- **Elgeta:** Martxoak 6.
- **Eskoriatza:** Martxoak 20.
- **Leintz Gatzaga:** Martxoak 20.

### Egun osokoak

- **Arrasate:** Otsailak 13.
- **Bergara:** Otsailak 27.
- **Oñati:** Martxoak 13.

Oharra: egun erdikoak 10:30-14:00 orduetara izango dute. Egun osokoak, aldiz, 10:30-14:00 eta 15:30-19:00.

## Urtarrilean, iaz baino 35 langabe gutxiago bailaran

2020ko lehen hilabetean 2.723 lagun zeuden lan eske; 2021ean, aldiz, 2.688; langabezia-tasa %8,6koa da

**X.G.** DEBAGOIENA

2021eko lehen hilabeteak langabe kopuru txikiagoa utzi du iazkoarekin alderatuta. Baina, langabezia-tasari dagokionez, aurtengo urtarrilean erregistratutakoa iazko urtarrilekoa baino 0,7 puntu handiagoa da.

Abendutik urtarrilerara izandako bilakaera aztertuz gero, bailarako zazpi herritan egin du behera langabe kopuruak: Eskoriatzan hamalau langabe gutxiago daude: 156, guztira; Arrasaten, hamabi gutxiago: 1.214, guztira; Aretxabaletan, zortzi

gutxiago: 222, guztira; Bergaran, lau gutxiago: 563, guztira; Aramaion, bi gutxiago: hamabost, guztira; Elgetan, bat gutxiago: 33, guztira; eta Leintz Gatzagan, bat gutxiago: bost, guztira.

Oñatin, ordea, lau langabe gehiago daude: 409, guztira; eta Antzuolan hiru gehiago: 71, guztira.

Hego Euskal Herriko egoerari dagokionez, langabezia gora egin du azken hilabetean: 2.578 langabe gehiago izan dira, eta 172.455 lagun daude une honetan lan bila.

## LANBIDEko doako ikastaroak

- FMEHO409** - Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazioa
- FMEMO411** - Pieza polimerikoak eta aleazio arinak ekoizteko moldeak fabrikatzeko
- FMEMO209** - Mekanizazio, konformazio eta muntaketa mekanikoko produkzioa
- ELEMO110** - Industria-automatizazio sistemaren proiektuak garatzea
- FMEHO109** - Txirbil-harroketara bidezko mekanizazioa

### Informazio Saioa

Otsailak 10

15:00 - 17:00

Iturripeko campusean / *Online*  
(Loramendi kalea 4, Arrasate)



Eman izena

Informazioa eta laguntza.

664 26 50 68

cursoingenieria@mondragon.edu

www.mondragon.edu/cursos/leku/leku-ikastaroak



Euskerdi, erlijioa, herriak



# Deskargako bidesaria, garraiolariarentzat "kalte"

Garraiolarien Hiru sindikatuak eta A-636 Beasain-Bergara Peajerik Ez plataformak auto-ilara zaratsuak egin zituzten joan den zapatuan Ormaiztegi eta Bergara arteko autobidean, "bereziki herritarrei kalte handia eragin diezaiokeen neurria" salatze

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Deskargako mendateko bidesariaren ordainketa noiz hasiko den zehazteke badago ere, 2022ko ekainaren 30a baino lehenago jartzea aurreikusi zuen iaz Gipuzkoako Foru Aldundiak. Uztailen, Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako foru diputatuak "beharrezkotzat" jo zuen ordainketa sistema ezartzea. "Azpiegiturek eraiki, mantendu, artatu eta ustiatzeak sortzen dituen kostuak ikustarazteko balioko du bidesariak", aipatu zuen Oiarbidek. Garraiolariak, baina, ez dute iritzi hori partekatzen, eta indarrean jartzeko dagoen neurriaren aurkako protesta egin zuten joan den zapatuan Ormaiztegi eta Bergara arteko errepidean. Guztira, ehun bat kamioiak, furgonetak eta autok egin zuten bat deialdiarekin.

Aldarrikapenen artean, koronabirusak eragindako krisi garaian beste gastu bat gehitzea "ulertezina" zela adierazi zuen Juan Antonio Calzada garraiolarien Hiru sindikatuko idazkariak Deskargako protestan, bezeroei fakturan gastu hori gehitzea garraiolari autonomoentzat "zaila" izango dela gaineratuz. A636 Beasain-Bergara Peajerik ez plataformako kide Edu Reguerok azpiegituren aldetik



Garraiolariak eta sindikatuko kideen auto-ilara, Deskargako autobidean. GOIENA

## ALDUNDIAREKIN ASPALDIAN BATU EZ DIRELA ETA KEXATZEN JARRAITUKO DUTELA ADIERAZI DU HIRUK

Gipuzkoako eskualderik "atzeratuena" izango direla eta "inguruko herrien aurka" doan neurria dela aipatu zuen.

Jarri nahi den bidesariak "Foru Aldundiak ogasun arloan eta diru-bilketan darabilen politiken

porrotaren adierazle" gisa definitzen dute garraiolariak. Sindikatuen kalkuluen arabera, "hidrokarburoen zergaren bidez jaso behar lukeena baino 200 milioi euro gutxiago jasotzen ditu Gipuzkoak urtero", zerga hori "erregia erosten den tokian ordaintzen baita".

### Pandemian "laguntzarik ez"

Egungo egoeran "beste sektoreek jaso dituzten laguntzen aurrean" garraiolariak ez dutela "ezer jaso" salatu dute, eta protestekin jarraituko dutela berretsi.



Bide makurra eta bihurtune askokoa da Kanpanzarko N-636 errepidea. JOSU BILBAO

## Kanpanzarren hirugarren erreia egiteko obrak aurrera doaz

Bizkaiko partean egingo dira lanok; 13 hilabete iraungo dutela aurreikusi dute, 1.700.406 euroko aurrekontuaz

**H.L. ARRASATE**

Bide onetik doaz Elorrio eta Kanpanzarko gainaren arteko lanak, 35,800 eta 36,620 puntu kilometrikoen artean. Azaroan hasi zituzten eta dagoeneko ikus daiteke aurrerapena. 1.700.406 euroko aurrekontua dute lanek eta proiektu oso baten lehen zatia da.

### Zirkulazio motelari irtenbidea

Kanpanzarko portuak, Bizkaiko tartean, lau kilometro eta erdian, trazadura bihurtunetsua du, eta aurreratzeko aukera ematen duen bi zati besterik ez. Hain zuzen, Beasain-Durango ardatzaren parte da; Lehentasuneko Sarearen parte. Ibilbide luzeko bidaiak bideratzea du helburu, AP-8 eta AP-1 ordainpeko autobideen alternatiba gisa erabiltzen baita.

Errepide horrek hamalau kilometro ditu eta 6.481 ibilgailu-

ren batez besteko intentsitatea du egunero; horietatik %16,9 kamioiak dira, 1.095 inguru.

### Beste tarte bat ostean

820 metroko hirugarren erreia egiteko hamahiru hilabete behar dira. Errepideak 3,50 metroko zabalerako hiru errei izango ditu. Obrek irauten duten bitartean, hormigoizko hesi bat jarriko dute, trafikoa eta obra eremua bereiziko dituen, lan tarteari segurtasuna emateko.

Lehen fase hori amaituta, 2022an, 800 metro inguruko beste zati bat hastea aurreikusten du Bizkaiko Foru Aldundiak, eta beste 1,7 milioi euro inbertituko ditu horretarako.

Bi tarte horietan egingo diren obrak amaitutakoan, Kanpanzar mendatean, ibilgailu arinen puntako orduetan, Elorrio-Arrasate noranzkoan, batez beste 4,5 minutu murriztea espero da.

## Arku bidezko ordainketa-sistema

A-636 errepidean arku bidezko ordainketa sistema ezarriko dela adierazi zuen Aintzane Oiarbidek urriko Gipuzkoako batzar orokorrean. Sistema hori N-1 eta A-15 errepideetan jarrita dago, baina horietan kamioiek soilik ordaintzen dute.

Ibilgailuek gelditu gabe ordainduko lukete, beraz, programaturako hiru arkuetatik pasa ostean: Beasaingo arku

Beasain-Ormaiztegi zatiaz (2,8 km) arduratuko litzake, Ezkiokoa Ormaiztegi-Zumarraga zatiaz (5,4 km) eta Deskargakoa Legazpi eta Bergara (7,3 km) artekoaz.

Oraingo Foru Aldundiak publiko egin dituen datuen arabera, ibilgailu arinek Beasain eta Bergara arteko bidaia bakarragatik 2,53 euro ordainduko lukete, bi eta hiru

ardatz arteko ibilgailu astunak 4,11 euro eta lau ardatz baino gehiagoko ibilgailu astunak 5,15 euro. Maiztasunaren arabera, beharrezkoak izango lituzkete erabiltzaileek bidesariaren prezioan. Motozikletek, bestalde, ez lukete ezer ordainduko.

Kobratzeko sistema urte amaieran edo 2022 hasieran jarri nahi dute. Aldundiak 10.352.00 euroko aurrekontua bideratu du proiektuan.

## Marixo Iparragirre, absolutua Oviedoko atentatuagatik

Espainiako Auzitegi Nazionalak ez zuen nahikoa frogarik ikusi joan den ostiraleko epaiketan Marixol Iparragirre 1997ko Oviedoko komisariaren aurkako atentatuagatik epaitzeko, eta absolutu egin du kasu horretan.

Fiskaltzak 71 urte eskatzen zizkion, atentatu hori aginduta bost delituren erantzule gisa: bat, "hondamendi terrorista"

sortzeagatik; hiru, "hilketa saia-keragatik"; eta beste bat, "lesio terroristak" eragiteagatik. Hala ere, kausa horregatik Frantzia zigorra bete duela ebatzi du epaitegiak.

### Hamaika epaiketa zabalik

2019an, Frantziatik Espainiara eraman zuten Iparragirre. Espainiako Auzitegi Nazionalan zabalik dituen hamabi epaiketatik bat zen hau. Frantziako kartzelatan hogeituroko zigorra bete du eskoriatzarrak.



## GUTUNA

**Bakarrik eta hotzez hiltzen****JOSU GARITAONANDIA**'OPARITU ZUHAITZ BAT'  
EGITASMOAREN ARDURADUNA  
BERGARA

2018an, Erresuma Batuan Bakardadearen Ministerioa atera zuen Theresa May-ren Gobernuak. 200.000 pertsona inguru egon zitezkeen hilabete osoa familiarekin

edo lagunekin hitz egin gabe, eta edadetuen %75 bakarrik bizi ziren. Suposatzen dut koronabirusaren krisiaren ondorioz handitu egin dela bakardadearen arazoa.

Honi loturik, sortutako krisi ekonomikoarekin, gero eta gehiago daude txirotasun energetikoan: etxea berotu ezinka, ur hotzarekin, eta berotu gabeko janariekin

elikatzen. Ezin dute ordaindu duintasunez bizitzeko behar duten energia.

Argindar-enpresa handi batzuen mesedetan gizartea gehiago ari da sufritzen; zehazki, edadetu asko daude bakarrik eta hotzez hiltzen.

Hori aldatzea nahi baduzu, has zaitezke zure etxeko energia aldatzen: kontratatu kooperatiba energetiko bat.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna

Eskertza-gutuna

Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali  
*gutunak@goiena.eus* helbidera!

Erantzun-gutuna

Aldarrikapen-gutuna

Kexa-gutuna

## HANDIK ETA HEMENDIK

**Gaiak****ONINTZA ENBEITA**

HTTPS://LABUR.EUS/WOG87  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Utzi egingo omen dio ni irakurtzeari: nazkatuta omen dago COVID-19ari buruz irakurtzeaz. Bada, pentsatzen dut ezingo duela telebistarik ikusi, ez irratirik entzun, ez kalean inorekin berbetan gelditu. Neuri ere ez zait gaia apasionantea iruditzen, baina ez dago besterik: gaia COVID-19a da. Hori bai, esaten digutena errepikatzea da aukera bakarra: Erresuma Batuko aldaera, txertoaren onurak, kudeaketa ona... zerbait zalantzan jartzen baduzu, laster esango dizute ukatzailea zarela edo ea mundua borobila dela sinesteari utzi diozun.

[...] Iazko martxoan sarrarazi gintuzten etxera: hamabost egunerako. Urtebete beteko da ordutik eta ez dago berri on askorik: aldi baterako erregulazioak, langabezia, komertzioak itxita edo ixtear, lagunak gaixorik, osasungintza lehertzeko zorian... zuk baina, idatzi egin behar duzu, kantatu, sortu, eman. Eta zure lagunak ez du nahi COVIDaz idatz dezazun. Eta pentsatzen duzu zure laguna ausartu egiten zaizula esaten, baina asko egongo direla gauza bera pentsatzen. Orduan, gauzak garbi esateko ohitura duen beste lagun harekin oroitzen zara eta mezua bidaltzen diozu: arrazoa zenuen, hau dena kaka zahar handi bat baino ez da.

**Ikusiz****ANDONI EGAÑA**

HTTPS://LABUR.EUS/VPKVO  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Santa Ageda bezpera dugu Euskal Herriko eguna, etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua duguna.

Laurogeitaka urteko amona bat atariko lokatzetan, buruko, soineko eta amantala beltzak, abarkak oinetan eta Realaren galtzerdi txuri-urdirak belaunetaraino. Mende bi gorputz bakarrean; harik eta koplariak aski lan egin dutela frogatu arte etxean ez dagoenaren plantak egiten dituen zuhurra; palazioak diruditen baserriak; baserri diruditen baserriak; ezteietarako moduko mahaikada prest izaten duten eskuzabalak; joandako urtean senitartekoren bat hil delako, eta lutoa luto baita, ez kantatzeko eskatzen dutenak; Toronton dagoen ilobarekin Skypez ari dela harrapatu duzun baserritarra; Maria galletak eta moskatela [...]

Aurten ez dugu Santa Ageda eskerik burutuko. Eta galera handia da. Norberarentzat batik bat. Asko ikusten da atariz atari. Eta asko ikasten. Goizeko bostetan esnatzen omen da egunero Ivan Redondo donostiarra, Pedro Sanchez presidentearen aholkulari nagusia. Ibili al da sekula Santa eskean? Ba... ez gaitu, azkarragatik, berehalakoan ezagutuko.



Post gehiago **8.** orrialdean.

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBIÑE UBEDA**



ZABALIK

IKER AGIRRE

## Gazteak jomugan

Maiz entzun izan dugu koloretako munduan bizi garela, eta hala da, baina azken urte honetan kolore bizietatik kolore apalagoetara igaro garen sentsazioa daukat. Herriak, kideak eta kaleak triste samar antzematen ditut, ni neu ere bai; lehen, egon bazeuden ere beldurrak, tristurak, haserreak eta antsietateak, baina 2020an beste leku bat hartu dutelakoan nago.

Horren guztiaren gainetik, osasun langileak, hezkuntza eta herri mugimenduko eragileak, euskara elkarteak, ostalariak, autonomoak, eta abar, eta abar, izugarritzko ahalegina egiten ari dira egoerara moldatu eta modu duinean bizirauteko.

Baina gaur, bereziki, gazteez arituko naiz; konfinamendu garaian, nerabeak etxean giltzaperatuak izan genituen, beraien esploratzeko eta esperimintatzeko nahia/beharra ukatuz. Orain, edozer egiten dutela ere, batzuen ahotan etorkizuna direnen

hauek daude jomugan, oraina ere badirela ahaztuz. Epaitu aurretik autokritika egitea ondo legokeela iruditzen zait; nork ez du bi astetik behin aldatzen diren arauaren bat hautsi?

Akaso, garbi al

dauzkagu unean-unean indarrean dauden neurriak? Nik neuk, behintzat, ez dut oso argi momentu oro zer egin daitekeen eta zer ez.

Ezin dugu ahaztu nerabearoak gure bizi prozesuetan duen garrantzia; haurraren eta helduaren arteko trantsizio bat da, bizitzan aldaketa handiena gertatzen den etapa, hain zuzen. Guk geuk ere identitatearen oinarri handi bat tarte horretan sortu genuen eta gaur garena etapa horri zor diogu.

Azkenaldian, kezka sorrarazten dit nerabeen eta gazteen aurka gogor jotzen duten diskurtsoek kalean zein hedabideetan hartu duten bolumenak, eta, hori gutxi balitz, ertzainen jokaerak txalotzeko erabiltzen diren diskurtsoen zentralitateak. Ikusi besterik ez dago erizainak behar ditugun honetan *egin zaitez ertzain, es tu futuro* iragartzen duten iragarkien maiztasuna. *Egin zaitez ertzain erizain, zeure eta geure etorkizuna da.*

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### 'Heiter' maiteak

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

*Hater* ingelesezko jatorrizkoan, *jeiter* "j" iota esaten ez duzuenentzat edota *heiter* Santi Leonek bezala "h" hasperenduz esanda. *Heiter* maiteak:

Entzuna nuen ekologia, feminismo, txerto... berbak entzunda, Twitterren ugariak zirela. Hartu fobia bat, harrika jarduteko gogoari anonimotasun amini bat gehitu -bo, azken hau ez da ezinbestekoa- eta dinbi-danba, esker-eskuin adjektibo festa hasteko osagaiak prest dira.

*Heiter* chef. Pandemiak on egin die potolokeriak botazaleoi:

beste hainbat jardun mugatuta, arkatz lodiz, edonoren eta edozeren karrikatura egiteko garai ona.

Nire harridura ez du horrenbeste *heiter* jardunak berak eragin. Nork ez du fobia edo filiarik. Neu, miran ikastolak hartu izanak harritu nau. Irain gisa botatako "pribatu"-tik hasita, baztertzaila, segregatzaile, monokromatiko, entxufista eta hamaika halako irakurtzeak. Euskal Erdia buruan -eta helburuan?- lau Tellitu ere eskas lituzkeen zaparrada jaso du Ikastolen Elkarteak; EHko luze zabalean, herri eta auzoetan errealtate anitza duten ikastolen taldeak. Segregazioa urbanismotik

bertatik hasiko ez balitz bezala.

Herri ez normalizatua baino, gehienera -Espainiako- autonomia erkidego bi eta Frantziako mugaz haratago *ezdakitziurzer* bat ikusten dutenek publikazio deia zabaldu dute. Euskal hezkuntzaren arazoa ikastolak omen. Eta geu ohartu ez! Hik Hasiko kide baten galderak asebeste ninduen ni: "Zer irabaziko luke Euskal Herriak, ikastolak galduta?". Eta @*uhandrea*-ren esan batek ere bai, Twitterrez: "Gai hau ezin da hemen eztabaidatu".

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooparatiba Elkarteak  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

### LAGUNTZAILEAK



Kultura eta  
Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Objektu fisikoek apenas dute kutsatzeko gaitasuna"

ANA GALARRAGA ELHUYAR FUNDAZIOAREN ZIENTZIA DIBULGATZAILEA

Xabi Gorostidi OÑATI

Oñatiko Natur Eskolak antolatutako jardunaldietan aritu da hizlari birusen gainean, eta, nola ez, baita COVID-19az ere.

**Birus hitza gauza txarrekin lotzen dugu, zuzenean; baina denak ez dira txarrak, ezta?**

Hala da, denak ez dira kaltegarriak. Bakteriekin ere, berdin. Azken horien kasuan, ezinbestekoak dira gure metabolismoaren lan batzuk egiteko. Gurekin batera bizi dira eta guretzako egiten dute lan. Eta birusekin ere antzera gertatzen da, eboluzioa gertatzeko ezinbesteko motor dira eta.

**Birusak aipatuta, ezin saihestu COVID-19ari buruz galdetzea. Hirugarren olatuak harrapatu gaitu jada. Hirugarren izate hutsa porrota da berez?**

Olatuena bada eredu bat, onartu duguna, eta badirudi olatuka neurtzen dugula birusaren eragina. Azken finean, argi dago hedapena ez dela soilik mikroorganismoak



Ana Galarraga, Goienarentzat ateratako argazki batean. KARMELE URIBESALGO

egiten duenaren araberakoa, baizik eta horrekiko nola jokatzeko dugun eta zein neurri hartzen ditugun ere. **Aipatu izan duzu objektuek oso gaitasun txikia dutela kutsatzeko...**

Zientzian bada zuhurtasun printzipioa deituriko kontzeptu bat. Ahal den heinean, neurririk zuhurrenak ezartzen dira, kalteak gutxitzeko asmoz. COVID-19a agertu eta gutxira, higienean

eta desinfekzioan zuhurtzia printzipioa muturrera eraman zuten. Ikusi genituen kaleak eta egoitzak desinfektatzen, haur parkeak itxita, eskularruak barra-barra erabiltzen genituen, kasu batzuetan derrigortuta... Aldiz, esan ziguten maskarak ez zirela hain garrantzitsuak... Baina geroztik, ebidentziek guztiz aurkakoa argitu dute: maskaren erabilera oso eraginkorra dela, eta ez horrenbeste objektu eta gainazalen garbiketarak. Horietan gera daitezkeen birus partikulak segituan eraman beharko genituzke ahora, eta kasu horietan ere ez dago argi kutsatzeko gaitasunik izango luketen ere. Horrenbestez, ez du zentzu handirik haurrei baloi batekin jolastea debekatzea.

**Austrian, adibidez, FFP2 maskarak derrigorrezko egin dituzte garraio publikoan. Maskarak erabiltzen hilabete batzuk daramatzagun honetan, nahasmena eta zalantza piztu dezake horrek?**

Ematen du orain arte erabili ditugun bestelako musukoek ez dutela ezertarako balio. Baina kontua ez da horrela. Udan, British Medical Journal-ek egindako mundu mailako ikerketa batek zioen homologatutako maskara

guztiak eraginkorrak zirela; baita %50eko babes maila edukita ere. Zergatik? Denok jantzita badaramagu, nahikoa delako. Gainera, zioen garrantzitsuagoa zela maskara eroso eduki eta ondo erabiltzea, babes maila altua eduki eta eroso ez edukitzea baino. Kasu horietan, maskara ukitzen eta ondo jartzen aritzeak arrisku altuagoa zuela esaten zuten. Erizain bat bazara eta kutsatze arrisku konstante batean bazaude, erabili FFP2a. Baina beste kasuetan, ebidentziek argi utzi dute erabilera ona eraginkorragoa dela musukoa bera baino. **Txertoarekin lotuta, zenbat denborarako immunitatea emango digute? Israelek sei hilabeteko bermea eman die txertoa jaso dutenei...**

Hori ezin dut nik erantzun. Entsegu klinikoak duela oso gutxi egin dituzte, eta, alde horretatik, ia ezinezkoa da zuk egindako galdera hori zehatz erantzutea. Baina badakigu orain arte egindako probek irauin egin dutela. Behin kutsatu ostean, gure gorputzak sorrarazten dituen defentsa naturalek ere irauin egiten duela ikusi dugu. Aldaera berriak oso ezberdinak badira, ordea, kutsatu egin gaitzake.

## ITURRI ONETIK

### Bergarako Udal Gobernuaren asmoak, plazara

Bergarako Udal Gobernuak *Bergara, izan, bizi, ekin* plana aurkeztuko du jendaurrean datorren egunean, hilak 11, Seminarixoa. Datozen urteetarako Gobernuak Bergarako nahi duen plana aurkeztuko dute eta plan horretatik eratorritako proiektu eta ekintza zehatzak ere bai, urterik urte gauzatzen joango lirartekeenak. Era berean, iruditeria eta marka berria ere erakutsiko dute. Alkateak eta Gobernu kideek hartuko dute parte eta alde ludikoak ere izango du tartea, musikaren bidez.

## ALBISTE IZAN ZEN

2002-02-04

### Hondakinak jasotzeko lehen edukiontzia

Azken hogeitau urte hauetan asko hitz egin, eztabaidatu eta aurreratu da hiri hondakin kudeaketari eta bilketari dagokionez. Bi hamarkada atzera eginez, zabor poltsak lurrean, bereizi edo sailkatu barik, uzten ziren, kamioiak lurretik poltsok jaso eta erretzera edo zabortegira eroateko. 2002ko otsailan hasi zen Mankomunitatea etxean sortutako hondakin poltsak botatzeko edukiontzia kaleetan jartzen. 465 edukiontzi jarri zituzten.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### Chill Mafia taldearen azken lana, berbagai

Trap estiloa jorratzen duen Chill Mafia taldeak kaleratu duen azken lana, *Gazte arruntaren koplak*, hizpide izan da Twitterren:

*@erlantzibar*: "Goizean goiz, berdel freskoa gozagai, Chill Mafia taldearen eskutik".

*@txinbo*: "Gauza pila irakurri dot ondo informatzeko. Berritoki ikusi dot bideoklipa adi. Eta gustatu egin jat #chillmafia. 80ko hamarkadako punkixa moduan probokatzaile".

*@marinalanda*: "Ba neri ere gustatu zait abestia, baina ezin dut ulertu neskalagun-objektuaren papera bideokliplean".



Mondragon hotelaren ondotik joango da bidegorria, Garibai etorbidetik Kulturalarantz, atzeko bidegorriarekin lotzeko. E.A.

## Zati bat desjabetuko dio Udalak hotelari, bidegorri sarea osatzen joateko

'Ekobulebar'-arekin jarraitzeko, "Biteri kalea egokitzeko proiektua teknikoa" onartu du udalbatzak, Mondragon hotelaren alegazioak deuseztatuz, eta horrek berekin dakar desjabetzea; hala, EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek aurkako botoa eman dute

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

*Ekobulebar* proiektuarekin jarraitzeko, "Biteri kalea egokitzeko proiektu teknikoa" onartu zuen martitzenean udalbatzak, Mondragon hotelak (Hotel Alto Deba SL) egindako alegazioak deuseztatuz, "udal zerbitzu teknikoek 2020ko urtarrilaren 20an egindako txostenean azaldutakoan oinarrituta". Proiektua onartzeak berekin dakar inplizituki "erabilera publikoaren deklarazioa eta eragindako ondasunak eta eskubideak okupatzeko beharra, desjabetze ondorioetarako", baita urgentziaz okupatu behar direla deklaratzeari buruzko legedian aurreikusitako ondorioekin", txostenak jasotzen duenez.

Maria Ubarretxena alkateak azaldu zuen bidegorriari lekua egiteko, espaloia zabaltzeko eta

errepideak ere lekua irabazteko egingo duela Udalak desjabetze hori. "*Ekobulebar*-ak dakar erdigunetik bidegorria sartzea. Kasu honetan, Biteri kaletik Kulturalarantz joango da, gero atzeko bidegorriarekin lotzeko. Azken finean, gure herriko bidegorri sarea hobetzen joatea eta bizikletaren erabilera sustatzea da honen helburua".

EH Bilduren bozeramale Mainer Morrasek azaldu zuen ez daudela ados *Ekobulebar*-arekin eta desjabetzeak zuzeneko lotura duela proiektuarekin. "Gainera, esan zaigu hausnarketa

**"BIDEGORRIAK LEKUA IRABAZTEKO ETA BIDEA ZABALTZEKO" HELBURUA IZANGO DU DESJABETZEAK**

bat egingo dela eta printzipioz bateragarria dela autobusak erdigunetik kentzearekin. Hitz politak esaten zaizkigu, baina aurreikusita zegoen hotelari zati bat kentzea, autobusek handik biratu ahal izateko, eta dagoneko hasi dira horrekin. Beraz, ez dakigu benetako hausnarketa gogorik daukan Gobernuak".

**Zuntz optikoaren gorabeherak**

Osoko bilkurako galdera eta erantzunen tartean, eta aurreko astean Zuntz 2021 plataformak adierazi zuenaren harira, EH Bilduko bozeramaileak azpimarratu zuen arrakala bat sortzen ari dela alde zaharreko eta gainontzeko herritarren artean, zuntz optiko falta dela eta.

Ezkurak azaldu zuen zuntz optikoa egoteko, gaur-gaurkoz, lurperatua izan behar dela eta Alde Zaharreko Plan Berezi be-



Asteburuan egindako pintaketak eta jarritako kartelak. ARRASATEKO UDALA

### Asteburuko ekintzak, eztabaidagai

Aurreko asteburuan, hainbat pintaketa egin zituzten herrian, pegatinak eta kartelak jartzeaz gain, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren jarrera salatuz. Hori dela eta, Udal Gobernuak publikoki salatu zituen ekintza horiek, ohar bidez, eta martitzeneko osoko bilkuran ere atera zuen gaia Anuska Ezkurra Gobernuaren bozeramaileak. "Sinestezina da aurreko asteko pintaketen ostean berriro ere jarrera hauek egotea. Gure babes osoa adierazi gura diogu udal langile talde honi, zeinak pandemia gogor eta bortitz honetan osasun eta segurtasun neurriak betearazteko lana duen", azaldu zuen.

Horrez gain, udal alderdiei babesak eskatu zien. "Ez dugu zuen babesik jaso eta zintzotasunez diot eskertuko genukeela. Aukera paregabea daukazue orain horretarako". EH Bilduren bozeramaile Mainer Morrasek erantzun zion "oso zakarra" izan zela gaia bizikidetzaren mahaian landu gabe osoko bilkurara eraman izana, "tresna erasotzaile gisa. Gaiak hausnarketa sakonagoa behar du eta batzordean landu beharrekoa da, bizikidetzaren inguruko eztabaida zintzo bat bermatze aldera".

Johanna Sanchez sozialista "erabat ados" azaldu zen Ezkurak esandakoarekin eta Eva Abuin Elkarrekin Arrasateko zinegotziak, aste honetan kargua hartu berri duenak, Morrasek esandakoari heldu zion. "Sakonago hausnartu beharreko gaia da".

rriak aukera emango duela zuntz optikoa sartzeko lurperatu gabe. "Bat gatoz ganorazko zuntz optikoa behar duela alde zaharrak, eta agintaldi honetan posible izango da hori. Baina oraingo planarekin, enpresendako garestia da eta ez dago haien eskaintzarik", gaineratu du.

Kepa Urteaga EH Bilduko zinegotziak aldarrikatu zuen alde zaharrean bizi direnek "orain" behar dutela zuntz optikoa. "Ezin dugu lanik egin, eta akademiek ere ez. Konturatzen zarete horretaz? Beraz, behin-behinekoz ahalbidetu daitezke aukerak".

**ASTEON, ELKARREKIN ARRASATE UDAL TALDEKO ZINEGOTZI KARGUA HARTU DU EVA ABUINEK**

Hala, Ezkurak gaineratu zuen bilera bat egingo dutela kalte-tuekin, eskaerari erantzunez.

**Eva Abuin, zinegotzi**

Osoko bilkurak utzi zuen berrikuntzetako bat Eva Abuin zinegotzia izan zen, Igor Urizarren lekukoa hartu berritan, eta alderdi guztietako kideek ongi-etorri mezuak eskaini zizkieten saioa hastearekin batera. "Konpromisoa ez daukat legearekin, arrasatearekin baizik. Igor Urizarri azken urteetan egin duen lana eskertu gura diot eta berak eraiki duen bidea errotzen saiatuko naiz", azaldu zuen.

Horrez gain, nabarmendu zuen herritarren zerbitzura egongo dela aurrerantzean. "Edozein galdera, proposamen edo salaketa izan ezker, nirekin harremanetan jartzeko gonbidapena egin gura diet arrasatear guztiei".



# Zalduspera lekualdatuko dute autobus geltokia

'Ekobulebar'-aren lanek iraun bitartean, Zalduspen kokatuko dute geltokia, apirilaren 1etik aurrera; halere, aparkaleku guztiak mantenduko dituztela dio Gobernuak, atzeko bi eraikinak bota egingo dituztelako –Transporte Aramburu eta Etormobil zirenak–

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

*Ekobulebar*-aren lanek irauten duten urte eta erdi inguruan, "erabiltzaileei gauzak errazteko eta geltoki egonkorra egoteko", Zalduspen jarriko dute autobus geltoki nagusia. "Badakigu aparkatzeko zailtasunak egoten direla gune horretan, oso erabilia delako aparkalekua. Beraz, atzeko bi eraikinak bota egingo dituzte, eta aparkalekuak lekua irabaziko du hor", adierazi du Maria Ubarretxena alkatea. Otsailaren 15ean hasiko dituzte lekua egokitzeko lanak, eta apirilera prest egotea espero dute.

Erabiltzaileei erdigunearekiko lotura errazteko asmoz, atzoko osoko bilkuran onartutako autobus zerbitzu berriarekin, herribusa 15 minutuan behin egongo dela azaldu du alkateak. "Gainera, Mugi txartelarekin, autobus aldaketa hori doakoa izango da. Hala, Donostiatik, Gasteiztik edo Bilbotik datorren bidaiari batek herribusa doan hartu ahal izango du unibertsitatera edo erdigunera joateko".

Gaur egun Garibain ibilbidearen bukaera daukaten autobusak izango dira Zalduspen geldituko direnak. "Beraz, saihebidetik sartuko dira, hemen geratuko dira eta berriz ere saihebidetik joango dira. Horrekin lortuko duguna da erdiguneko trafikoa arintzea". Bien bitartean, beste behin-behineko geltoki bat ere jarri dute Roneo etxebizitzaren atzealdean, "baina geltoki horretan ez dira autobusak zain geratuko, bidaiariak utzi eta jaso ostean joan egingo dira".

## Geltoki "duin" baten beharra

Alkateak nabarmendu duenez, proiektuak aurreikusten duen Garibaira bueltatzea geltokia, baina aitortu du beste alternatiba batzuk jarri direla mahai gainean, "EH Bilduk proposatu duena, besteak beste", geltokia erdigunetik ateratzeko. "Argi



Ibon Arrupe zinegotzia eta Maria Ubarretxena alkatea, Zalduspen. TXOMIN MADINA

## SEI AUTOBUS HARTU AHAL IZANGO DITU ETA HIRU MARKESINA EDUKIKO DITU, BAITA KOMUN BAT ERE

ikusten dugu Arrasatek behar duela autobus geltoki duina, estalia eta askotariko zerbitzuekin, baina esan beharra dauka horrelako aldaketa batek nahitaez eskatzen duela HAPOren birkalifikatze bat lursailtan. Horrek bizpahiru urteko iraupena izango luke eta guk plaza-ratu gura dugu hausnarketa bat, ekarpenak jaso eta etorkizuneko geltoki hori non jarri erabakitzeko herritarrekin batera".

Era berean, EH Bilduren proposamena "guztiz bateragarria" da *Ekobulebar* proiektuarekin, Ubarretxenak azaldu duenez. "Aukera egokia izan daitekeela ikusten dugu, eta aukera posible moduan daukagu. Azken batean, alderdi guztiok ari gara gure herriaren alde lanean, eta, ideiak onak izanez gero, alderdikeriak baztertu egin behar dira", gaineratu du.

## Hirugarren autobus linea

Zalduspeko geltokia herriko hainbat punturekin lotzeko, hirugarren autobus linea bat ere jarriko du Udalak. "Mantendu egingo dira gaur eguneko bi linea zirkularrak, herriaren beheko alde eta goikoa batzen dituztenak, eta hirugarren linea azkarra izango da, beheko aldetik era zuzenean lotuko ditu Arruena –Eroskiko geltokitik–, Arimazubi eta San Andres". Hirugarren lineak lotura-autobus edo *lanzadera* eran jardungo du. 745.467,33 euro bideratuko dituzte horretara –%10eko BEZa barne–.

EH Bilduk begi onez ikusten du hirugarren linea, baina zerbitzua publikoa izan beharko litzatekeela uste du, "horrek bermatuko lukeelako langileek baldintza duinak izatea eta euskara kontuan hartzea, guretzako ere inportantea baita hori", azpimarratu du Maider Morras bozeramaileak.

Elkarrekin Arrasate udal taldeko Eva Abuin zinegotziak ere nabarmendu du "behar handien duten sektoreak" direla erabiltzaile nagusiak, eta prezioak horretara egokitu beharko liratekeela.

## Mugimendu feministaren batzar irekia, Kulturaten

Bihar, zapatua, 10:30etik 13:00etara egingo dute saioa, eta gerturatzeko dei egingo diete herritarrei

**E.A.** ARRASATE

Kulturateko areto nagusian batzar irekia egingo dute bihar, zapatua. "Emakumeen Mundu Martxako bosgarren ekintza eta Martxoaren 8aren antolaketa-rako, antolatu gaituzten!", aldarrikatu dute.

Bosgarren ekintza horretan, adierazi dutenez, zera ikusarazi eta salatu gura dute, besteak beste: transnazionalak, mugek eta migrazio-politikek sistema arrazista, kolonial, kapitalista eta heteropatriarkalaren tresna gisa duten funtzionamendua.

Otsailean zehar landu ostean, martxoaren 6an emango diote amaiera ekintza horri, eta Martxoaren 8ko ekimenarekin indartu gura dute. "Horregatik, aurreko urteetan horren arrakastatsua izan den M8 plataformaren deitzen dugu. Denon artean hausnartu eta antolatzeke, bihar egingo dugun asanblada irekiera gonbidatzen zaitugu".

COVID-19aren aurkako segurtasun neurriak hartuko dituzte, eta euskaratik gaztelararako itzulpen zerbitzua egiten saiatuko direla ere azpimarratu dute. "Zatoz eta zubiz betetako bide honetan izan gaituzten bidelagun! Elkarrekin gara eta elkarrekin izango gara!".

## Santa Ageda koruak ekarpenak jasotzeko kanpaina abiatu du

50 urtean lehen aldiz Santa Ageda bezperan ez dira kalera irteten, baina ekarpenak jaso gura dituzte aurten ere, "geroz eta jende gehiago dagoelako beharrea pandemiak eragindako krisiaren ondorioz". Bi kontu korrante jarri dituzte herritarren eskura: 2095 5055 55 1075081967 (Kutxabank) eta 3035 0001 55 0010103614 (Laboral Kutxa).



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

## Gaurko gazterixia...

Sokratesek zioen Atenasko gazteak ez zirela arduratzen polisaren arazoez, ez zeukatela buruan jaia eta plazera besterik, eta hori onartezina zela. Horrela, ez zegoen etorkizunik ez filosofiarentzat, ez Atenasentzat. Orduetik denboratxo bat igaro da; egon zen etorkizuna, azkenean, baina, belaunaldi belaunaldi, helduok joera izan dugu edozein arazoren errudunak bilatzean "gazteak" aukeratzeko, datuek kontrakoa esan arren.

Pandemia garaian beldurra zabaldu da, eta beldurra ez da aholkulari onena. Beldurtuta gaudenean, babesa eskatzen dugu, eta gure balizko segurtasuna arriskuan jartzen dutenei norbaitek egurra ematea, ahal bada. Kontua da arriskua sortzen dutenak seinatuz beti dela errazena jo-puntuari ipintzea heldu aburgesatuak baino posizio ahulagoan dauden gazteak.

Eta nik horixe ikusten dut gazteen kontrako mezuen eta poliziaren jarrera erasokorraren atzean: koldarkeria bihurtutako beldurra. Koldarkeria salatari eta biolentzia. Benetako erantzukizuna dutenengandik fokua aldentzeko amarrua.

## OHARRAK

### Udalpe elkarteak

Bazkide berriak behar dituzte Udalpe elkarteak. Interesa duenak mezua bidali dezala [udalpe.elkartea@gmail.com](mailto:udalpe.elkartea@gmail.com) helbidera.

### Glaziarrek berbagai

Goienagusiren baitan, Eñaut Izagirre geologoak hitzaldia egingo du astelehenean, otsailak 8, Kulturateko areto nagusian, 10:00etan.

# Larragaineak eta Udalak hitzarmena berri dute

Kurtzetxiki mendian kontserbazio lanak egin eta ingurumen baliabideak sustatzeko berri dute hitzarmena. Hala, Arrasateko Udalak 6.000 euroko dirulaguntza bideratuko du Larragain elkartera, mendi horretako jarduerak finantzatzeko

**Hasier Larrea** ARRASATE

Udalak adierazi duenez, pandemia garaian "nabarmen" areagotu da eremuaren erabilera, eta, hortaz, "ezinbestekoa" da mendiaren kontserbazioan aurrerapausoak ematea eta ingurumena berreskuratzea, "mendiak dituen ingurumen baliabideak, baliabide kulturalak, paisajistikoak eta aisialdi aktiboak sustatzen dutenak guztion eskura egon daitezzen".

Hitzarmenaren bidez, larreen ibiltzeko sistema erregulatu gura dute Kurtzetxiki mendian: "Zehazki, goiko aldean dagoen bazkalekuan edo etorkizuneari ezarri daitezkeen eremuan".

Udalak nabarmendu duenez, helburua abereak larreen ibiltzea da, mendiaren kontserbazioarekin eta mendia hobetzearekin bateragarria den moduan, betiere, Gipuzkoako lurraldearen mendiei eta ganadu kudeaketari buruz ezarritako dauden neurriak jarraituz eta lehen sektorea sustatuz. "Gure inguruko nekazari eta abeltzainei baliabideak eman behar dizkiegu lehen sektorea indartzeko, kontuan izanik lehentasuna dela ingurumenaren eta biodibertsitatearen babesa", azaldu dute. Modu horretan, Arrasateko Udalak 6.000 euroko dirulaguntza bideratuko du Larragain elkartera bere jarduerak finantzatzeko.

## Elkartea, elkarlanaren alde

Larragain elkaratea helburu du Arrasateko ganaduzaleek Kurtzetxiki mendiko eta Arrasateko Udalaren jabetzako beste larre publikoak elkarlanean kudeatzea. Horrez gain, Larre Publikoen Kudeaketa Plana adostea ere badute jomugan, ganaduzaleek eta Udalak elkarlanean, larreen hobekuntza bultzatu eta Arrasateko lehen sektorea indartzeko. "Taldekotasunarekin erregimenean abereen identifikazioa gauzatu eta indarrean dauden



Larragain elkarteko abereak Kurtzetxikin, Bedoña auzoa hondoan dagoela. GOIENA

## URTE OSOAN JARRAITUKO DUTE ELKARTEKO KIDEEK BELARDI HORI KUDEATZEN

osasan eta abereen mugimendurako arauak betetzea ere gura dugu", adierazi dute Larragain elkarreko kideek.

### Abeltzainak Kurtzetxikin

Arrasateko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek elkarlanean aztertu du zein den abelburu kopuru egokiena. Hala, Kurtzetxikiko larreak modu jasangarrian aprobetxatzeko gehieneko kopurua hurrengo litzateke: "Apirilaren 1etik urriaren 31ra, 25-30 buru nagusi - behiak eta behorrak- eta azaroaren 1etik abenduaren 31ra, 120 buruko artaldea".

Beraz, 2021ean, Arrasateko zazpi abeltzainek izango dute euren ganadua Kurtzetxikin, 2020an bezala. Apiriletik urri bitartean, sei abeltzainek eramanango dituzte abereak mendi inguru horretara. Zehazki, bost

behor eramango ditu Sabino Lodiok, bost behi Aitor Murgoiok, bost behi Aitor Aranak, bost behi Jesus Garaik, bost behi eta behor Juan Mari Plazaolak eta hiru behi Maria Pilar Ibabek. Azarotik abendura, berriaz, abeltzain bakarrak, Juan Jose Iturbek, edukiko du ganadua Kurtzetxikin: 75 ardi.

Udalak adierazi duenez, "oso aberasgarria da udal larreen kudeaketaren hitzarmenari esker abeltzainak eta Udala elkarlanean aritzea; izan ere, lehen sektorearen partaidetza ezinbestekoa da gure ingurumenera zaintzan eta gure mendien mantentze lanetan".

### Akordioa, 2018a ezker

Hiru urte pasa dira herriko zazpi baserritarrek Larragain elkartea sortu zutenetik. Udalarekin Kurtzetxikiko lurak berreskuratzeko akordioa egin zuten segidan. Urte hartan bertan ekin zieten lanei: eremua belardi bilakatzeko lurra altxatu, eta tratamendu berezi bat eman zioten. Hurrengo udaberrian hasi ziren ekimen horren emaitzak irteten, orain arte bere fruituak eman dituenak.

## Greziako egoera politikoari buruzko solasaldia gaztetxean

Errefuxiatuak eta Europako Batasuneko murrizketak izango dituzte hizpide bi arrasatearrek, bihar, 12:00etan

**H.L. ARRASATE**

"Entzuleen parte hartze aktiboa" sustatze aldera, hitzaldi itxura baino gehiago, solasaldi itxura eman nahi izan diote zapatu goizean gaztetxean egingo den hitzorduari Ane Lopezek eta Julen Mendizabalek. Kazetari batek gidatuko du saioa, hizlari galderak eginez eta erantzunek sor ditzaketen zalantzei bide emanez. Izan ere, bi antolatzaileak jakitun dira beste herrialde bateko kontuak "arrotzak" egin ahal zaizkiola entzuleari, eta horregatik saiatuko dira gaiak ahalik eta modu naturalenean azaltzen, betiere, bizipenetatik abiatuta.

### Ikasitakoak, mintzagai

Bai baitaukate Greziari buruz zer kontatu batauk zein besteak. Lopez Atenas hiriburuko Exarchia auzoan bizi zen duela gutxira arte; gehienbat, Ekialde Hurbiletik ihes egindako errefuxiatuek "halabeharrez" okupatutako etxebizitzetako batean. Lehen pertsona jaso zituen, beraz, hango testigantza: "Bizipenetan oinarritutako gertaerak kontatuko ditut nik, bai errefuxiatuekin lotutakoak, bai

poliziaren indarkeriaren ingurukoak eta baita gobernuaren kanpoko erakundeekin zerikusia dutenak ere".

Julen Mendizabalek, berriaz, Askapena erakunde internazionalistarekin egin zuen egonaldia Greziako txoko ugartan, eta Europako Batasunak joan den hamarkadan egin zituen murrizketen eta herritarrek horren aurrean izandako erantzun desberdinen lekuko izan zen: "Greziarrek neurri politiko horiei nola aurre egin zieten kontatuko dut, egungo egoerari testuinguru bat emate aldera".

Biek ala biek eskarmentua daukate herrialde helien artean gertatzen ari dena arrasatearrei gerturatzeko garaian, gai horiek azaltzeko saiakera bat baino gehiago egin baitute herrian, Irati Topalekuan eta gaztetxean bertan, esaterako. Gai internazionalen jendartean interesa pizten dutela adierazi dute, eta herritarrek "lehen eskuko informazioa" eskertzen dutela nabarmendu. "Komunikabide orokorretan azaletik aipatzen dira gertaerak, eta guk, berriaz, sakontasunez lantzen ditugu", diote biharko solaskideek.



ARRASATEKO UDAL

## Saria, euskaraz ikasteagatik

Udalak, urtero moduan, 2020an *Gidabaimena euskaraz* programaren barruan parte hartu zutenen artean zozketa egin du, eta Ane Regodesebes izan da saritua. 410 euro eskuratu ditu; hau da, azterketa egitean ordaindutakoa. Mankomunitateak eta euskara zerbitzuek materiala euskaratzeko egindako lanari ekarpena egiten dio modu horretan Udalak.





Elkartek bi sarbide izango ditu, bata aurrealdetik eta bestea atzealdetik, elbarriei erraztasunak emateko. IKER AROSTEGI

# Auzolana ardatz, elkarte gastronomikoa sortzen

Udalpe eta Erguin kaleen arteko eraikinetako azpi-solairu batean herritarrentzako topagunea ireki nahian dabilta zenbait auzotar. Aste honetan ireki dute bazkide izan daitezkeenentzako izen ematea; otsailaren 15era arte egongo da aukera apuntatzeko

## Hasier Larrea ARRASATE

Erabilera askotariko elkarte atondu nahi dute Erguin eta Uribarri auzuneetako bizilagunek, eta hasiak dira dagoeneko urratsak egiten. Izen-ematea irekitzeaz gain, lokalaren jabe den Sukia eraikuntza enpresarekin negoziatzen ari dira, eremua erosi eta barruan egin beharreko obra zibilaren gastuak kalkulatzeko.

## Auzoko beharrei erantzuna

"Proiektuak kale horietan daukagun zenbait behar aseko lituzke", azaldu du Iker Arostegik, Erguingo bizilagun eta elkarte gastronomikoaren bultzatzaileak: "Eraikinak diseinatu zituztenean, eraikuntza-enpresek lohiriaren ereduari jarraitu zioten; ondorioz, azpi-solairu guztietan garajeak egin zituzten, eta ta-

bernak edo komertzioak irekitzeko aukerak baliogabetu".

Hain zuzen, hamar garaje irekiren batuketa okupatuko luke elkarte gastronomikoaren azalerak. Jangelan 86 mahaikiderentzako tokia legoke, eta, ondoan, kafetegi eta taberna funtzioak beteko lituzkeen gunea, beharrezko azpiegitura eta tresneriarekin.

## Azken hitza, bazkideek

Izen-ematea ireki zutenetik astebete baino pasa ez bada ere, prozesua "martxa onean" doala aurreratu du Arostegik, eta "gutxieneko masa bat" lortuko dutela ziurtatu: "Otsailaren 15ean itxiko da izen ematea; ondoren, bilera egingo dugu interesa erakutsi duten guztiekin, eta jende kopuruaren eta obra zibilaren kostuen arabera erabakiko dugu zenbat ordaintzeko prest gauden". Behin kontu horiek finkatuta deliberatuko dute izena eman dutenek bazkide izan nahi duten edo ez.

Hileroko kuotei dagokienez, "prezio merkea" ezarri nahi dute sustatzaileek, elkarteko diru-sarrerara gehienak "erabiltzaileek egingo duten kontsumotik" bideratu nahi dituztela argudiatuta. Diru-bilketa horretan badu esperientziarik Arostegik, Amaia antzokiaren azpian kokatuta dagoen Txalaparta elkarteko diruzaina izan baitzen iraganean. "Arlo horretan, lantalde baten laguntzarekin, ekarpena egin dezaket", aipatu du.

Gaur egun Arrasateko elkarte gastronomikoen egoera zein den galdetuta, batzuk itxita daudela ziurtatu du Erguingo bizilagunak: "Leihorik ez daukatenez, segurtasun neurriak bermatzen ez dituztelako". Hori horrela, bazkideen kuotak minimora jaitsi dituzte zenbait elkartek, "mantentze gastuak ordaintzen jarraitzeko, behintzat".

## "Giroa" sortu da auzunean

Funtsean, "lagunekin batzeko, bazkariak eta afariak egiteko eta herritarren topagunea izateko" ireki nahi dute elkarte gastronomikoa. Azkenaldian Erguin eta Uribarri aldean sortu den "giroak" egitasmoari

zentzu handiagoa ematen diola azaldu du Arostegik: "Ekitaldi ugari egin genituen iaz; Gabonetan, esaterako, auzoa argitze-ko kanpaina jarri genuen martxan, ur botilak berrerabiliz lanpara handi bat zintzilikatuz kalean. Olentzero eta Mari Domingi ere jarri genituen. Bestalde, udaberriko itxialdiak lagundu egin zuen bizilagunen arteko harremanak sakontzen".

Udalak azpiegiturretan egindako inbertsioak ere izan ditu hizpide Erguingoak; Itxaropena kaleko plazaren eraberritzea, besteak beste: "Lehen, familia gutxi egoten ziren elkargune horretan, eta asko Arimazubira jaisten ziren; orain, plaza estalita eta zabu berriekin, mugimendu gehiago sumatzen da inguruan, eta igartzen da jendea gehiago egoten dela auzoan".

## "Aspaldi" sortutako ideia

Gune horretan elkarte gastronomikoa sortzearen proiektua duela hamar urte inguru sortu zela aipatu du Arostegik: "Orduan ere bazegoen beharra, baina, azkenean, sustatzaileek atzera egin zuten, lokala eskuratzeko kostuak altuegiak zirela iritzita". Orain, "higiezinaren prezioak jaitsi direla eta bizilagun berrientzat etxeak egiten dabilzala" kontuan hartuta, berriz mugildu dira egitasmoan. Herritar orok, izan auzunekoak edo ez, [uribarrikoelkarta@gmail.com](mailto:uribarrikoelkarta@gmail.com) helbidean egin dezake bere bazkide eskaera.

## 86 LAGUNENTZAKO EDUKIERAKO JANGELA ETA TABERNA ZEIN KAFETEGI GUNEA EDUKIKO DU LOKALAK

## Bihar, Musakolako gazte txokoan ekingo diote ludoteka ibiltariari

Martxoan San Andresera eta apirilean Erguina lekualdatuko da Txatxilipurdiren eskaintza mugikorra

## H.L. ARRASATE

Ludotekarik ez dagoen auzoetan egiten du Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria; 3 eta 12 urte arteko neska-mutilei zapatu goizetan aisialdiaz gozatzeko aukera ematen die. "Balio hezitzaile"

leak" sustatzeko ekimena dela azpimarratzen dute antolatzaileek: "Parte-hartzea, autonomia, sormena, konfiantza, hezkidetzeta eta naturarekiko errespetua jorratzen ditugu; euskaraz, bertiere". Era berean, auzotarren

artean harremanak egin eta elkar ezagutzeko gunea ere eskaintzen dute; "Hiru hezitzaile izango dituzte bidelagun, eta beharrezko baliabideak eskainiko zaizkie".

## Aurten, izena eman behar

Beste urteetan ez bezala, aurten izena emateko deialdia ireki dute hezitzaileek, partaide bakoitzari bi zapatutan apuntatzeko aukera emanda. Guztiek tokia izan dezaten, taldekatzeak egingo dituzte. "Larunbat bako-

tzean 18 haur edo nerabek parte hartuko dute, eta, leku hauek bukatzean, itxarote-zerrenda bat egingo dugu, norbait joan ezinean geldituz gero, hurrenkeran tokatzen zaionari abisatu ahal izateko. Beraz, garrantzitsua izango da izena eman eta joateko aukerarik ez dutenek aurrez abisatzea", azaldu dute.

## Erguin auzoa, nobedade

Oraingo honetan, San Andres eta Musakola auzoei Erguin auzoa batu zaie; apirila eta mai-

tza bitarteko lau larunbat goizetan ere han egongo dira.

Hori horrela, Musakolako gazte txokoko atarian batuko dira otsailaren 6an, 13an, 20an eta 27an, San Andresko Arimazubi plazan martxoaren 6an, 13an, 20an eta 27an, eta Erguingo Itxaropena plazan apirilaren 17an eta 24an eta maiatzaren 8an eta 15ean. Osasun neurriari dagokienez, 6 urtetik gorakoek maskara eraman beharko dutela eta segurtasun neurriak zainduko dituztela aipatu dute.

# "Zaila da igoera fasean egotea, baina posible"

**MARTXEL BALANZATEGI MU-KO KAPITAINA**

**SASKIBALOIA** Arrasatearra gozaten dabil, nahiz eta harmailak hutsik ikustea tristea dela aitortu. Dio ederra izango litzatekeela igoera fasea jokatzera, nahiz eta zaila den

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Joan den astean Easori irabazi eta Ardoik Santurtziren kantxan galdu eta gero, MU ostera ere EBA kategorian lider dago. Halaxe amaitu zuten iazko denboraldia, baina ez zuten igoera fasea jokatzetik izan. Aurten, hor egon gura dute, nahiz eta erronka zaila den, talde baka-rrarendako bakarrik dago-eta lekua.

**Hasteko, zenbat PCR proba pasa dituzu dagoeneko?**

Kar, kar, kar... Berez, ez dizkigute PCRak egiten, antigeno probak dira, baina bai, makilaxoa berdin sartzen dizute suduzulotik. Bada, jardunaldi bakoitzeko proba bat egiten badigute, eta horri Arrasateko baheketak masiboa batzen badiogu, dagoeneko hamaika test egin dizkidate. Badira batzuk, bai.

**Izan ere, zuena da erregulartasun handiena izan duen liga, apenas izan duzue geldialdirik.**

Hilabete inguru egon ginen geldi, gure kontra jokatu behar zuten horiek koarentena betetzen zebiltzalako. Baina bai, nahiko erregular ibili gara, eta, gainera, taldean ez dugu, oraingo, positiborik izan. Hori oso lagungarria da txapelketan zentratuta egoteki; izan ere, taldekide edo kontrario batek positibo eman duelako koarentena betetzen ibiltzea ez da gozoa. Ez gara saskibaloitik bizi, beste lanbide eta ardura batzuk ditugu.

**Zenbait kirol jardueratan talde batzuek muzin egin diote lehiatzeari.**

Eta erabaki ulergarria da. Errespetatu egin behar den erabakia da; izan ere, berriro diot, guk zorte ona izan dugu. Baina dagoeneko hainbat koarentena bete behar izan dituenak...

**Aurtengo denboraldiak konpromiso aldetik esfortzu handiagoa eskatzen duen honetan, lider egoteak asko lagunduko du, ala?**

Egia esan, iazko denboraldiko dinamizari jarraipena ematen



Martxel Balanzategi, Iturripen. GOIENA

**"TALDEA DINAMIKA ONEAN DAGO, ETA, HORREZ GAIN, ERREKUPERATU EGIN DUGU IAZKO MAILA"**

gabiltza, eta horrek asko laguntzen du. Iaz, oso ondo geunden, oso joko maila ona geneukan liga bertan behera utzi zutenean, eta aurten, baja garrantzitsu batzuk izan baditugu ere, harrobiko gazteek pauso bat aurrera eman dute, fitxaketa bat egin dugu eta berriro ere maila on hori errekupe ratzen gabiltza. **Domekan aparteko zailtasun barik irabazi zenuten Easoren kontrako derbia, ala? [79-62]**

Normalean, kantxan bizi izandakoa markagailuak erakusten duena baino gogorragoa izaten da, baina bai, partidu serioa egin genuen. Aste barruan Arri-k kontrarioaren gaineko hainbat xehetasun azaldu zizkigun, eta aurreikusitako norgehiagoka egin genuen.

**faseko arantza ateratzea da aurtengo helburua?**


Ederra izango litzateke, egia esateko. Ez da erraza izango; are gehiago, iaz baino zailagoa da. Izan ere, COVID-19a dela-eta aldatu egin dute ligaren egitura. Iaz, multzo bakoitzeko bi talde onenak sailkatzen ziren, eta aurten, multzo bakoitzetik onena baino ez da sailkatuko.

**Pena da EBAtik Zilarrezko LEB Mailara halako saltoa egotea.**

Bai; iaz ikusi zen hori. Kantxan lortu genuen kategoriaz igotzeko eskubidea, eta klubak egin zuen ahalegina eta klubak aztertu zituen. Udalarekin, Federazioarekin, Diputazioarekin, babesleekin... hartu-emanetan egon ziren eta ikusi zen gaur egungo egoeran ekonomikoki oso zaila dela salto hori eman ahal izatea. Baina iaz egindakoa aurten errepika genezake.

**Partiduak izan daitezela, baina, harmailetan jendea egonda.**

Bai; izugarri igartzen da hutsune hori. Kanpoan jokatzeari, jendea kontrari izatea motibagarria izaten da, eta etxean babesleen animoak izatea izugarria da... Tamalez, publiko barik jokatzera ohitu ere egin gara.



Malen Ruiz de Azua, asteburuan, Anoetako belodromoko podiumean. GOIENA

## Ruiz de Azua gertu dago neguko hitzordu handiei aurre egiteko

**ATLETISMOA** Arrasatekoak marka pertsonala egin du (4,41) pertikarekin eta Euskadiko txapelduna da

**X.U. ARRASATE**

Malen Ruiz de Azuak (1995) ezin hobeto hasi du urtea. Asteburuan Euskadiko Txapelketan egindako lanak erakusten du bide onetik doala neguko hitzordu garrantzitsuei begira egindako prestakuntza. Asteburuan, klubaren arteko Espainiako Txapelketa izango du, eta otsailaren 20an jokatu du Espainiako Txapelketa absolutua.

**Urteko saltorik onena**

Hala, hitzordu horiei begira joan den asteburuan Anoetan egindako 4,41eko markak -marka

pertsonala- sekulako hauspoa emango dio Euskadiko txapeldunari; izan ere, oraingoan, Espainiako urteko saltorik onena da arrasatearrarena: "Entrenatzen sentazio onak izan nituen, baina ez nuen berotze saio ona egin. Eta hor, entrenatzailearekin berba egin eta zenbait zuzenketak egin genituen. Bada, 4,30eko saltoa egin nuenean eskatu nuen listoa 4,41ean jartzeko; hau da, neukan errekorra baino zentimetro bat gehiago. Dantzan utzi nuen listoa, kar, kar, kar, baina, zorionez, ez zen erori", adierazi du Arrasate Irratian.



CARLOS SANCHEZ

## Saioako ordezkariak, podiumera

**KARATEA** Joan den asteburuan egin zuten, Hondarribian, Gipuzkoako karate txapelketa, eta Saioa Karateko hiru ordezkariak podiumera igo ziren. Aitor Lasagabaster hirugarren izan zen katetan, Iosu Madinabeitia bigarren kumitean eta Carlos Sanchez lehenengo kumitean.



# "Kultura arloko langileak defendatzea dagokigu"

EÑAUT ELORRIETA MUSIKARIA

Datorren astelehenean aurkeztuko du musikari gernikarrak, bere taldearen laguntzaz, 2019ko azaroan kaleratutako 'Irteera argiak' diskoa, Amaia antzokian, 19:00etan

Hasier Larrea ARRASATE

Joan-etorri luzea egin du Eñaut Elorrietak euskal musikagintzan. Ken Zazpi taldetik bakarkako ibilbidea egitera pasa da, eta alboan sortzaile asko dauzka.

**Astelehenean joko duzue; ez al da egun bitxia kontzertua egiteko?**

Garai bitxiak bizi ditugu eta! Egoera honetan kontzertuak ematea gauza handia denez gero, astelehenean ematea are eta handiagoa da. Mimo handiz gabilta Arrasateko emanaldia prestatzen.

**Zeure izena darama kartelak, baina ez zaude bakarrik.**

Agertoki gainean eta atzean, guztira, 15 pertsona gaude. Kultur arloko langileen duintasuna eta lanpostuak aldarrikatzea tokatzen da orain, pandemia aurretik ere aldarrikatzen genuen bezalaxe.

**Laguntzen du horretan Beste Bat! dinamika?**

Bai, noski. Laguntza puntual eta urgente guztiak dira ongie-



2019 amaieran aurkeztu zuen azken diskoa Elorriagak, Arriagan. JONATHAN MCCALLUM

torriak, nahiz eta perfektuak ez izan. Jende asko gelditu da laguntza hori jaso gabe, irakurri ditut iritzi batzuk, eta ados nago eurekin. Krisi ekonomiko latza datorkigu gainera; horren aurrean, kultur mugimendua ahal-

dundu behar dugu, gure sektorea herri honetako zutabeetako bat delako.

**Zuk proposatzen dituzun irteera argiek nora garamatzate?**

Barrura, norberaren baitara. Diskoa pandemia aurretik ka-

leratu banuen ere, irtenbide bera proposatzen jarraitzen dut. Hau luzerako doala dirudi; beraz, norbere mamuei aurre egitea besterik ez da gelditzen.

**Nola erreazionatzen du publikoak ezohiko zuzeneko hauetan?**

Hasieran, kontzertuetan hoztasuna gailenduko zela pentsatzen nuen: jendea banatuta, musukoarekin... Zorionez, kontrakoa gertatzen ari da: publikoak eta taldea elkar babestu nahi bat, sentimentalki lotzen gaituen hari bat, ikusten dut emanaldietan. Hori ez nuen aurreikusit, eta hunkigarria da.

**Saltsa askotan ibili zara 2013an bakarkako lehen diskoa argitaratu zenuenetik.**

Bai, erronkak gustuko ditut eta! 2013an *Deserriko kantak* kalera-tu ostean, Labeque ahizpekin eta beste hainbat euskal musikarirekin European zehar kontzertuak eskaintzeko zortea eduki nuen. Esperientzia hark eta Ken Zazpirekin grabatutako orkestra sinfonikoak hari boskote batekin *Hariak* diskoa ateratzera bultzatu ninduen. Horren ostean etorri zen *Irteera argiak*. **Euskal poeten eta idazleen letretara jotzen duzue kantuak idazterakoan. Zer dela eta?**

Herri txiki bat izateak abantaila asko ditu, zorionez. Horieta-ko bat da sortzaile guztiak oso gertu daudela eta oso eskuzaballak direla. Alberdi, *Sarri* eta halako idazleen ekarpenek nire gabezia bati erantzuten diote,

iaioagoa bainaiz melodiak asmatzen letrak idazten baino.

**Eta zer dator lehenago, letra edo melodia?**

Egoeraren arabera. Poesia irakurtzean, bat-batean testu batek gitarra hartzeko gogoia pizten dit; eta aurkakoa: melodia bat sortzen dudanean, olerkiren bat ere etortzen zait burura.

**Kantuak biluzik uztea gustuko duzu, gainera.**

Kantua denbora osoan entzutea gustatzen zaidalako; hau da, ahots eta gitarraz bakarrik konposatutako esentzia beti hor egotea maite dut. Hori horrela, Ruben Caballero, Ander Zulaika, Maite Larburu eta Fernando Neira musikariek ederki aberasten dituzte abestiak.

**Nolako bilakaera izan duzu 25 urteko ibilbidean?**

Lehen, kantu bat amaitutzat jotzen nuen ezer gehiago gehitu ezin nionean. Orain, alderantziz: kantu bati amaiera ematen diot ezer kendu ezin diodanean.

**Eta aurrera begira, zer?**

Kontzertuak emateko asmo sendoa daukat, baita aldi berean sukaldeko lanetan aritzekoa ere. Konposatzeak barrua sendatzen laguntzen dit.

**"BARRURA BEGIRAKO IRTEERA ARGIAK PROPOSATZEN DITUT DISKOAN; EGOERA HONETAN, OZENAGO"**

## Urteroko emanaldiak moldatzen dabilta Arrasate Musikalekoak

Santa Ageda egunari keinu egin zioten, eta Aratusteei ere omenaldia egingo diete musikari gazteek Amaian

H.L. ARRASATE

Azken urteotako ohitura zen Arrasate Musikaleko Izan Suzuki taldeak Santa Ageda bezperan Gesalibarko Jentilola elkartearen emanaldia eskaintzea, baina aurten beste era batera egin behar izan dute. Gauzak horrela, joan den zapatuan, Monterron jauregiko patioan jo zituzten biolin eta piano doinuez Santa Agedako kantua eta beste hainbat abesti, bideoan grabatu eta Gesalibarko elkarte kideei bidaltzeko. Hamabost neska-mutilek parte hartu zuten.



Santa Agedari omenaldia. EDORTA AIASTUI

Otsailaren 12an, Amaia antzokian

Pandemiak galarazi egingo du Arrasate Musikaleko kideek Aratusteei mozturorik eman ohi duten kontzertua, baina egungo egoerara moldatutako emanaldia eskainiko dute sei talde gazte eta Jurasicos berteranoek Amaia antzokian. Hilaren 12an izango da hori, 18:30ean hasita. Elkarteko kide Edorta Aiastru aurreratu duenez, "musikariak, oihalaren beste aldean itxaron ordez, butaketan jarrita egongo dira, harik eta oholtzara igotzen diren arte". **Taldeen kontzertua** deitu diote ikuskizun horri, Aratusteei inolako loturarik izan ez dezan. Sarrera gehienak musikariren ingurukoek jasoko dituzte, eta soberan daudenak leihatilan banatuko dira, ordu-bete aurretik.

## 'Alpha' antzezlan eskainiko du Gorka Ganso komikoak Amaian

Emanaldi umoretsua bihar taularatuko du Ganso & Cia konpainiak, 17:00etan hasita; sarrerak ez dira agortu

H.L. ARRASATE

"Gauero lotara joaten garenean ametsen mundura igarotzean gertatzen zaiguna" kontatuko du, berezko zertzelada umoretsuez, Gorka Ganso *clown* eta komikilariak bihar arratsaldean, 17:00etan hasita, Amaia antzokian. Zuzenean jotzen duen pianista batek lagunduko dio Gansori, gainera, "gaueko mamuen aurkako borroka" azaltzen.

Ganso & Cia konpainiaren esanetan, "kontakizun samur eta dibertigarria" osatu du komikoak, "musika eta keinua"

elementu nagusitzat hartuta. Ekoizpen handietan ez bezala, euren obretan "korrontearen kontra aritzea" lehenesten dutela ere aipatu dute konpainiatik, "arimarik gabe ezinezkoa izango litzatekeen artisau lana" eginez horrela. Umorea baloratzen duten haur, gazte eta helduentzat, "gutxiengo handiarentzat", erabat gomendagarria den antzezlan dela gaineratu dute.

Konpainia Aste Santuaren bueltan egiten den *Topaclown clown* artisten topaketako sustatzaileetako bat ere bada.



Kartela kiroldegiko atean, itxita dagoela azaltzeko. AINARA INUNTZIAGA

## Astelehenera arte, hainbat udal eraikin itxita

Azken astean, COVID positibo kopuruak nabarmen egin du gora Aramaion; hori dela eta, Udalak erabaki du kultura etxea, kiroldegia, entsegu lokala eta musika etxea ixtea. Egoera horren ondorioz, kaleak hutsik eta isilik daude Aramaion

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Azken astean, gogor kolpatu du koronabirusak Aramaio. Eguenean, urtarrilaren 28an, hasi zen positibo kopuruen goranzko joera; ordutik, 25 kasu baino gehiago atzeman dira.

Nabarmendu behar da positibo kasu asko San Martin eskolan atzeman direla; hori kontuan hartuta, Osakidetzak baheketak

orokorra egin zuen atzo eskolan. Atzora arte proba egin barik zuten ikasleak deitu zituen Osakidetzak; hogeit bat izan ziren. Modu horretan, egon daitezkeen kasu positibo asintomatikoak atzeman nahi dituzte. San Martin eskola zabalik dago, baina hainbat gela itxi egin behar izan dituzte. Atzo jasotako datuen arabera, HH, LH-1-2 eta LH-4

gelak zeuden itxita; LH-3 eta LH-6 geletan, batzuk etxetik ari ziren lanean eta beste batzuk gelatik; eta LH-5 gelan gehienak modu presentzian zeuden.

### Eskolarekin lotura zuzena

Egoera hori dela eta, udal ordezkariak batzarra egin zuten martitzenean: erabaki zuten eskolako jardunarekin lotura zuzena

### Laguntzeko telefonoa

Udala jakitun da egoera ez dela erraza; hori horrela, norbait konfinatuta badago eta laguntza behar badu, udaletxera dei egin dezake, 945 44 50 16 zenbakira. Izan ere, norbera etxean egoteaz gain, ingurukoak ere konfinatuta egon daitezke.

duten hainbat udal eraikin ixtea: musika etxea, kiroldegia, entsegu lokala eta kultura etxea. "Zuzenean ez dugu informaziorik jaso, baina, egoera ikusita, erabaki dugu astelehenera arte dena ixtea. Ahalegin bat egitea erabaki dugu. Astelehenean ikusiko dugu zeintzuk diren datuak, eta orduan erabakiko dugu zer egin", dio Lierni Altuna alkateak. Udal eraikin horiek ixtearen ondorioz, horietan eskaintzen diren jarduerak ere bertan behera geratu dira; besteak beste, eskola-kirola.

Eguneko zentroa eta udaletxea zabalik egongo dira; eta liburutegiko mailegu zerbitzuak ere orain arteko moduan funtzionatu du, betiko ordutegiarekin.

### Herrian izan duen eragina

Egoera horrek eragin zuzena izan du herri osoan. Aramaio gaur egun duen intzidentzia tasa altua da -500etik gorakoa-; hala ere, 5.000 biztanletik beherako herrietan hiru aldagai hartzen dira kontuan herri hori *gorria* den edo ez zehazteko: 100.000 biztanleko 500eko intzidentzia-tasa gainditzea, azken zazpi

egunetan hiru kasu edo gehiago erregistratzea eta dagokion osasun eremua ere gune *gorrian* kokatzea. Lehenengo bi aldagaiak betetzen dira; ez, ordea, hirugarrena. Debagoieneko ESiren baitan dago Aramaio, eta, azken datuaren arabera, eremu *horian* dago Debagoieneko ESI. Hori horrela, Aramaio ostalaritza establezimenduek ez dituzte atek itxi behar izan.

Kontuak kontu, egoerak eragina izan du herri osoan. Familia asko dira etxean konfinatuta daudenak, eta horrek ekarri du kaleak hutsik egotea, eta, ondorioz, eragina zuzena izan da ostalaritzan. Añai tabernako Mikel Pereirak hauxe dio: "Hasi batean, uste genuen taberna itxi beharko genuela, intzidentzia tasa oso handia delako. Zabalik dugu, baina egoera ez da ona: gurasoak, aitona-amonak... etxean daude. Herria hutsik dago".

Iturrieta sagardotegian gaur dira denboraldia zabaltzekoak: "Sagardo berriaren irekiera atzeratu genuen otsailera, baina, tartean, itxiera perimetralki ere ipini dute. Hortaz, zabalduko dugu, baina aramaioarrak bakarrik etor daitezke, eta ez dakit zabalik denbora luzean mantendu ahal izango dugun. Gainera, orain dugun egoerarekin... Nik badauzkat aste bukaerarako erreserba batzuk. Horiei emango diet, eta gero, ikusiko dugu zer gertatzen den. Izan ere, argia, berogailua... mantendu egin behar dira".

### FAMILIA ASKO DIRA ETXEAN KONFINATUTA DAUDENAK, ETA, ONDORIOZ, KALEAK HUTSIK DAUDE

## Zabolan dagoen gurdibide bat desafektatzea onartu dute

Udalbatzak egindako osoko bilkuran hartutako erabakia da; horrez gain, udal langileen soldatak igo egin dituzte

### A.E. ARAMAIO

Aramaio udalbatzak urtarri-leko ohiko osoko bilkura egin zuen joan zen egunean. Bost gai izan zituzten esku artean; horien artean, udal eraikinen garbiketaren egiten duen Samsic

enpresarekin kontratua urtebete luzatzea -abendura arte-. Horrez gain, udal eraikinen garbitasunaren kontratazio espedienteari hasiera eman zioten. Hala, hurrengo osoko bilkuran oinarriak zeintzuk izango diren

onartzeko aukera egongo da. Aho batez onartu zuten espedienteari hasiera ematea.

Gurdibide baten desafektazioa izan zen beste gai bat. Zabola auzoko 6. poligonoko 66, 68, 548 eta 549 partzelen arteko bidearen desafektazio espediente onartu zuten, EAJko bi zinegotzien abstentzioarekin eta EH Bildukoekin baiezkoarekin. "Udalean jaso genuen Zabolan dagoen bide bat zabaldu edo berreskuratzeko eskaera. Katastroan begirata, bidea egon badagoela iku-

si dugu, nahiz eta azkeneko hogeit urteetan ez den erabili. Auzotarrekin elkartu ginen, eta bide horren beharrik ez dute ikusi. Hori horrela, 2019ko urriko osoko bilkuran onartu zen bide hori desafektatu eta saltzea", azaldu zuen Lierni Altuna alkateak. Katastroan zegoen huts bat aldatu behar izan zuten, eta ondoren, Diputazioaren tasazioaren zain egon. Azkenean, azaroaren 4an jaso zuten tasazioa. "Bidearen inguruko hiru lur jabeek jakinarazi zaie erabakia",

dio. Partzela zati handiena hartzen duen jabeari eskaini dio Udalak bidea. Eskaintza jaso duenak baiezkoa eman du, nahiz eta alegazio bat aurkeztu duen; beste lur jabe bat desafektazioaren aurka agertu da; eta hirugarrenak ez du ezer esan.

Azkeneko puntua udal langileen soldata igoera izan zen. Aurrekontuen legeak esaten duenaren arabera soldatak %0,9 igoztea onartu zuten aho batez. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako igoera izango da.



# "Eredu berrien bila joan nintzen atzerrira"

DANEL FERNANDEZ ABELTZAINA

Frankfurt-eko Dottenfelderhof komunitatean bizi da aramaioarra; abeltzaina da, eta natura begiratzeko, hausnartzeko eta deskribatzeko beste modu bat topatu du han

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Alemanian, Frankfurt bizi da Danel Fernandez (Aramaio, 1995). Bestelako hezkuntza sistema baten bila irten zen Aramaiotik, 18 urte zituela. Lehenengo, Ingalaterran izan zen, eta gaur egun, Alemanian bizi da. Hango bizipenak azaldu ditu.

**18 urterekin atzerrira joatea erabaki zenuen. Zergatik?**

Erabakia hartzerakoan pisu handia izan zuen hezkuntzarekin izandako harremanak. Iruditzen zait gure hezkuntza sisteman ez nituela gauza garrantzitsuak ikasi, eta eredu berrien bila irten nintzen. Gurasoen lagun baten bitartez Ingalaterrako Botton Villagen dagoen Camphill filosofiaren berri izan nuen, eta hara joan nintzen.

**Zer egiten zenuen han?**

Nekazaritza oinarri duen mugimendu soziala da Camphill; eta lan egiten nuen adimen urritasuna duten pertsonekin, boluntario. Autosufizientzia bilatzen genuen, eta lan egiten genuen helburu batekin. Ongietorria sentitu nintzen... Hiru urteren ondoren, erantzukizun handiak hartu nituen: baserri baten ardura nuen. Hori horrela, gai horretan sakontzeko nahia izan nuen. Aramaioa itzuli nintzen hiru hilabeterako.



Traktorearen barruan, txakurrarekin, Dottenfelderhof komunitatean. D.F.

**Hiru hilabete horien ondoren, Alemaniara joan zinen?**

Ostera ere, lagun baten bitartez Alemaniako Dottenfelderhof komunitatearen berri izan nuen. Ezagun bat han zebilen ikasten, eta bi asterako joatea erabaki nuen. Klase batera sartzeko aukera izan nuen: ez da hezkuntza konbentzionala. Sentsibiltatea oinarri hartuta gauza asko lantzen dira hemen. Asko gustatu zitzaidan filosofia hori: irakasleek galderak egiten zizkiguten, guri lagundu ahal izateko gura nahiak zeintzuk ziren jakin gura zuten.

Oso osasuntsua iruditu zitzaidan, bai gizakiarendako eta baita buruarendako ere. Zortzi hilabeterako lanpostu bat eskaini zidaten: buztinarekin eta lasto-arekin etxeak eraikitzen. Zortzi hilabetez lan egin ondoren, beste urtebete osoz baserri lanean egon nintzen, laborantzan. Modu horretan, alemana ikasi nuen eta prest sentitu nintzenean ikasketak hasi nituen.

**Nolako ikasketak egin zenituen?**

Hemengo ikastaroak urte guztia irauten du; hau da, urteko lau estazioak behatzen dira, bizitza-

ren ziklo guztia. Udan ere eguneroko izaten ditugu eskolak, eta neguak duen garrantziaz jabetzen gara: landareek indarra hartzen dute udaberriari berriro ere birsortu ahal izateko. Naturarekiko beste ikuspuntu bat dago hemen, eta liluratuta geratu nintzen gauzak beste modu batera aztertzeke moduarekin. Horrez gain, botanika, kimika... zientziak ere ikasten dira; baina zentzumenen garrantzia erabatekoa da. Gauzak begiratu, hausnartu eta deskribatu behar izaten ditugu. Nekazaritza biodinamikoa deitzen zaio egiten dugunari. Filosofia eta ideologia bat dago atzean.

**Eskola bera komunitatearen barruan dago. Zelako komunitatea osatzen duzue?**

200 lagun bizi gara komunitatean. Leku handia da; daukagu gaztandegia, denda, animaliak, laborantza... Gure energia sortzen dugu eta baita ura berotzeko energia ere. Eguneroko jezten ditugu animaliak, jogurtak egiten ditugu... Ni kanpoan ibiltzen naiz, animaliekin edo zerealak lantzen; orain, batez ere, txerriekin nabil.

**Alemaniatik irten eta Alpeetan ere izan zinen, gazta egiten.**

Urtebeteko ikastaroa bukatu ondoren, 2019ko irailean, Danimarkara joan nintzen, eta 2020ko udan Alpeetan izan naiz -Fale- ra, Suitza-, gazta egiten laguntzen. Esnearen prozesu guztia ikasi dut... baina nabarmendu nahi dut ni abeltzaina naizela.

**Baina komunitatera itzultzea erabaki zenuen?**

Euskal Herrira itzultzeko gogoa nuen, baina koronabirusarekin ez zen egoera erraza... Hala, komunitatean bertan lanpostua eskaini zidaten eta itzuli egin nintzen.

**Komunitatean erabiltzen duzun energia zuek sortua dela diozu. Nola egiten duzue hori?**

Egia da erabiltzen dugun energia guztia ez dela guk sortua. Izan ere, lau hozkailu handi ditugu, zazpi metro garai direnak, eta horiek hotz mantentzea oso garestia da. Esan dezakegu sortzen dugula erabiltzen dugun energiaren herena, eta erabiltzen dugun ur beroaren bi heren. Erreaktore bat dugu, eta hor sartzen dugu egurra txiki-txiki eginda, erre egiten dugu eta energia sortzen da. Hor sortutako beroarekin ura berotzen dugu.


**Komunitateko denda edonori irekita dago?**

Bai, denda moduan funtzionatzen du eta edonor sar daiteke. Frankfurt banketxeen hiria da, eta egia da gure bezero asko gizar-te maila altukoak direla.

**Nola eragin dizue pandemiak?**

Egia esan, komunitatean dugun bizimodua ez da askorik aldatu. Kontziente gara zein den egoera, eta arduraz kokatzen dugu; hala ere, gure eskola ez da itxi, eta Alemanian, berriz, beste batzuk itxi dituzte. Maskara ere ez da derrigorrezkoa; nahiz eta dendara sartzeko jarri behar den. Uste dugu gizakiaren immunitate-sistemaren garrantziaz jabetu behar dugula, eta, horretarako, jaten duguna zaindu behar dugula. Uste dugu beldur handia sartu nahi digutela: beldur barik, baina errespetuarekin egiten diogu aurre egoera honi.

**"GIZAKIAREN IMMUNITATE-SISTEMA GARRANTZITSUA DA, JATEN DUGUNA ZAINDU BEHAR DUGU"**



NIRE USTEZ

JOKIN LARRAÑAGA

## Digitalizazioaren aurpegi iluna

Osasun publikoaren izenean, etxean eta, asko jota, herrian geratzera behartuta gaude oraindik ere. Eta nahiz eta guztiok normaltasunera itzultzeko gogoia dugun, ez dut uste egoera lehengora itzuliko denik. Ukaezina da COVIDak krisi ekonomiko sakon batean murgildu gaituela: enpresa txiki askok atea itxi dituzte, ostalari eta kultur eragileek

bereziki; handiagoez plantilla murriztu dute, eta langile asko *erte* ospetsu honetan zintzilik daude; eta enpresa oso handiak direnak are handiago egiten ari dira.

Sistema kapitalista zaharkitu honek aberastasunaren zentralizazioa eragiten du bere krisi ziklikoekin; eta oraingoak COVIDak bultzaturiko gizartearen

digitalizazio derrigortua dakar bizkarrean. Honek diru fisikoaren amaiera eta produktuen fabrikazioaren automatizazioa ekarriko du gutxiak-gutxiak, eta hori autonomia galera izugarria da herritarrontzat.

Gizarteak ezagutu duen kontrolrik basatienaren atarian gara, eta ez gara ohartu ere egin.

## Ordenagailua euskaraz konfiguratzeko deia

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak softwarea euskaraz erabiltzeko laguntza ematen du azken urteetan. Hala, Gorbeialdeko Kuadrillak ere nor bere ordenagailuko Windows sistema euskaraz jartzera animatu nahi ditu herritarrak. Hori egin ahal izateko argibideak *euskadi.eus* atariko *Euskararen tresnak* atalean aurki daitezke.

# Aratuste jairik ezingo dute ospatu herritarrek

Otsailaren 14ko mozorro-jai iragartzera etorri beharko zukeen bihar Txapel Txinek, baina aurten ezingo du halakorik egin; hala ere, ikastetxeetako neska-mutikoekin egoteko tartea hartuko du eta datorren astean haren bisita jasoko dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Udalak eta Karnabalen Lagunak taldeak elkarrekin iragarri dute aurten ez dela Aratusterik ospatu ahal izango: "Aretxabale-tarrentzat, ziurrenik, hau da festarik preziatuenetako bat. Hala ere, pandemiak sortu duen egoera ikusita ez dira ospatuko, herritarren segurtasuna, osasuna eta ongizatea bermatzea ezinbestekoa baita".

Otsailaren 14an ospatu beharko litzateke mozorro-jai eta astebete lehenago, bihar, Txapel Txin eguna. Hura ere ezingo da kalejiran irten aurten, eta ezingo du pregoirik egin, baina, etxean geratu gura ez, eta neska-mutikoei haren bisita jasoko dute ikastetxean.

Era berean, Santa Ageda neska-mutilek ere atzeratu egin behar izan dute jai. 2002an jaiotako 57 lagunek beste une baterako utzi dituzte koplakantak, diru-batzeak eta dantzak.

Udalak zein Karnabalen Lagunak erantzukizunez jokatzeko dei egin dute: "Gure egunerokotasuna eta ohiturak berreskuratzeke gogo handia badugu ere, une honetan horrelako erabakiak

hartu behar ditugu, gogorrak baina ezinbestekoak. Horregatik, aretxabaletar guztiei zentzuz eta arduraz jokatzeko eskatzen diegu. Datorren urtean merezi duten bezala ospatzea espero dugu".



Kuadrilla mozorrotuta kalejiran, iaz. IMANOL SORIANO



Gorka Hermosa, Jon Maia Soria eta Pitti, ikuskizunaren une batean. HEZURBELTZAK

## Doinu dotoreak, umorea eta kritika Hezurbeltzak-en eskutik

'Poblado Tour' ikuskizuna eskainiko dute eguenean; gaur, ostera, 'Mendian hil, hirian hil' filma dago Arkupen

**M.A.** ARETXABALETA

Hezurbeltzak proiektuaren *Poblado Tour* ikuskizuna hara eta hona dabil, eta oraingoan, Arkupera iritsiko da; otsailaren 11n izango da emanaldia, 19:00etan –sarrera, 4 euro–.

Jon Maia Soria bertsolariak, Gorka Hermosa akordeoilariak eta Pitti gitarrak-joleak emigrazioa eta horien inguruko istorioak eroango dituzte oholtzara. Aurkeko belaunaldiak egindako esfortzuei aitortza egin gura izan diete. "Gure gurasoek egin bezala, milaka izan ziren Extremaduratik, Galiziatik eta Gaz-

telatik Euskal Herrira etorri eta esfortzu bat egin dutenak, hurrengo belaunaldiak euskaldunak izan zitezten", azaldu du Maiak.

**Gaur, 'Mendian hil, hirian hil'**

Gaur, egubakoitza, Iñaki Peñak zuzendu eta Arteman Taldeak ekoiztutako *Mendian hil, hirian hil* dokumentalaren emanaldia izango da (19:00), baita otsaileko gainerako egubakoitzetan ere.


Eta domekan, hilaren 7an, 17:00etan, Potxin eta Patxin pailazo ezagunak *Ingurumena zaindu* ikuskizuna eskainiko diete neska-mutikoei.

## Aratusterik ez da izango; penarik hartu duzu?



**IBAI ZANGITU**

"Izugarria! Ez dakit negar egin barik pasatuko dudana eguna... Gure asmoa da ahal denean ospatzea, eta, 2022ra arte itxoin behar bada, bi Aratuste egun ospatuko ditugu orduan! Ez dakit inork keinuren bat egingo dion aurten, inork umorerik duen; gainera, ez dut uste halakorik tokatzen denik".



**LOURDES QUINTANILLA**

"Bai, noski; guk beti, beti ospatu izan dugulako. Nire ama ere mozorrotzen zen, eta azken urteotan bi bikote irteten gara batera. Herriko jai kuttunena izaten da, giro ederra sortzen delako kaleetan, jendeak animatzen duelako eguna. Eta oraingoan ezin bada, hurrengo urtean ospatuko dugu".



**GOIO ARRIETA**

"Bai, jairik garrantzitsuenetako bat delako. Azaro inguruan hasi izan gara gaia zehaztu eta hori lantzen: erosketak, entseguak... Eguna bera polita bada ere, aurreko lan horiek eta horren bueltan sortzen den saltsa ere gustuko ditut. Gainera, kalejira ikusi ezinaren pena geratzen zait beti".



**NIRE USTEZ**

**MARTIN BERRIZBEITIA**

## Proiektu estrategikoa

Sailburua atrilera hurbildu da. Ondoan hainbat jaun/andere dauzka, kasko eta gorbata, konbinazio bitxia soinean. Lanaren lehen harria jarri aurretik hitzaldia egin du, eta ondorengo bi hitz magikoak bota ditu: "Proiektu estrategikoa".

Bi hitzok entzun orduko sentitu da inguruan ke eta asfalto kiratsa. Enpresa eraikitzaileen bulegoetan eskuak igurzten dituzte, milioika euroko gainkostuak kalkulatu ahala. Kaskoak egunero janzen dituzten langileek lan prekario eta arriskutsua segurtatuta dute aldi baterako. Telebistako berri emailek eraikuntzaren hil ala biziko garrantzia azpimarratzen dute. Inguruko baserritarrek nostalgiaz begiratzen dute leihotik. Hormigoi gogorrak hartuko du orbel leunaren lekua. Azkonarrak bere zuloa beste mendi batean egiteko proiektua hasi du. Ospitale, ikastetxe eta aterpeetan –besteak beste– ez da ezer aldatuko.

Proiektu estrategikoa omen... Bizi ditugun garai eta penetan AHTa bezalako proiektu batekin aurrera egiteak ez dio inongo estratigiari erantzuten, ordea.



# Aurrekontuari ekarpenak egin dizkio EH Bilduk

Udal Gobernuak 2021erako zehaztu duen horretan ekarpenentzat "marjina oso gutxi" dagoela adierazi dute; hala ere, proposatu dituzte, besteak beste, txoke-plana eta laguntza psikologikorako laguntzak eta eguzki-plakak jartzeko inbertsioa egitea

**Mirari Altube** ARETXABAETA

2021erako zehaztu duen aurrekontua aurkeztu zuen orain dela bi aste Udal Gobernuak, eta EH Bilduk horri egindako emendakinek aurkeztu ditu. "Balorazio sakona" aurrekontua onartzeko hamabost egun barru egingo den osoko bilkurarako utzi dute, baina aurreratu dute aurkeztutako proiektu nagusiak "begi onez" ikusi dituztela.

Aurrekontua negoziatzeko orduan, baina, EAJren gehien-go nabaritu egin dela adierazi dute, "aurrekontu itxia" dela iritzita. "Marjina estu" horretan, hainbat proposamen egin dituzte bi helburu aintzat hartuta. "COVID-19ak sortutako egoera lazarrienak arintzea eta etorkizuneko erronkei aurre egitea", adierazi du Ion Albizuk.

## 300.000 euroko kostua

Hiru multzotan banatu dituzte proposamenok: lehenengoan, bi ekintza-plan zehaztu dituzte. Batetik, talka-plan bat proposatu dute, urtean gerta daitezkeen egoerak aurreikuszeko: "Diru-laguntzak, inbertsioak eta barne baliabideak aurrez antolatuta izatea da helburua".

Eta, bestetik, laguntza psikologikoari erreparatu gura izan diote: "Asmoa da laguntza psi-



EH Bilduren udal taldeko ordezkariak. MIRARI ALTUBE

kologikoa ahalbideratzeko bonuak eta telefono bat martxan jartzea". Horretarako, 10.000 euroko funtsa sortu gurako luke.

Bigarren multzoan, kiroldegian eta pilotalekuan eguzki-plakak jartzeko 290.000 euroko inbertsioa egitea proposatu dute: "Anbizio handiko inbertsioa da. Proiektu horren bitartez, kontsumitzen dugun argindarraren zati handi bat sortuko genuke Aretxabaletan". Inbertsio hori kreditu baten bitartez ordaintzea proposatu diote Udal Gobernuari.

Eta hirugarren multzoan, herriaren bueltako ibilbideak egokitzea eta konpontzea sartu dute; besteak beste, behin-behineko pista bat egitea GSR egoitzaren eta Santutxu artean paseo zirkularrak egiteko, eta Porruko txararako ibilbidea eta Agarre baserritik Ojala Zelaira doazenak konpontzea.

Gaineratu dute herritarrengandik jasotako ideiak txertatzea zaila izango dela aurrekontuak "tarte gutxi" eskaintzen dituelako, baina konpromisoa hartu gura izan dute ahal denean sartzeko.



UDAKO KARATE SAILA

## Vazquez eta Perez, podiumean

Fin jardun dute UDAko karatekek Hondarrbian jokaturako Gipuzkoako Txapelketan. Odei Vazquezek lehen postua eskuratu zuen 67 kiloz azpiko seniorren artean, kumite modalitatean, eta Joanna Perezek, bigarrena kumitean eta hirugarrena katan, 61 kiloz azpikoen artean. Odilo Vazquez entrenatzailea Getxon izango da bihar, Euskadiko *coach* titulua berritzen.

## Adierazpen askatasuna hizpide otsailaren 16an


*Adierazpen askatasuna eta gorrotoaren diskurtsoa* izeneko hitzaldi-solasaldia antolatu dute Udal Gizarte Zerbitzuek, ZAS! Zurrumurruren Aurkako Sarearen laguntzarekin. Zeintzuk diren mintzen eta kaltetzen duten adierazpenak eta non jarri kaltearen eta irainaren arteko muga izango dira jorratuko diren gaietako batzuk. Eta horretarako etorriko dira Imanol Zubero, Soziologian doktorea; eta Mikel Mazkiaran, Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren ordezkaria.

Otsailaren 16an izango da hitzaldia (18:00), Arkupen, baina izena hilaren 14rako eman behar da, honako helbide honetan: [ongizate@aretxabaleta.eus](mailto:ongizate@aretxabaleta.eus).

## Terrazen ordenantzari alegazioak jartzeko epea zabalik dago

Herri bidearen erabileraren eta okupazioaren gaineko ordenantza onartu zuen udalbatzak urtarrilaren 13an, eta joan den martitzenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten. Orain, hilabeteko epea izango dute herritarrek horri alegazioak jartzeko.

Ordenantza zehaztu dituzte terrazen gaineko arau guztiak; besteak beste, oinezkoak pasatu ahal izateko gutxieneko espazioak, jar daitezkeen instalazio osagarriak eta ordutegia. Arauhaustea ere zehaztu dituzte, eta horientatik jarriko diren isunen kopuruak ere bai. Ordenantza ikusgai dago Udalaren webgunean [-aretxabaleta.eus-](http://aretxabaleta.eus).



Odontologia estetikoa  
Endodontzia  
Implantologia

Ortodontzia  
PADI zerbitzua  
Hortz protesiak

Astehenetik ostegunera: 08:30-20:00  
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

# Entseatu ezinik, kezka sortzaileen artean

Kuartela Kultura Elkarteko kideek azaroa ezkerro dute kuarteleko eraikina itxita, eta sortzaileak kezkatuta eta euren jarduerari ekiteko gogoz daude. Hori horrela, Udalari proposamen bat helarazi diotela eta ezezko erantzuna jaso dutela adierazi dute

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Gaur egun, Aretxabaleko kuartelean, mota zein estilo askotariko zenbait kultur talde daude, Kuartela Kultur Elkartearen barnean. Ia 100 sortzaile batzen dituen eraikina itxi beharra izan zen, pandemia egoerak gogor kolpatu zuen momentuan. Denbora jakin batez berriro irekita egon arren, azaroa ezkerro itxita dago herriko sortzaileen eremua den kuartela. Orain, irekitzeko proposamena Udalari egin diote sortzaileek, baina Udalaren partetik ezezko erantzuna jaso dutela eta "proposamenari ezetza soilik ez, proposamena bera aztertzei ezetza" eman diola adierazi dute.



Aretxabaleko Kuartela Kultura Elkarteko zenbait sortzaile. EÑAUT ZUBIZARRETA

## "Profesionala" ez dena, itxita

"Joan den astean argitaratutako buletinarekin, talde *profesional* berri beraien kultur ekintzari berriz ekiteko baimena eman zitzaizkien. Kuarteleko talde gehienok, baina, *profesional* etiketa hori ez daukagun heinean, hots, ogasun-sistemari eta sistema burokratikoari era zuzen batean diru onurarik ematen ez diogun aldetik, gure lokalak giltzaz itxita mantendu beharko ditugu; gure sormenari mugak mantenduz", adierazi dute Kuartela Kultura Elkarteko kideek. Hala, neurri murriztaile hori dela eta, kezkatuta agertu dira, baina, era berean, "arduratsu, proposamen legal eta segurua" helarazi diotela Udalari adieraziz.

## Udalari proposamena

Kuartela Kultura Elkartearen eta Udalaren artean nolabaiteko kontratu *sinboliko* bat gauzatzea proposatu zutela diote. "Inorenzatzat inongo kosturik izango ez lukeen hitzarmen bat. Udalari, Kuartela Kultur Elkarte bera kontratatzeko proposamena erakutsi genion. Kontratu horrek, legez, eraikina zabaltzea eta bertako kultur jardunari ekitea

## "KULTURA PROPIORIK GABEKO HERRIA EZ DA SEKULA HERRI IZANGO", ADIERAZI DUTE SORTZAILEEK

ahalbidetuko luke. Horren trukean, elkarteko taldeek astero, edo bi astean behin, herriarendako kultura ikuskizunak zein emanaldiak emateko konpromisoa hartuko lukete".

Honekin batera, hitzarmenarekin onura bat baino gehiago ekarriko dituztela sinisten dute elkartekideek; onura ekonomiko eta kulturala: "Udalak herriari kultur emanaldiak eskaintzen jarraitzeko aukera izango luke, inolako kosturik gabe. Horrela, kanpoko artista eta ikuskizunak ekartzeak dakartzan kostu altuak –begiratu besterik ez dago kanpoko artistetan gatzatzen dena zenbatekoa dena– aurreztu ahal izango lirarteke, eta diru hori pandemiak egoera larrian utzi dituen sektoreek aldarrikatzen eta behar dituzten laguntzetara bideratu. Baina ezezkoa jaso dugu. Dekretuek

kontrakoa esan arte, Udalak ez du kuartela irekitzeko esfortzurik egingo; beste era batera esanda, ez duela herriko kultura bultzatzeko inongo ahaleginik egingo. Jarrera hori, erantzun hori, utzikeriaren isla dela deritzogu. Herriko kulturarengana beste utzikeriako jarrera baten isla".

## Legalki ez da posible

Ainhoa Cabero Aretxabaleko Udaleko Kultura zinegotziak adierazi duenez, aztertu dute Kuartela Kultura Elkartearen proposamena, baina, dekretuari jarraituz, ezinezkoa da kuartela erabiltzea. "Azken dekretuan adierazten den moduan, ezin dugu baimendu; soilik dantza taldeek dute erabiltzeko aukera. Proposamenari dagokionez, asko poztu ginen herriko sortzaileen asmoekin, eta, horren baitan, batu nintzen Kuartela Kultura Elkarteko bozeramaile batekin, eta idazkariarekin eta teknikariek ere aztertu genuen, baina legalki ezin dugu baimendu beraien eskaera. Ez dago gure esku, eta ezin gara arriskatu, zerbait gertatuz gero Udalaren ardurapekoa delako".



Gorka Madinabeitia, Xabi Erkizia, *El niño de Elche* eta Julen Abasolo. JULEN ABASOLO

## 'El niño de Elche' Areantzaren, kanpai hotsek erakarrita

Areantzako kanpai-joleen laguntzarekin, grabaketak egiten izan zen kanpai hotsa eta bere ahotsa nahastuz

**I.B.** ARETXABALETA

*El niño de Elche* izenez ezaguna den Francisco Contreras Molina eta Xabi Erkizia musikaria eta soinu artista Aretxabaleko Areantza auzoan izan ziren zapatu eguerdian, Gorka Madinabeitia eta Julen Abasolo kanpai-joleekin batera. Bisitaren arrazoia kanpaien eta ahotsen arteko esperimentazioa izanik, soinu grabaketak egiten izan ziren, eta Areantzako kanpai-joleek gustura jaso zuten bisita.

Erdi Aroko musika doinuak, horien artean kanpaiak, flamenkoarekin elkartzeko asmoz, Areantzaren izan ziren *El niño de Elche* musika flamenkoan espezializatua eta Xabi Erkizia musikaria eta soinu artista. "Erkiziarekin dugu harremana guk, eta, musika esperimentalaren bueltan aritzen denez, proba batzuk egitera etorri ziren. Hala, kanpaiak jo genituen, eta, horien

ostean geratzen den hotsa aprobetxatuz, zenbait ahots sartzen aritu zen *El niño de Elche*, esperimentatzeko. Eta horiek modu ezberdinetan grabatu zituen. Hau da, batzuetan, mikrofonoa kanpaitik gertuago jarritz; beste batzuetan, urrunago... Eta bere ahotsak ere distantzia ezberdinetatik ere jaso zituen", adierazi du Julen Abasolok.

## Beste bisita baten zain

Atzo, eguna, Donostiako Tabakaleran, Ramon Andres idazle eta pentsalariaren eta Xabier Erkizia soinu artistaren arteko topaketa izan zen, *El niño de Elche*-k aurkeztua. Horren bueltan, musika flamenkoan espezializatuari Areantzara berriz joateko gonbidapena ere egin diote: "Otsailaren 10era arte, behintzat, hemen egongo da. Beraz, ea berriz etortzen diren Areantzara bisitan".

## Odola ateratzeko autobusa zenbait egunez izango da

Otsailaren 8an eta hurrengo astelehenean, hilaren 15ean, arratsaldean (16:45-20:00) izango da autobusa Durana kalean eta hilaren 11n, eguenean, goizez (09:45-13:00), Mondragon Unibertsitatearen Ikus-entzunezko Fakultatean. 18 eta 65 urte arteko herritarrak odola ematera animatu nahi dituzte, premiak bere horretan jarraitzen duela gogorazita.

## Muru Alde elkartearen bazkide berriak egiteko azken eguna

Muru Alde elkarteak bazkide berriak hartzeko epea zabaldu zuen, eta bertako bazkide izateko interesa dutenek *murualdelkartea@gmail.com* helbidera idatzi behar dute. Horretarako azken eguna gaur, egubakoitza, otsailaren 5a, izango da. Elkartekideek gaineratu dute pandemia egoera dela-eta aurten ez dutela batzar orokorrik egingo.





luz, 2002an jaiotako eskoriatzarrek egin zuten dantza Fernando Eskoriatza plazan. IMANOL BELOKI

## 2003koek zain egon beharko dute, egoerak ahalbidetzen duen arte

Santa Ageda neska-mutil moduan 44 eskoriatzar ziren ateratzekoak aurten. Hala ere, pandemiaren eraginez, ez dira kantu-eskean aritu baserriz baserri, ezta herriko kaleetan zehar, eta Fernando Eskoriatza plazan ere ez dute dantzarik egingo

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Santa Ageda neska-mutil izateko gogo bizia izaten dute eskoriatzar askok. 18 urte betetzeko edo bete berri dauden horiek ospatzen duten ohitura da *kintua* izatea, baina aurten, pandemia egoerak baldintzatuta daudenez, ez dituzte ekintzak gauzatu.

Dantza eta kantuez gain, parranda egunak izaten dituzte Santa Ageda neska-mutilek; ondo pasatzeko egunak, duda barik, baina aurten ez da hala izango. Izan ere, 2003an jaiotako 44 eskoriatzarren txanda izatekoa zen aurtengoa, baina, atzo ikusi moduan, ez ziren aritu Santa Ageda bezperan baserriz baserri koplak abesten, ezta santa-eskean ere. Eta gaur, egubakoitza, Santa Ageda egunean ere ez dituzte dantzak egingo plazan, eta domekan ere ez dira batuko. Hala ere, egoe-

ra ulertu dute aurtengo protagonistek, eta ahal denean Santa Ageda neska-mutil bezala ateratzeko eta urteroko ekintzak gauzatzeko prest egongo direla adierazi dute 2003an jaiotakoek.

Horrekin batera, Eskoriatzan urte gutxian sakon errotu den Kintadeen Eguna ere egin izan ohi da. Duela hamar urte Santa Ageda neska-mutilek herrian giroa izan zezaten sortutako festa da, urte berean jaiotakoak elkartzeko, eta elkarrekin herriko elkarteetan eta tabernetan bazkaria izaten dutena. Hala, aurten ez da halakorik izango.

**SANTA AGEDA ETA INAUTERIAK HIZPIDE 'ESKORIATZA BIZIRIK' KANALEKO HIRU BIDEOTAN**

**Urdelardero gazi-goza**

Santa Ageda neska-mutilez gain, herriko gaztetxoek Eguen Gizenean urtero ospatzen duten Urdelardero ere ez da beti bezala ospatuko. Hala ere, Jose Arana ikastolako eta Luis Ezeiza eskolako haurrak irtengo dira kalera, eta batzuk, Ibarraundi museora, eta, beste batzuk, aldiz, udaletxe parera joango dira abestera. Gainera, nagusien egoitzakoei *Urdelardero* kantatzera ere gerturatuko dira, egoiliarak leihotatik entzungo duten bitartean.

**Ohiturak eta bizipenak**


Santa Ageda eguneko ekintzak eta Inauteriak behar bezala ez bete arren, *Eskoriatza Bizirik* Eskoriatzako Udalaren Youtubeko kanalean hiru ikus-entzuzko jarriko dituzte ikusgai egunotan: bata Santa Agedaren

eta kintoen gainekoa da; bigarrena, Santa Agedan emakumeen parte-hartzearen gainekoa; eta hirugarrena, Eskoriatzako Inauterien berezitasunena. Zenbait bizipen kontatzen dituzte herritarrek, irudi eta argazki horitutako bideoetan.

Santa Agedaren eta kintoen gaineko bideoa 2014. urtean grabatutako dokumentala da, testigantzetan oinarritutakoa, Eskoriatzako Santa Ageda tradizioari eta kintoen dantzei buruzkoa. 18 urte bete eta derri gorrezko soldadutzara joan behar zen garaietatik gaur egunera arteko errepasoa egiten dute berbetan agertzen diren Edurne Abasolok, Anton Agirrek, Jota Arrietak, Pepe Barandiaranek, Klaudio Belategik, Mari Karmen Erañak, Gadea Errastik, Jon Errastik eta Begoña Eskibekek.

Bigarren ikus-entzuzkoak, berriz, Santa Ageda mutilen kontua izatetik neska-mutilen kontua izatera pasatuko trantsizioan oinarrituta dago. Lehen, gizonezkoak bakarrik aritzen ziren kantu-eskean, eta plazan dantzan, eta 2008an, Eli Gabilondo eta Gadea Errasti izan ziren lehen emakumezkoak –1990ean jaioak– baserritar jantzita banakoa egitera dantzara batu zirenak.

Hirugarren ikus-entzuzkoan, Urdelardero egunaz eta kukumarruez hitz egiten da. Urdelardero egunak Inauterien etorrera iragartzen du, eta ohitura berreskuratu izanaz eta egun horretan egiten denaz hitz egiten dute testigantzak ematen dituztenek. Kukumarroak ere hizpide dira ikus-entzuzkoan; lehengo basajaunak irudikatzen dituzte kukumarroek, eta kristautasunaren aurretik basoan bizi ziren horiek dira.



I.B.

**"Elkartuko gara kintoak aurrerago"**

**AINHOA LOITI** 2003AN JAIOTAKO ESKORIATZARRA

Santa Ageda neska-mutilen ohituraren parte izateko gogoz egon arren, 2003an jaiotako eskoriatzarrek bertan behera utzi dituzte Santa Ageda egunaren bueltan zituzten ekintza guztiak.

**Ohitura gauzatu barik, penaz egongo zarete.**

2003an jaiotako 44 eskoriatzar izango ginen aurten, eta aurreikusten genuen ezingo genuela egin. Hala ere, Udaletik proposatu zituzten lauko taldeetan kantuan aritzea baserriz baserri... baina ez egitea erabaki dugu.

**Egoerak ahalbidetzean, zer?**

Ikusiko dugu, baina gustatuko litzaziguke egitea datorren urtean edo hemendik bi urtera.

Ordurako ikasiko ditugu kanta eta dantza guztiak, baina ez dugu egin barik geratu nahi.

### 'Kukumarruak Inauteritan' hitzaldia

Inauteriek Eskoriatzan berezitasunak dituzte. Esaterako, Urdelardero ospatzen da Eguen Gizenean eta kukumarroak ateratzen dira Inauteri-martitzenean. Hori kontuan hartuta, eta kukumarroak ardatz, munduko bazterretako beste ohitura batzuekin dituzten antzekotasunak aztertuko dituen hitzaldia izango da otsailaren 12an, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Kukumarroak zer diren azalduko da eta kukumarroen eta Urdiango momoxarroen arteko loturaz hitz egingo da, besteak beste.

Hizlaria Oier Araolaza antropologoa izango da, eta, sarrera doan izango den arren, gonbidapenak eskatu beharko dira 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta edo 650 49 51 66ra *whatsapp*-a bidalita.

# Mendia eta heriotza hizpide otsaileko agendan

Oroitzapenaren eta itxaropenaren gaineko 'Mendian hil, hirian hil' lana hiru aldiz proiektatuko da Zaldibar antzokian. Horrekin batera, 'Iñurrategi anaiak' komiki liburuaren aurkezpena egingo da, eta Mendi Tourreko zenbait film labur eskainiko dira Zaldibarren

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

*Mendian hil, hirian hil* izeneko dokumentala Iñaki Peña mediakuak zuzendu eta Arteman Komunikazioak ekoiztutako azken lana da. Heriotza eta dolua ditu hizpide eta *Aulki hutsak* eta *Suamintek bakera* filmekin batera trilogia osatzera dator. Mendi Film Festibal-en Euskarazko Film Onenaren saria jaso zuen, gainera, 2020ko abenduan, eta Eskoriatzan hiru proiektio izango dira. Lehenengoa zapatu honetan izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian, bigarrena, otsailaren 13an, ordu eta leku berean, eta, kasu honetan, Peña zuzendaria, dokumentalari buruzko gogoetak ikusleekin konpartitzen egongo da. Hala, lehenengo bi emanaldietarako sarrera guztiak agortuta, hirugarren proiektio bat ezarri du Udalak, otsailaren 20an izango dena.

**Mendiko heriotzak oinarri**

Mendian gertatutako heriotza oinarri, hainbat testigantza jaso dituzte lanean: batetik, Felipe Uriarte eta Juanjo San Sebastian mendizale ezagunenak; eta, bestetik, heriotzak gertuan bizi izan dituzten hainbatena. Bestek beste, 2017an Pirinioetan hilda-

ko Mikel Crespo aretxabaletarraren senideena.

**'Iñurrategi anaiak' liburu**

Otsailaren 19an, 19:00etan, *Iñurrategi anaiak* liburuaren aurkezpena eta mendiko argazkien erakusketa izango da Zaldibarren. Iñurrategi anaien mendi ibilbideari eta, bereziki, duela 20 urte mendi istripuan hil zen Felixi tributua egiten dion komiki liburu aurkezteko Alberto Iñurrategi bera izango da.

**Mendi Tourreko lanak ikusgai**

Hilaren 26an eta 28an, aldiz, Mendi Tour Film Festibaleko zenbait ikus-entzunezkoren proiektioak izango dira Zaldibar antzokian, 19:00etan hasita.

Hiru eurotan saio baterako sarrera erosi daiteke eta 5 euro ordainduta bi saioetarakoak – sarrerak alde aurretik Manuel Muñoz kiroldegian–.

**OTSAILAREN 13KO PROIEKZIOAN, IÑAKI PEÑA ZUZENDARIA IZANGO DA AURKEZPENEAN**



Mikel Cresporen senideak, *Mendian hil, hirian hil* lanaren une batean. ARTEMAN

## Otsaileko egitarauan:

Hitzorduetarako sarrerak, Manuel Muñoz kiroldegian erosi daitezke.

**Otsailaren 6a**

• **Dokumentala:**

**'Mendian hil, hirian hil'** Mendi Film 2020 festibaleko Euskarazko Film Onenaren saria, 19:00etan, Zaldibar antzokian.

**Otsailaren 13**

• **Dokumentala:**

**'Mendian hil, hirian hil'** 19:00etan, Zaldibar antzokian. Iñaki Peña zuzendaria bertan izango da dokumentaleko gogoetak ikusleekin konpartitzen.

**Otsailaren 19a**

• **'Iñurrategi anaiak' komiki liburuaren aurkezpena** Gonbidatua: Alberto Iñurrategi. 19:00etan, Zaldibar antzokian.

**Otsailaren 20**

• **Dokumentala:**

**'Mendian hil, hirian hil'** 19:00etan, Zaldibar antzokian.

**Otsailaren 26a**

• **'Mendi Tour Film Festibal'** Lau ikus-entzunezko proiektatuko dira, 19:00etan, Zaldibar antzokian.

**Otsailaren 28a**

• **'Mendi Tour Film Festibal'** Hiru ikus-entzunezko, 19:00etan, Zaldibar antzokian.



Esti Curiel aktorea *35 huts* antzerkiaren une bat antzeztzen. TOPAGUNEA

## Ahalduntzeko bidea umorea dela adieraziz, '35 huts' obra

Esti Curielek antzeztutako lana domeka honetan izango da, arratsaldeko zazpitan, Zaldibar antzokian

**I.B.** ESKORIATZA

Domeka honetan, 19:00etan, *35 huts* antzezlana ikusteko aukera izango da Zaldibar antzokian. Euskarazko obraz gozatu gura duenak sarrerak bost eurotan erosi ditzake Manuel Muñoz kiroldegian.

Ordu bete inguru irauten duen obra freskoa da *35 huts*, eta azaleko gaiak jorratzen dituen antzezlana dela pentsa daiteke lehen minutuetan, izaera axolagabea duen pertsonaia aurkezten zaio-lako publikoari obra hasi bezain pronto. Aurrera egin ahala, ordea, ertz asko agertzen dira.

**Gai sakonak umorez kontatuta**

Aitziber Garmendiak idatzita, Miren Gojenolak zuzenduta eta Esti Curielek antzeztutakoa da *35 huts*. Bakarrizketa formatuan eskainita, atrezzo eta aktore urriko antzezlana izan arren, gauza asko transmititzen ditu. Hiru profesional horiek elkar-lanean egindako lana gustura ikusteko moduko ikuskizuna da, emozioak eta oinordetzak erdigunean jartzen dituen. Izan ere, familien oinordetza emozionalak, amatasuna, heriotza eta halako gai sakonetan murgiltzen dira, umorea lagun hartuta.

## GORA ETA BEHERA



I.B.

## Altxatutako zorua konpontzen aritu dira

Eduardo Gorosarri auzotik Gaztañadui kalerainoko espaloian altxatutako zorua konpontzen aritu dira asteon, oinezkoen segurtasuna bermatzeko eta inork bihurriturik egin ez dezan.



# "Hemen biziko banaiz, euskara ikasi nahi dut"

**CAROLINA ALVAREZ** ESKORIATZARA BIZITZERA ETORRI DEN MADRILDARRA Euskaltegiko ikasgaiez batera, lanean –Aretxabaleta okindegian– zein aisialdian euskara praktikatzeko aprobeztatu du, eta gogoz ari da bertako hizkuntza ikasten

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Madrildik Eskoriatzara bizitzera etorri berri da Carolina Alvarez. Herrira egokitzeko eta bertan bizitzeko tokian tokiko hizkuntza jakitea ezinbestekoa dela argudiatuz, bertara etorri aurretik euskara ikasten hasi zen, online saioen bitartez. Eskoriatzara iristean, euskaltegiko saioekin jarraitu du, eta "oso gustura" dagoela adierazi du. Horrekin batera, Aretxabaletan egiten du lan, eta, euskaltegia lantokitik gertu izanda, ahal duen guztietan joaten da bertara.

**Madrildik Eskoriatzara bizitzera etorri aurretik hasi zinen euskara ikasten. Zer dela-eta etorri zara hona eta nolatan hasi zinen euskara ikasten?**

Nire mutil-laguna eskoriatzarra da, eta, zenbait urtez Madrilen bizi izan garen arren, Eskoriatzara etortzea erabaki dugu. Hori horrela, argi neukan bertan bizi behar banuen, euskara ikastea ezinbestekoa nuela. Hala, Eskoriatzara etorri aurretik, programa baten bitartez euskara ikasten hasi nintzen. Gero, zenbait egunetan, Karmele Agirregabiria Leintz Udal Euskaltegiko zuzendariak online saio batzuk eman zizkidan, eta horiek izan dira euskararekin izan ditudan lehen urratsak. Gero, Eskoriatzara iritsi eta, azaroaren 3an, Aretxabaletako euskaltegian fisikoki hasi nintzen saioekin. Orain, beste irakasle bat dut, Arantxa, eta oso gustura ari naiz, poliki-poliki ikasten. Gainera, esan beharra daukat oraindik Madrilen geundela *Puntu* aldizkariko *Otorduan* ataleko euskaraz idatzitako errezeta bat egin nuela...

**Aretxabaleta okindegian egiten duzu lan. Euskara praktikatzeko leku aproposa, duda barik.**

Hala da; bertako bezeroekin saiatzen naiz euskaraz egiten, eta, gainera, Aretxabaletako



Carolina Alvarez, lantokian, Aretxabaleta okindegian. I.B.

## "EUSKALTEGIA LANTOKITIK BI PAUSOTARA IZANDA, SARRI JOATEN NAIZ BERTARA"

euskaltegia bi pausotara izanda, sari joaten naiz bertara. Ainhoa da okindegiko nagusia, eta berekin ere asko praktikatzen dut, asko ikasten ari naiz. Gainera, euskaltegiko irakasleak ere hona etortzen dira kafea hartzera; beraz, esan dezaket une oro ari naizela euskara praktikatzen.

**Zein ikasgairekin ari zara orain? Gainera, lehenengo euskarazko azterketa egin berri duzu asteon; zer moduz egin duzu?**

Nork-nori-nork, baldintza... Liburu osoa eman dugu dagoeneko, eta, zuk diozun moduan, lehenengo azterketa izan dut aste honetan. Urduri nago gaindituko dudana ala ez, baina hori gutxienekoa da; izan ere, nire helburua ikastea da. Horrekin batera, errezetak idazten ere ari gara. Osagaiak jarri, plateraren prozesua azaldu...

**Euskaltegiko ikasgaiez batera, herriarrek euskaraz egitean eskaintzen dizute laguntasanik? Eskertzen dute zure ahalegina?**

Elkarrizketa bat mantentzea zaila da niretzat oraindik. Hala ere, jendeari euskaraz egiteko eskatzen diot, hala, ikasi egiten dudalako, eta, bide batez, praktikatu. Nire mutil-lagunaren kuadrillakoekin ere aritzen naiz zertxobait euskaraz, baina euskalkia ere badago tarteko, eta, orduan, gauzak konplikatu egiten dira.

**Euskaltegitik zer atera nahi duzu?**

Lehenbizi, euskaraz hitz egiten didatenean ulertzea, eta komunikatzeko gai izatea. Gero, euskaltegiko titulu eta egiaztagiri guztiak ateratzea izango litzateke nire ametsa, baina urte asko behar dira horretarako, eta pausoz pauso joan nahi dut.

**Hemen bizitzeko, beraz, euskara derrigorrezkoa dela esango zenuke?**

Ez da derrigorrezkoa, baina uste dut garrantzitsua dela, eta kanpotik gatozen guztiok esfortzua egin beharko genuke. Hizkuntza baten gainean ezer ez dakizunean, defendatzeko eta nolabait ulertzeko gai izan behar duzu, bertan bizi bazara.



Haurrak jolasean Leintz Gatzagako pilotalekuan. MAIALEN SANTOS

## Itxiera perimetralari aurre egiten eta elkarri laguntzen

Herriko laguntza sareko kideek beharrak dituzten adineko gatzagarrei laguntzen jarraitzen dute

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Udalerrien itxiera perimetrala urtarriaren 25a geroztik dago indarrean, eta bereziki herri txikietan eragiten du. Horren adibide garbia da Leintz Gatzagako herriarrek bizi duten egoera. Erosketak egiteko zailtasunekin batera, kirola egiteko, adinekoen beharrak asetzeko eta gazteen aisialdirako, egoerara moldatzen ari direla adierazi du Beñat Agirreurreta Gatzagako Kultura zinegotziak.

"Denda txiki bat dugu herrian, baina erosketak egitera Eskoriatzara edo Aretxabaletara joaten gara. Horrekin batera, herriar askok egiten dugu bailarako herrietan lan, eta herriatik ateratzea ezinbestekoa dugu. Dekretuak adierazten du behar duzun zerbait zure herrian ez baduzu irten zaitezkeela, baina muga ez da zehazten", adierazi du Agirreurretak.

**Aisialdiaren beharrak**

Gatzagako lurretan eremu handia izanda kirola egiteko arazo handirik ez duten arren, egin beharreko kirolaren arabera nork bere beharrak dituela nabarmendu du Agirreurretak, eta gaineratu du "aisialdiaz disfrutatzeke herriatik asko" ateratzen diren horietakoak direla, orokorrean, baina, muga onduz, herrian denbora gehiago pasatzen dutela orain.

**Adineko jendeari laguntza**

Herriarrek laguntza sarea ere osatu zuten konfinamenduan adineko jendeari laguntzeko, eta egitasmoarekin jarraitzen dute. "Gure herrian adineko jende asko bizi da, eta, lekualdatzeko muga horrekin, ezinbestekoa da laguntza. Beraz, beharra duten horiek deitzen badigute, beti izaten da prest sare horretako kideren bat".

## Mozorroto, eta antzeztera

Aste honetako hitzorduan ere ez dituzte ekintzak eta jolasak falta izan Leintz Gatzagako ludotekako gaztetxoek. Joan den astean zehaztutako plangintzari jarraituz, haurrak mozorrotu eta antzerkiak egiten aritu ziren, martitzenean. Antzerki sortekin batera, txotxongiloak egiteko ere aprobeztatu zuten; hala; arratsalde bikaina eman zuten jolasean.



MIREN ZUBILLAGA



# Kiroldegi berritua gertu, normaltasunera itzulerak eperik ez badu ere

Bihar goizean inauguratuko dute Labegaraietako kiroldegi berritua, ordezkari politikoei, kirol taldeei eta herritarrei zuzendutako txandaka egingo diren bisita gidatuekin; kirola egiteko azpiegitura izateaz gain, herriarendako "erreferentziazko gune" izatea nahi dute


## Jokin Bereziartua BERGARA

40 urte egin behar dira atzera Labegaraietako kiroldegiak kiroldegi izateko egin zituen lehen urratsak ezagutzeko. Eta Union Cerrajera zenaren industria-nabe izatetik kiroldegi izatera pasatzeko prozesuan izen propioaren bat aipatu beharra badago, Ramon Garitano arkitekto bergararrarena da izen propio horietako bat. 1981ean idatzi zuelako Garitanok garai hartako industria-instalazio nagusia mantendu eta kiroldegi baterako birmoldaketa-proiektua, 1987an gauzatu zena.

Hain zuzen ere, Garitanok sari garrantzitsu bat jaso zuen 2010ean Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartearen (IOH-LEE) partetik, Labegaraietako kiroldegiarena ondare-industriaren erreperazioarako "proiektu aitzindaria" izan zelako.

## Diputaziotik ia 600.000 euro

1987tik 2019ra bitartean apenas izan da interbentzio esanguratsurik Labegaraietako kiroldegiaren eta begi bistakoa zen eraikinak eraberritua izateko zuen beharra. Erakin hotza eta inongo irisgarritasunik gabekoa izateaz gain, ohiko erabiltzaileen beharretarako zaharkitua zegoen. 2015etik 2019ra arteko agintaldian EAJren Udal Gobernuak lehen-tasunen artean kokatu zuen kiroldegiaren eraberritzea, 2019ko udal aurrekontuetako proiektu esanguratsuenetako bat izateraino. Proiektua garatu ahal izateko, baina, ezinbestekoa izan zen Foru Aldundiaren 589.000 euroko dirulaguntza lortzea; 2019ko urtarrilean egin zuten publiko dirulaguntzarako akordioa orduko Kultura eta Kirol diputatu Denis Itxasok eta Bergarako alkate Elena Letek.



Harmailetarako berogailuetako bat.

## Bi fasetan, askotariko lanak

Kiroldegia eraberritzeko kostu osoa 2.600.000 euro ingurukoa izan da, bi fasetan gauzatu dena. Lehen fasean, besteak beste, biltegia zena bota – 42.168 eurokoa izan zen pabiloi zaharra botatzeko lanen aurrekontua – eta eraikin berri bat altxatu zuten industria-nabea zenari itsatsita; bertan, aldagelak, komunak eta Beti Busti taldekoen biltegia daude gaur egun, besteak beste. Lan horietarako 948.640 euro bideratu ziren.

Bigarren fasea izan da eraberritze-lan handienak eskatu dituen eta, beraz, aurrekontuaren zati handiena eroan duena: 1.502.396 euro, BEZa barne. Eraikin nagusian askotariko lanak egin direlako: irisgarritasuna bermatu dute eraikin osoan – igogailu bat jarri dute, adibidez –; harmailetarako berogailuak jarri dituzte –orain arte arazo nagusietako bat zen neguan eraikin hotza zela –; aldagela berriak egin dituzte; rokodromoa itxi dute eta bere azalera bikoiztu;

## "BERME HANDIKO KANTXA DA; EA 30 URTE IRAUTEN DUEN, ZAHARRAK BEZALA"

IÑAKI UGARTEBURU, KIROL TEKNIKARIA

auzotarrendako lokal bat egokitu dute; klubek zein herritarrek erabiltzeko gimnasio bat egin dute; taberna berritu dute; eta 30 urtetik gora zituen egurrezko kantxa kendu eta berria jarri dute. Hain zuzen ere, kantxa izango da kiroldegi berrituan gehien erabiliko den azpiegitura. "Berme handia duen Mondo etxeko egurrezko kantxa jarri dugu. Oso itxura ona dauka, baina erabiltzen hasten denean ikusi beharko da. Aurretik izan genuen kantxa bezain ona izaten bada honako kantxa hau, pozik egongo ginatke. Izan ere, ia 30 urtez nahiko baldintza onetan iraun zuen kantxa zaharrak", gogoratu du Udaleko Kirol teknikariburu Iñaki Ugarteburuk.

Hasieran idatzi zen proiektutik gauzatu den proiektura arteko bidean hainbat aldaketa izan direla ere azpimarratu du Kirol teknikariak: "Kirol talde bakoitzak bere eskaerak egin ditu eta saiatu gara, ahal izan dugun heinean, eskaera horiek proiektuan barneratzen". Esaterako, Beti Busti taldekoen biltegia aurreikusitakoa baino altuagoa jartzea eskatu zuten piraguak modu egokian gorde ahal izateko.

## Txandakako bisitak bihar goizean

Hobekuntzak erakusteko bisita gidatuak antolatu ditu Udalak bihar goizerako. Gaur egungo osasun egoera aintzat hartuta, gehienez ere hogeita pertsonako taldeetan eta aurrez finkatutako hitzorduetan egingo dira bisita gidatu horiek. Hitzorduek kiroldegi barruko harmailan egingo dira. 10:00etan egingo da lehenengo txanda; arkitektoak, eraikuntza enpresako arduradunek eta Udaleko ordezkari teknikoek agintariei eta alderdi politikoe-tako ordezkariari azalpenak eman-




Gimnasio berria, rokodromo azpian; kirol taldeek eta herritarrek erabili ahal dute.



Auzotarrentzat lokala: erabileraren arabera, modu batera edo bestera ekipatuko dute.



Beti Busti taldekoen biltegia; piraguak utzi ahal izateko altuerakoa, besteak beste.



Irisgarritasuna bermatuko da eraikin osoan; arrapalez gain, igogailu bat jarri dute.





Mondo etxeko egurrezko kantxa jarri dute. ARGAZKIAK: XABI URZELAI



Lehen fasean egin zen eraikin beltza: Beti Bustikoen biltegia eta aldagelak daude.



Grafiti zaharrak –egun pasillo berrian daudenak– kendu eta berriak margotuko dira.



Rokodromo berria itxia eta handiagoa da; uda aurretik martxan egotea espero dute.



Taberna: sarreraren ezkerrean dauka barra; aurreko arduradun berak ustiatuko du.

go dizkiete. Kirol klubendako bi hitzordu zehaztu dituzte: 11:00etan eta 11:45ean. Eta, azken txanda batean, herritarrek ere izango dute aukera kiroldegi eraberritua bertatik bertara ezagutzeko; erreserba egin behar da, alde aurretik Agorrosinera deituta: 943 77 70 95. Herritarrei zuzendutako bi hitzordu daude: 12:30ean auzokoentzat eta 13:15ean gainontzeko bergarrentzat.

#### "Pixkanaka" martxan jartzera

Bihar inauguratuko dute kiroldegi berria, eta datorren as-

tetik aurrera erabiltzeko moduan egongo da. "Saskibaloia taldekoak gelditu dira, ez dute lehiaketarik. Eskubaloian partidu batzuk jokatzeko ari dira, eta, akaso, norgehiagoka ofizialen bat jokatzeko da hemen. Hockey taldea ere lehiatzen ari dela uste dut... Lehiatzerik izan edo ez, hurrengo astelehenetik aurrera klubak entrenatzen hasi ahalko dira; pixkanaka joango gara kiroldegi martxan jartzeko", azaldu du Ugarteburuk.

Otsaileko hirugarren astean, eguneroko erabiltzaile izango

diren kirol taldeekin bilera egingo du Udalak, kiroldegiko funtzionamendua adosteko. Hainbat kirol talde erabiltzen dutelako Labegaraietako kiroldegia euren egunerokoa: saskibaloia, esku-baloia, gimnasia erritmikoa, hockeya, eskalada eta piraguis-moa. Kirol erabileraz gain, auzotarrendako gune bat aurrekusten zuen proiektuak, eta espazio hori egokitu dute sarrera nagusiaren aldean: "Auzokideekin egin ditugu bilerak eta jaso ditugu euren iradokizunak. Lokal hori ekipatu gabe dago oraindik, urtean zehar auzokideekin batera ekipatzen joateko asmoa dugulako. Auzotarrek lokalari emango dioten erabileraren arabera modu batean edo bestean ekipatuko genuke, eta espero dugu Labegaraietako bizilagunendako erreferentziatzeko gune bat izatea".

#### Rokodromo: udarako martxan

Eskalatzaileen aspaldiko eskaera izan da rokodromo itxi bat izatearena. Bergaran badago eskalatzeko zaletasuna, eta hainbat urtez kexatu izan dira Labegaraietan hotza pasatzen zutelako; berba hauek esan zi-

tuzten 2019ko apirilean: "Rokodromo duina eskatzen dugu; gaur egun, rokodromo hotza, zaratatsua eta zikina dugu".

Eskalatzaileendako eremu berria itxia da orain, kantxara ematen duen beirate handi batekin, eta zaharraren bikoitza izango da azalerari dagokionez. Hori bai, ekipatu gabe dago oraindik; eskalatzaileek eurek kendu zituzten helduleku zaharrak eta gaur egun egitura metalikoa da mantentzen den bakarra. Izan ere, rokodromo berrirako proiektua erabat zehaztu gabe dago: "Obra guztian

**"UKITU BATZUK"  
FALTA DIREN ARREN,  
HURRENGO ASTEAN  
ERABILTZEKO  
MODUAN EGONGO DA**

**KLUB BAKOITZAREN  
ESKAERAK BETETZEN  
SAIATU DIRA AZKEN  
PROIEKTUAN, "AHAL  
IZAN DEN HEINEAN"**

zehir aritu gara lanean eskalatzaileekin, eta orain, proiektua lantzen ari dira; espero dugu hurrengo hilean Udaleko batzordetik pasatzea proiektua, uda aurretik ikusi nahi dugulako rokodromo martxan", esan du Ugarteburuk.

Rokodromo azpian egokitu dute gimnasio berria; gimnasioa ere ez dago erabat ekipatuta, baina laster egongo da erabiltzagarri. Gainera, Ugarteburuk aurreratu duenez, kirol taldeez gain herritarrek ere izango dute gimnasio berria erabiltzeko aukera; egutegi bat zehaztuko dute horretarako.

#### Taberna berria, aurrekoen esku

Taberna ere berri dute. Sarrera nagusitik sartuta, ezkerreko aldean geratzen da barra orain, eta terrazara ematen duen leiho zaharra mantendu dute, besteak beste. Tabernaren ustiaketa lehiaketara atera zuen Udalak, eta obrak hasi aurretik zegoen lantalde berak irabazi zuen; hortaz, Yasmina Trigueros izango da tabernako arduradun nagusia etapa berriaren hasieran. Taberna eroateaz gain, bestelako ardurak batzuk ere izango ditu; tartean, kiroldegiko kontrola eta instalazioko garbiketa lanak.

#### "Ukitu batzuk" guztiz amaitzeko

Bihar inauguratuko dute, baina oraindik "ukitu batzuk" falta dira guztiz amaitzeko: "Bergararondako erreferentziatzeko gune izatea espero dugu, kirola errazago, erosoago eta hobeto egiteko aukera emango diguna", dio Ugarteburuk. Bestalde, garai bateko grafitiak ezkatututa geratu direnez pasillo berrian, Jokin Oregi *Sortwo* eta Mikel Larrañaga *Remak* artistekin egongo dira artelan berrietarako.





Zubietako Berri elkarteak ordezkatzen dituzten Zubietako kalean, martitzen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

# XX. mendean geratu zen kalea eraberrituko diete

Udalak konpromisoa hartu du 2021ean Zubietako kalea berriro urbanizatzeko lanak hasteko, eta obrak urte amaieran hasiko direla begi onez ikusi dute Zubietako Berrikoek; proiektua idazterakoan euren ekarpenak aintzat hartzea eskatu dute, "ahal den heinean"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Urtarrilaren 25ean onartutako 2021eko udal aurrekontuetako inbertsioen artean proiektu nagusietako bat izango da Zubietako kalea berriro urbanizatzearena. 2020ko udal aurrekontuetan ere aurreikusita zegoen proiektua, baina, COVID-19ak hankaz gora jarri zuenez Udalaren aurreikuspena, urtebete

atzeratu behar izan da. Hala ere, atzerago egin behar da urbanistikoki XX. mendean geratu den kalea eta zirkulazioari dagokionez Bergarako ardatzetako bat dena eraberritzeko egon diren proiektuen berri jakiteko. Besteak beste, 2015ean prozesu bat ireki zen bizilagunekin kalea berritzeko proiektu bat garatzeko, baina sei urte pasatu

dira eta ez da interbentzio esanguratsurik egin. Hain zuzen ere, 2018ko irailean zubia "birgaitzeko eta hari balioa emateko" lanak abiatu zirenean, bertako bizilagun batzuek kexatu eta argi utzi zuten euren lehentasuna kale osoa eraberritzea dela.

2021eko udal aurrekontuetan milioi bat euro daude aurreikusita, bereziki Zubietako kalea be-

rritzeko, Martokoarekin batera. Horren berri izatearekin pozik dago Zubietako kaleko bizilagunak "modu zabalean" ordezkatzen dituen Zubietako Berri elkarteak. "Zubietako zubia berritzeko lanak hasi zirenean esan genion Udalari 2015etik armairuan gordeta zuten proiektua mahai gainean jarri eta diru poltsa bat sortzen joan zedin; 2020an bazezgoen diru partida bat, baina munduko aurrekontu guztiak joan ziren pikutara, Bergarako barne. COVID-19ak eragindako egoera erabat ulertzen dugu eta elkartearen jarduna ere *in-pass* egoeran utzi genuen. 2021eko aurrekontuetan obra aurrera doala ikusita, poztu egin gara", adierazi du elkartearen presidentea Jose Sanchezek.

## Ekarpenak jasotzeko eskaera

Hori bai, Zubietako Berri elkarteak nahiko lukete, "ahal den heinean, behintzat", egunero bertan bizi diren ekarpenak aintzat har daitezela, eta zubiko txapa jarri du adibide txar gisa. "Ez dakit bizilagunak badagoen zubian dagoen txapa hori begi onez ikusten duenik. Horrelako esku-hartzeak ekiditeko nahiko genuke proiektua idatzi behar denean teknikariek gure ekarpenak aintzat har ditzatela", gaineratu du Sanchezek. Jakitun dira teknikariek ezingo dutela denon gustuko proiekturik egin, baina zubiko txaparekin gertatu zena saihestea nahiko lukete.

Zubietako Berri elkarteak esan dietenez, Udalaren asmoa da martxoarako proiektua idatzita izatea: "2015eko proiektuan bizilagunok egin genituen ekarpen esanguratsuenak ez zeuden gero planoetan marraztuta... Ea oraingoan ahalik eta proiektu oso-tuena lortzen dugun; badakigu

ez dela denon gustukoa izango, baina, gutxienez, egoera tamalgarrrian dagoen kalea konpondu egingo dute, irisgarritasun arazoak desagertu egingo dira; hori da garrantzitsua guretzat".

Zubietako Berrikoek badakite "oso proiektu potoloa" dela Udalarendako eta ulertzen dute exekuzioa fasez fase egitea: "Udalean esan digute 2021 bukaeran lehen fasea exekutatzen hasiko ginela, 2022an ere partida bat bideratuko zutela eta bigarren fasea 2023an bukatuko litzatekeela; sekulako gastua izan gabe, modu orekatuan egin nahi dute".

## Eskola zaharraren orubea

2020a bukatu aurretik albiste izan zen Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak eskola zaharra okupatu zuela; Zubietako Berri elkarteak batzartu ziren euren eta argi utzi zieten, besteak beste, kaleko aisialdirako izan daitekeen gune bakarra dela: "Garbi dugu gozatzeko edo aisialdirako eroso eta irisgarria izan behar den gune bat izan behar dela; gaur-gaurkoz, guztiok ezin gara eskola zaharrera igo, ez duelako irisgarritasuna bermatzen. Denon artean erabaki beharko genuke eskola zaharreko orubea ze erabilera eman".

Zubietako Berrikoek euren kaleari balioa eman nahi diote: "Beti kontsideratu izan da ardatza, baina autoendako, Bolura doazen 2.000 bizilagun horiei begira. Bada garaia oinezkoiei begira ere jartzeko ardatz hori".

## ESKOLA ZAHARREKO ORUBEA KALE OSOKO GUNE BAKARRA DA AISIALDIRAKO ERABILI DEZAKETENA

## Zuzendari ohiei esker on keinua

Pandemiak baldintzatutako San Juan Bosco eguna zazpi zuzendari ohiren lana aitortzen ospatu zuten Miguel Altunan, gaur egun bizirik daudenak: Juan Gallastegi, Fernando Otaño, Felix Askasibar, Jose Ramon Arakistain, Jose Mari Larrañaga, Iñaki Larrañaga eta Iosune Irazabal. Zuhaitz bana ere landatu zuten, iraganaren eta etorkizunaren arteko loturaren garrantzia irudikatuz.



JOKIN BEREZIARTUA

## OHARRAK

### Gobernuaren ekitaldia

Otsailaren 11n Seminararioan (18:30) izango da agintaldirako egitasmoak aurkezteko ekitaldia. Izena eman behar da: [komunikazioa@bergara.eus](mailto:komunikazioa@bergara.eus).

### Pentsiodunak

Ohiko elkarretaratzea egiteaz gain -San Martin plaza, 12:30-, prentsaurrekoa egingo dute, hilaren 13rako antolatu duten manifestazioa iragartzeko.



# Ostalaritzari laguntzak zehaztea eskatu du EAJk

Jeltzaleek "dirulaguntza zuzenak" eskatu dituzte herriko ostalariendako, baita herrian erabiltzeko bonuak ateratzea eta terrazak egokitzeko dirulaguntzak eta aholkularitza tekniko bideratzea ere. "Harrituta" daude EH Bilduren jarrerarekin

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Herriko ostalariei babes adierazi eta euren aldeko eskaerak egin dizkio EAJk Udalari, baina, lehenago, Elena Letek salatu du oraindik Herritartasun Batzordera joateko aukerarik ez dutenez halako proposamenak prentsa bidez egin behar dituztela. Behin hori esan eta pandemiaren eraginez senitartekoak galdu edo gaixo daudenei atxikimendua erakutsi ondoren, EAJk ostalaritza babesteko dituen proposamenak azaldu zituen eguazteneko prentsaurrekoan.

**EH Bildurekin "harrituta"**

Letek argitu du Bergarako EAJ "harrituta" dagoela EH Bilduren jarrerarekin. "Uste dugu berriro ere berandu dabilzala". Izan ere, adierazi du maiatzean Gobernuari egin zituen lehen proposamenen artean ostalaritzari bideratutako dirulaguntzak zehaztu zituztela. Guztira, 400.000 euro bideratzea proposatu zuten, aktibitatea itxita egon zen bitartean izan zituzten galerei aurre egiteko. Abenduan, berriz, "Bergarako Udalak bideratutako dirulaguntza urria ikusita", 2021eko aurrekontuetan partida zehatz bat bideratzeko emendakina proposatu zuten jeltzaleek, 200.000 eurokoa. "Eta ez lehenengoan eta ezta bigarrenean ere EH Bilduk ez ditu gure proposamenak onartu, eta, harri-garriena dena, ez dute ezer proposatu ostalariei begira. Benetan onartezina da", adierazi du aste barruan Letek.

**Proposamen zehatzen eskaera**

Hori dela eta, EAJk berehalako neurriak eskatu dizkio Udal Gobernuari, eta zenbait proposamen egin ditu Letek. Batetik, dirulaguntza zuzenak ematea ostalariei –gehienez, 3.000 euro artekoa taberna bakoitzeko– eta baita ostalaritzari lotutako bestelako jardueri ere. Hala, esta-



Bergarako EAJko ordezkariak, eguaztenean, Irala kalean. I.B

## UDAL GOBERNUARI ESKATU DIOTE JARRERA ALDATZEKO ETA PROPOSAMENAK AINTZAT HARTZEKO

blezimendu bakoitzak 1.000 euroko laguntza jasoko luke, eta 600 euro langile bakoitzak –8 orduko lan jardunagatik–. Eta horrekin batera, ordaindu beharreko bestelako udal zergetan ere laguntzak eskatu ditu EAJk –zabor tasan, esaterako, edo terrazengatik ordaindu beharreko tasan–.

**50.000 euro bonuetan**

Horrekin batera, lehenago ere herriko komertzioak sustatzeko egin zuten moduan, EAJren beste proposamen bat da 50.000 euro bideratzea herriko taberna eta jatetxeetan kontsumoa bultzatzeko bonuak ateratzeko: "Herrian gastatzeko bonuak izango lirarteke, eta lehenago ere emaitza ona eman zuten".

Eta, azkenik, terrazak egokitzeko inbertsioetan laguntzeko dirulaguntza lerro bat ezartzea

eskatu du Letek: "Bistan dago barruko esparruak oso mugatuta egongo direla, eta ezinbestekoa izango da kanpoan aktibitatea mantentzea eta sustatzea. Horretarako, sistema ezberdinak daude: toldoak, karpak... Baina ostalariek inbertsioak egin behar dituzte. Foru Aldundiak badiu horretarako dirulaguntzak, baina Udalak ere diruz laguntzea proposatzen dugu guk, eta ez ekonomikoki bakarrik, baita estalpe horiek egoki jartzeko behar den aholkularitza tekniko bideratzea ere". Hala, aurrekontuan 150.000 euroko partida bat bideratzea proposatzen dute horretarako.

Amaitzeko, jeltzaleek gogor salatu dute EH Bilduren jarrera inaktiboa. "Terrazetan karpak eta estalpeak instalatzeko ordenantzaren aldaketa egitea beharrezkoa da, bailarako beste herri batzuetan dagoeneko onartu dituzte ordenantzen aldaketak eta instalazioak egiten ari dira, eta Bergaran, ordea, ordenantzaren lanketarekin hasi ere ez gara egin. EAJk argi utzi nahi du lanerako prest dagoela, baina, horretarako, Gobernuak jarrera aldatu behar du".



SHOTOKAN

## Hondarribian, Shotokan bikain

Joan den domekan Hondarribian egin zuten Gipuzkoako karate txapelketan Shotokaneko zenbait karateka nabarmendu egin ziren. Naia Perez eta Aritz Zabalza lehenengo postuan sailkatu ziren. Andoni Mujika bigarren izan zen bere kategorian eta Mikel Gallastegik brontzezko domina eskuratu zuen, hirugarren sailkatuta.



GOIENA

## Uberako eskolako lanak, abian

Hasi dituzte Uberako eskola etxea berritzeko lanak. 259.000 euroko aurrekontua izango dute, eta Jaolatza elkartea eta eskola etxea egonkortzea eta eraikin osoan irisgarritasuna bermatzea da asmoa. Hala, estalki osoa berrituko dute eta arrapalen bitartez auzo elkartera eta lokalera "sarrera duina" bermatuko dira. Uda partean amaitzea da asmoa.

## Elikaduraren bueltan berbaldia egingo dute otsailaren 9an

*Elikadura burujabetza* izenburua duen berbaldia egingo dute martitzenean, otsailak 9, Seminarixoa (18:00), eta berbaldi horretarako gonbidatu dituzte EHUKo irakasle Mirene Begiristain eta Aitzol Iturbe Beristain nekazaria.

Begiristain Ekonomian doktorea da. Eta doktore-tesia egin zuen nekazaritza ekologikoko

elikagaien banaketa politikaren kudeaketa iraunkorraren gainean. Hala, elikadura burujabetza estrategia bat lantzeko kontuan hartu beharreko ikuspegiak eta irizpideak izango ditu berbagai. Bestalde, Iturbek lehen sektorearen egoeraren gainean egingo du berba, nekazaritza eta abeltzaintza ereduaren gainean, eta horiek dakartzaten ondorioen gainean jardungo du.

Sarrerak momentuan bertan banatuko dituzte, murriztuta dagoen edukiera bete arte.



# Zaborra jaso barik, kale eta auzoetako arazoa

Herriko paraje naturaletan eta kaleko hainbat txokotan dago zakarra lurlean botata. Arazoak "bereziki" eragiten die auzoei, baina Oxirondo plazatik Deba ibaiaren bazterrera botatako zaborrak ere kezka handia eragin du azken asteetan

**Jone Olabarria** BERGARA

Sare sozial bitartez herritar ugarik partekatu dute azken asteotan natura-guneetan eta herri inguruneetan pilatutako zaborra. Hala, egoera horren aurrean, "arduraz jokatzeko" dei egin du Bergarako Udaleko Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Juanjo Asulak.

## Auzoetan, "bereziki larria"

Herrigunean zenbait gune identifikatuta dituzten arren, azaldu dutenez arazoa "bereziki larria" da auzoetan: Elosua, Gorla, San Martzial eta Surra-ko gurutze inguruan. Gune horiek astean zehar ere "gutxiago" garbitzen direla azaldu du: "Garbitzaileek badute antolaketa bat, eta herrigunean gehiago aritzen dira. Auzoetan zakarra uzten bada, bertan geratzen da hurrengoa joan arte".

## Kontzientiazio mezua

Gabonen aurretik, herriko 20 gune ezberdinetan arduraz jokatzeko eskatzen zuten kartelak jarri zituen Udalak: "Herriko guneak erabiltzeko dira, baina, betiere, ondo zaindu eta zakarrrontziak erabiliz, horretarako daude eta, edota sortzen dugun zakar guztia etxera bueltan



Zubietako eskola zahararen atzealdean dagoen pasealekua, martitzenean. J.O.

eramanda gero. Etxean egiten ez dena kanpoan ere ez litzateke egin behar".


## "Gozatu, baina zentzuz"

Aitortu du COVID-19a dela-eta udaletik ere garbiketa eta desinfekzio lan gehiago egin behar

## "AUZOETAN ZAKARRA UZTEN BADA, HURRENGOA JOAN ARTE BERTAN GERATZEN DA"

dituztela, eta egoera horrek "are gehiago" zailtzen duela lana. Horren adibide da joan den astean jasotako abisua, ostean sare sozialetan partekatutakoa: "Abisua jaso genuen Gorla aldetik, kantina ingurua zakarrez beteta zegoela esanez. Garbiketa zerbitzua bidali behar izan genuen goizean hara, eta, hortaz, egiteko zituzten bestelako ohiko lanak alde batera geratu ziren".

Herriko guneetan "gozatu bai baina zentzuz jokatu" eta "bakoitzak bere zaborra jasotzeko" eskaera egin du Udalak.



Ikastaroa emango duen Aitzol Mujika, etxean duen estudio txikia atzean duela. B.M.E.

## Musika eskolaren ikastaroen baitan, zuzenekoekin soinuaztapena

"Ohikotik harago doan ikastaroen eskaintza" antolatu nahi izan dute; otsailaren 11ra arte eman daiteke izena

**J. O.** BERGARA

Apirilean Musika ekimenaren baitan egin izan dituzte orain arte halako ikastaroak, baina aurten, "beste buelta bat" eman eta eskaintza aurreratu nahi izan du Bergarako Musika Eskolak: "Gure ikasleez gain, herritarrek gerturatu nahi ditugu musikara; gainera, orain, aisialdirako aukera handia ez dagoela, ikastaro hauek eskaintza paregabea dira".

## Herritarrendako zabalik

Ikastaro "erakargarriak" prestatu dituzte: musika familian, zuzenekoekin oinarrizko argiztapena, fagota, kontrabaxua eta txalaparta. Izen-ematea otsailaren 11ra arte egin daitekeen arren, musika eskolatik azaldu dute dagoeneko "martxan onean" doazela betetzen ikastaroak.

Ohiko eskaintzatik harago joateko asmoz antolatutako ikas-


taroetako bat da, hain zuzen ere, Aitzol Mujikak eskainiko duen zuzenekoekin oinarrizko soinuaztapena. Hiru zapatu goiztean egiteko asmoa dutela azaldu du Mujikak: "Lehen saioa teorikoa izango da: material motak ezagutu, bakoitzak ematen dituen aukera probatu eta, orokorrean, zer material mota den kontu bakoitzerako".

Ikastaroa "oinarrizkoa" izango dela azaldu du, "entseguetarako edota bakoitzaren taldearen kontzertu txikietarako". Gainerako saioetan alde praktikoa landuko dute, eta, musika eskolatik azaldu dutenez, oinarrizko saioaren ostean beste saio bat egin nahiko lukete, zehatzagoa.

Musika eskolatik gogorarazi dute ikastaro guztietarako izen-ematea zabalik dagoela. Informazio gehiago, [idadkaritza@bme.e.telefonica.net](mailto:idadkaritza@bme.e.telefonica.net) helbidean edo 943 76 57 80 telefonoan.

## Oxirondo plazatik, erreka zuzenean

Santa Marina parrokiaren atzealdean dagoen Oxirondo plazatik Deba ibaira botatako zaborra sastraka artean pilatuta dago. Orokorrean, garagardo eta bestelako edarien potoak eta litxarrerria poltsak daude bertan botata. Udalak dioenez, URA agentziaren eskumena dira ibai bazterrak, eta baimena eman arte Udalak ezin du garbiketa lanik egin.



Deba ibaiaren ertzean pilatutako zaborra, Oxirondotik ateratako argazkian. J.O.

## 2022ko Udalaren egutegirako argazkiak aurkez daitezke jada

Urtero bezala, aurten ere Bergarako Udalak hurrengo urteko egutegia argitaratuko duela jakinarazi du, herriko argazkilarien irudiekin osatua. Irailaren 25era arte aurkeztu ahal izango dira. Udaletik azaldu dutenez, aurten ez da gai zehatzik finkatu, eta Bergararekin lotutako edozein alderdi agertzen duten argazkiak aurkeztu ahal izango

dira: paisaiak, eraikinak, pertsonak, jaiak, lanak, abereak...

Baldintzei dagokienez, Bergaran jaioa den edo bertan bizi den edozein herritarrek aurkeztu ahal izango ditu argazkiak. Artxihoak CD edo USB batean aurkeztu behar dira, Udaleko Euskara Zerbitzuan edo [euskara@bergara.eus](mailto:euskara@bergara.eus) helbidera bidalita, 20x30 zentimetroko tamainarekin; JPG formatuan. Aukeraturako argazkiak ordaindu egingo dira eta Udal Artxibategian jasota geldituko dira.





## ELURRETAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA 2021

# Iker Zubizarretak eta Izar Elorzak jaso dituzte lehiaketako sariak!

Oñatiko Soraluze Hotelaren eskutik bi lagunendako otordua irabazi du Iker Zubizarreta arrasatearrak, lehiaketako Sari Nagusia eskuratuta. Izar Elorza aramaioarrak Publikoaren Saria jaso du, boto gehien lortu ostean. Intersport Loramendik emandako saria izan da berarentzat: motxila eta mendirako makilak. Zorionak bi irabazleei eta eskerrik asko parte hartzaile guztiei!



Sari Nagusia irabazi duen Iker Zubizarreta.



Publikoaren Saria irabazi duen Izar Elorza.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**INTERSPORT**  
LORAMENDI



Argazki guztiak hemen:  
[goiena.eus/bereziak/  
elurretako-argazkien-  
lehiaketa-2021](https://goiena.eus/bereziak/elurretako-argazkien-lehiaketa-2021)



# Deskargarainoko Bide Berdea helburu aurten

2019ko abenduan, lur-jausi baten ondorioz Jauregiko tunelaren sarrera oztopatuta geratu zen. Tunelaren arkuak kalte handiak jasan zituen, eta, gaur-gaurkoz, bidea itxita dago. Udalak eta Diputazioak, ordea, akordioa dute Deskargarainoko bidea osatzeko

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako trenbide zaharreko Bide Berdearen egoera orain urtebete pasatxo bezalaxe dago. Izan ere, 2019ko abenduan gertatutako lur-jausi baten ondorioz, Jauregiko tunelaren sarrera erori egin zen, eta, gaur-gaurkoz, ezin da bertatik igaro. Kalte handiak ditu tunelaren egiturak eta lan sakona egin behar da bertan. "2019ko abenduaren 13an, Santa Luzia egunean, gertatutako lur-jausiaren ondorioz, tunelak sarrerako arkuak galdu zuen. Harrezkero, halaxe dago. Lanak ez dira horren errazak eta Diputazioak teknikiariak etorri ziren bertatik bertara egoera ikustera eta aztertzeraz. Iaz abenduan egin genuen batzarrean, konponduko zutela esan ziguten, eta gaur arte. Egia da neguan, makinak lokatzetan sartuta, lanok egitea zaila dela", azaldu du Beñardo Kortabarría alkateak.

Gipuzkoako Diputazioak egin beharreko lana atzeratzen ari den arren, diru partida bat badago Jauregiko tunela konpontzeko. Lan sakona egin behar da tunela egonkortzeko, eta 45.000 euroko aurrekontua du Diputazioak aurreikusita. "Diru partida badago lanak egiteko, eta konbentzitututa nago egingo direla. Saiatuko gara lehenbailehen



Beñardo Kortabarría, Jauregiko tunelaren egoera behatzen. M.A.

## DUELA BI AGINTALDI, AUZOLANEAN BERRESKURATU ZUTEN HERRITARREK TRENBIDEKO BIDEA

egin dezaten aurten. Akordioa badago, falta da formalizatzea eta proiektua sinatzea".

Era berean, aurten egingo ditu Diputazioak Bide Berdearen Galariditiek Deskargarainoko txukuntze lanak. Izan ere, hainbat

arbola erorita daude ibilbidean eta argiteria hondatuta dago.

### Paseorako zaletasuna, hazi

Trenbide zaharra utzita egon da, eta, orain dela bi agintaldi, auzolanean tunelak berreskuratu eta bidea txukundu zuen herritar talde batek. "Diputazioarekin elkarlanean eta Goizperren laguntzarekin, herritar talde batek auzolanean berreskuratu zuen Bide Berdea. Herritarrek oso gustuko dute bide hori eta Bergararik ere asko etortzen dira, oso estimatua dute ibilbidea".

## Udalaren egoeraz eta proiektu berriez jardun dute herritarrek

EH Bilduk udal jardunaz hausnartzeko batzarra egin du herritarrekin; kudeaketaz eta proiektuez jardun dute

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Independentziaren eta justizia sozialaren helburuak lortzeko zein bide eta estrategia jorratu erabakitzeko, Euskal Herri mailako kongresua egingo du EH Bilduk 2021aren lehenengo erdian. Hori horrela, kongresu hori aurrera nola eramango duten aurkeztu zieten antzuolarrei batzar irekian zapatuan. Herriko zinegotziek hartu zuten hitza ondoren, eta euren jarduna eta udal aurrekontua zertara bideratu duten azaldu zuten.



Torresoroako batzarra. EH BILDU

### Udala "zorrik gabe"

Horretaz gain, EH Bilduk azaldu du EAE-ANV 2007an Antzuolako Udalean sartu zenetik zorrik ez duen lehen aldia dela: "Eta hori gauzak ondo egin izanaren seinale da; urteetako lanaren ondorioa". Herritarren ekarpenak entzuteko tartea ere hartu

zuten, eta etorkizuneko proiektu bati buruz ere jardun zuten: "Nafarroa Behereko Aiherra herriarekin anaituta dago Antzuola. Bi herrien arteko oinezko ibilbide bat prestatu gurako genuke; gaua pasatzeko tokiekin ere bai".

## Udal langileen soldata igoera

Urtarrilean egindako ohiko osoko bilkuran, aho batez onartu zuten udal langileen soldata igoera. Hala, 2021etik aurrera, Udaleko 17 langileen soldatek %0,9ko igoera izango dute.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako igoera izango da. Udal langileen soldaten %0,9ko igoera Eudelek udal-administrazioetarako gomendatutakoa da.



M.A.

## Galardi eta Deskarga arteko lanak

Iñurriarri-Garai baserri alboko tunelak sarreretakoa bat oztopatuta dauka. "Sasiak eta zuhaitzak ditu traban, eta garbitze lanak egitea da Diputazioak bertan duen zeregin nagusia. "Oro har, Deskargarainoko Bide Berdea oso egoera onean dago. Gune batzuetan txukuntze lanak eginez gero, Urola bailarekin lotura izango genuke".



Iñurriarri-Garai baserri alboko tunela. M.A.





Gau beltza, Euskaltzaileen Topagunearen film laburra. TOPAGUNEA

## Euskal sortzaileen film laburrak ikusgai bihar

Pandemiak Laburbiraren XVII. edizioa atzeratu badu ere, iritsi da euskarazko film laburren emanaldia Antzuolara. Bihar, Torresoroan bederatziko film izango dira ikusgai. Sarrerak liburutegian eta 'labur.eus/sarrerakantzuola' webgunean eskuratu daitezke

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Euskarazko film laburren XVII. zirkuitua zapatuan iritsiko da. Antzuolara. Pandemiak Laburbiraren emanaldia atzeratu badu ere, 2020ko Laburbirako euskarazko bederatziko dokumental izango dira ikusgai bihar, otsailak 6, Torresoroa aretoan, 18:00etan. Sarrerak [labur.eus/sarrerakantzuola](http://labur.eus/sarrerakantzuola) webgunean edo liburutegian hartu daitezke.

### Euskarazko sorkuntza

Topaguneak euskarazko ikusentzunezkoen sortzaileei bultzada emateko ekimena da Laburbira. "Euskarazko zinemagintzaren mokadu txikiak eskainiz Euskal Herriko eta diasporako hainbat herritan izaten da Laburbira. Horixe baita zirkuitu ibiltari honen helburu nagusia: sortzaileen lanak ezagutaraztea, euskaraz ekoizten jarraitu dezaten aukera emanez eta ikusleei geurean sortutako perla hauez gozaraztea", dio Euskaltzaileen Topaguneak.

Bederatziko film labur dira 2020ko Laburbirako protagonistak, guztiak 2018tik 2020ra bitartean egindakoak, sortzaile gazteenak gehienak eta esperientzia luze-zuzendarienak beste batzuk. Bederatziko lanetatik sei dira emakumeek zuzendutakoak. Denak uztartuta, ordubete luze-koktela osatu du Topaguneak. "Kalitatezkoa eta dibertigarria, euskarazko film laburren zaleei eta, oro har, zinemazaleei, gozatu ederra emateko. Aukera ona dosi txiki eta freskoetan euskal zinema dastatzeko".

### Bederatziko film labur

Epaimahaiak 27 lanen artean bederatziko aukeratu zituen, eta horiek izango dira ikusgai To-

**LABURBIRAKO  
BEDERATZIKO FILMEN  
ZUZENDARIEN  
ARTETIK, SEI DIRA  
EMAKUMEZKOAK**

resoroan bihar, zapatua: *Gau beltza* (Euskaltzaileen Topagunea), *Urak dakarrena* (Marilyn Taldea), *Anti* (Josu Martinez), *Tigre bat* (Amaia San Sebastian), *Pil Pil* (Kristina Zorita), *Mamarro* (Ibon Iza Totorika), *Kateak* (Yolanda Mazkarian), *Juzi bat eta prixt* (Maitane Eyheramot) eta *Harria herria* (Janire Etxabe).

Laburbiraren XVII. edizioak 33 herri bisitatu ditu jada. Aukeraturako bederatziko filmak elkarren artean oso ezberdinak dira eta ordubete pasatxoko proiektzioa osatzen dute.

### XVIII. edizioa, martxan

Laburbiraren XVIII. edizioa izango da aurtengoa, eta 2019tik hona ekoiztutako fikziozko film laburrak hartuko ditu. Otsailaren 11ra bitartean, antolakuntzak film laburren aukeraketa egingo du. Film labur horiek izango dira 2021eko Laburbira osatuko duten lanak eta herriz herri bidaiatuko dutenak –goerak hala ahalbideratzen badu–.

## Txirrindularitza Federazioak 2021eko probak iragarri ditu

Uzarragako igoera martxoaren 20an egingo da eta Iñaki Leteren oroimenezko lasterketa, aldiz, uztailaren 11n

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Pandemia betean ezegonkortasuna nagusi den honetan, Euskal Herriko Txirrindularitza Federazioak egutegia osatu du taldeek, behinik behin, antolatze-ko aukera eta erreferentzia izan dezaten 2021ean.

Hala, Antzuolako Aiastui taldeari dagokionez, bi lasterketa izango ditu jomugan 2021ean. Martxoaren 20an, junior mailako Uzarragako igoera; eta uztailaren 11n, Lehendakari txapelketako 23 urtez azpiko Iñaki Leteren oroimenezko lasterketa –herriko jai nagusiak egingo balira, aurreko asteburuan izango litzateke lasterketa–.

Eta Euskal Herriko Txirrindularitza Federazioaren egutegiak aurrera egingo balu, Lehendakari txapelketako lehen txirrindularitza proba izango litzateke.



2020ko Uzarragako igoera. GOIENA

Uzarragari dagokionez, 60 kilometroko ibilbidearen ostean Uzarraga igo beharko dute junior mailako txirrindulariek. Iazko Uzarragako lasterketa kolokan egon zen arren, atzeratu eta irailean egin zen. Carbayeda izan zen irabazle.

## Ezin izango dira ohiko Aratusteak ospatu aurten

Dena kolokan dagoen honetan eta egoera egunez egun aztertzen diharduten honetan, Aratustefesta ere zalantza da, gaur-gaurkoz. "Ohiko Aratusteak ospatzea ez da posible izango aurten. Hala ere, osasun neurriak betez, ekin-tzaren bat edo bestea egitea aztertzen ari gara. Oinarinekin ere aztertu gura dugu zein aukera dagoen eta legeak dioena

ikus, baina dena kolokan dago", argitu du Kultura batzordeko kide Mikel Bargiela zinegotziak. Aratusteei begira, lotuta dagoen ekitaldi bakarra, oraingoan, Potx eta Lotx pailazo oñatiarren ikuskizuna da. Otsailaren 13an izango da, pilotalekuan, 17:00etan. Sarrerak aurrez erreserbatu behar dira, liburutegian.

Eskola ere erabakiren bat hartzeko pandemiaren datuen menpe dago; aurreratu dute Pausokarekin egin ohi duten mozorro-festa ez dutela egingo aurten.

## Otsailaren 23an batuko du Landa Garapenak plastikoa

Debagoieneko Landa Garapen Elkartek baserri inguruetan sortutako plastiko biltetarako egutegia argitaratu du: otsailak 23, martxoak 23, maiatzak 25, uztailak 27, irailak 28, urriak 26 azaroak 23 eta abenduak 28. Arratsaldean utzi beharko dira plastikoa ekarpen-gunearen ondoan. Lekua aldatzeko, 943 76 25 47 zenbakira deitu behar da.

## Hondakinak egoki kudeatzeko kanpaina abiatuko dute bihar

Debagoieneko Mankomunitateak ontzi arinekin nahasita botatzen diren hondakin inpropioen kopurua gutxitzeko kanpaina abiatuko du bihar Antzuolan. Helburua da herritarrek arazoak ohartaraztea eta ohitura egokiak gizarteratzea. Hala, antzuolarrei informazioa eta azalpenak emateko 10:30etik 12:00etara Herriko Plazan izango dira bihar.

# Bost familia Caritasen laguntzaren premian

Abuztuan izan ezik, hilero egiten da Gipuzkoako Elikagai Bankutik ekarritako jeneroaren banaketa Elgetan. Urtarrilean, bost familia unitatetako hamaika lagunek jaso dute laguntza hori; laster beteko dira bederatzi urte programa martxan jarri zela

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Maria Jesus Leteren eta Dolores Arbuluren hileroko egitekoa da. Azkenaldian, Pedro Mari Ube-raren laguntza ere badute. "2012ko martxoaren 30eko da Gipuzkoako Elikagai Bankuarekin sinatu genuen lehen kontratua. Orduko hartan, lau lagunendako jeneroa ekartzen genuen", azaltzen du Maria Jesus Letek. "Inor barik egon bagara ere, hamasei lagunendako banaketa ere egin izan dugu", gehitu du Arbuluk.

Elgetako Caritasen izenean bideratu zuten programan parte hartzeko eskaera. "Hasiera batean, guk tramitatzen genituen eskaerak, baina laster konturatu ginen hori ez zela gure egitekoa. Orduan, gizarte laguntzaileak baloratzen ditu eskaerak, eta gu jeneroa ekartzeaz eta banatzeaz arduratzen gara".

Urtarrileko banaketa eginda dago. Elikagai Bankuak Bergarako San Juan auzoan du bi biltegiatoko bat. Jeneroa hartu,



Maria Jesus Lete eta Dolores Arbulu urtarrileko banaketa prestatzen. L.Z.L.


eta Elgetako parrokiak lagatako lokal batean egiten dituzte antolaketa eta banaketa lanak Letek eta Arbuluk. "Supermerkatu handiek egindako donazioak izaten dira. Elgetan ere egin da bilketa aurtan, eta 200 kilo batu

dira. Oso kopuru ona da", azaldu du Letek.

**Zurumurru kaltegarriak**

Gustura dihardute, baina kritikak ere jasotzen dituzte. "Bada jendea banaketa egitea gustuko

## Nola kudeatzen duzue programa?



**DOLORES ARBULU**  
BOLUNTARIOA

**"Oinarrizko elikagaiak banatzen dira, gehienbat"**

"Jendeak oso ondo hartzen du banaketa, eta pozik joaten dira. Niretzat ere garrantzitsua da, eta oso gustura sentitzen naiz, nahiz eta kritika asko jaso. Oinarrizko elikagaiak banatzen ditugu: makarroiak, arroza, esnea... Horiek ez dira falta izaten. Baita olioak, azukrea, lekaleak kontserban, latak gauzak... Dena nahastuta edota pakete handietan iristen da, eta gure lana izaten da banaketa egitea kontuan hartuta familia unitate bakoitzean zenbat diren edota zein adinekoak diren".



**MARIA JESUS LETE**  
BOLUNTARIOA

**"Gizarte laguntzaileak egiten du balorazioa"**

"Gure lana izaten da generoa Bergaratik ekarri, banaketa egin eta jendeari deitzea bila etor dadin. Iristen zaizkigun eskaera guztiak gizarte laguntzailearengana bideratzen ditugu. Garbiena iruditzen zaigu, eta horrela hitz eginda daukagu. Gainera, herrian erroldatuta dagoen jendeak bakarrik jaso dezake laguntza hori. Hainbat irizpide kontuan hartu eta gero hartzen du erabakia gizarte laguntzaileak. Laster beteko dira bederatzi urte programa honekin hasi ginenetik".

ez duena. Emandako jeneroak zaborretan amaitzen duela, esker txarreko jendea dela... Entzuten ditugu halakoak". Beste kezka da gero eta nagusiagoak direla eta pisu handiko kutxekin ibiltzea gero eta nekezagoa zaiela.

**INOR BARIK EGON BADIRA ERE, GERTATU DA HAMASEI LAGUNENDAKO BANAKETA EGITEA**

## 2030eko Elgeta irudikatzen parte hartze prozesua, martxan

Galdetegi bat eta bi herri batzar prestatu ditu Udalak; oposizioak dio "espedientea betetzeko" ekimena dela

**L.Z.L. ELGETA**

"Herriarren artean parte hartzea sustatzea eta iritzi ezberdinak jasotzea da prozesu honen alde garrantzitsuenak. Udalaren noranzkoan lagungarri izatea baino gehiago, etorkizunean zelako Elgeta nahi dugun denon artean erabakitzea eta datozen urteetarako herriaren proiektu eta aurrekontuen norabidea zehaztea da helburua", azaldu du Ane Bilbao zinegotziak. Elhuyar Aholkularitza Zerbitzuarekin batera bideratutako prozesua da, eta 8.000 euroko aurrekontua

du. Udalak aurreikusten du Foru Aldunditik dirulaguntza jasotzea.

Galdetegi bana banatu dute etxez etxe, 16 urtetik gorako elgetarrek bete dezaten. Online ere egin daiteke. Bi herri batzar ere etorriko dira, otsailaren 18an eta martxoaren 4an. COVID egoeratik, batzarretan parte hartzeko izena eman beharko da. Laster zabalduko du Udalak horretarako aukera.

**Oposizioa, oso kritiko**

Jeltzaleek salatu dute anonimoko izatera behin baino gehiagotan

bete daitekeela galdetegia, eta ez duela gaietan batera sakontzen, gehiago dirudiela gogobetetasun inkesta bat. "Espedientea betetzeko" dela esan dute: zazpi urtean EH Bildu ez dela gai izan Elgetaren etorkizunerako proiekturik planteatzeko, eta pandemia baten erdian bururatu zaiela partaidetza prozesu bat. Salatu dute, baita ere, EH Bildu ez duela oposizioarik onartzen ez dutelako "inolako interesik" jarri jeltzaleek parte hartzeko moduko ordutegiak ezartzeko. Azkenik, egoera sozioekonomikoari buruzko azterketa sakona egiteko eskatzen dute. "EH Bildu ez du ez azterketa ekonomikorik, ez sozialik, ez inolako azterketarik (...) Azterketa sakona egin dezala, *paripe* bat baino izango ez den plan estrategiko bat planteatu beharrean".

## Elkarretaratzea bihar, Zaldibar Argitu plataformak deituta

Urtebete da zaborte-gia amildu zela; Elgetan hilero egin dira mobilizazioak, gertatutakoa argitzeko eskatzeko

**L.Z.L. ELGETA**

"Oso plan politik genituen urteurrenerako, baina osasun egoera dela-eta herriz herriko konfinamendu honek ez digu lagako. Elgetan, 13:00etan irten-go gara plazara. Herriarrei bertaratzeko dei egiten diegu", azaldu du Zaldibar Argitu herri plataformako kide Janire Lazkanok. "Uste dugu gertakari benetan oso larriak egon direla hemen, eta argitu beharrekoak direla. Desastre humanoa, ekologikoa eta politikoa izan zen. Herriarroi egia eta informazioa

zor digute". Zaldibarko zaborte-giko luizari buruzko epaiketa izango da hurrengo pauso garrantzitsuetako bat. Zaldibar Argitu plataforma herri-akusazio moduan aurkeztuko da epaiketa horretan. Hala, kostuei aurre egiteko *crowdfunding* kanpaina abiatu dute, *itsulapikoa.eus* webgunean.

Prozesu horretan izango da baita ere Elgetako Udala. Izan ere, beste hainbat entitaterekin batera onartu du epaiketa horretarako Durangoko Instrukzio 1. Epaitegiak.





Frontoiaren erabileraren inguruko desadostasuna adierazi duen herritar taldearen ordezkari bat. L.Z.L.

# Erabilera libreko orduak nahi dituzte frontoirako

Herritar talde batek eskatu du ez erabiltzeko pandemiaren aitzakia erabilera libreko orduak kentzeko. Udalak, aldiz, argi ikusten du oraingo ez dela espazio itxi bat halako erabilerarako zabaldu, eta erreserba bidez funtzionatu behar duela

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA

Herritar talde batek udal pilotalekuaren erabileraren inguruko desadostasuna adierazi du. Ez dute bidezko ikusten COVID-19 dela-eta erabilera libreko orduak kendu izana, eta 35 bat lagunak sinatutako idatzia aurkeztu dute Udalean.

Gogoratzen dute pandemia egoera etorri aurretik doakoa zela erabilera libreko orduetan udal pilotalekua erabiltzea. Iritsi eta frontoia libre aurkitzen zuen aukera zuen, ordubetez, gutxienez, jokoan egiteko.

Orain, ordea, derrigorrezkoa da erreserba egitea, eta horrek prezio bat dauka: zortzi euro orduko. Argindarrarekin bada,

hamabi euro dira orduko. "Orain arte, erabilera libreko ordutegietan ez genuen ordaindu beharrik izaten. COVID-19 dela-eta badakigu gauzak aldatu direla eta aldatzen ari direla, baina beste modu batzuk daudela pentsatzen dugu frontoiko erabilera hobetzeko", azaldu dute.

Hala, eskaera bat egin dute: "Erabilera libreko ordutegietan Bolatokira deitu frontoia ea libre dagoen jakiteko, eta, hala bada, ordaindu gabe joan ahal izatea –argindarrak gabe bada–. Modu horretan, frontoiaren erabilerak kontrolpean jarraitzen du, eta herritarrok gehiago disfrutatu dezakegu frontoiaren erabilerarekin".

**Udalaren erantzuna**

Idatziz aurkeztutako eskaerari idatziz eman zion lehen erantzuna Udalak. Pilotalekua erabiltzeko erreserba egiteagatik dagokion tasa ordaindu behar dela azpimarratzen zuen, eta gehitu du juridikoki ez dela posible zerbitzu beragatik batzuei kobratzea eta beste batzuei ez. Kiroletako zinegotzi Ibai Etxanizek esan du kirol instalazioen gaia mahai gainean izaten dela Kiroletako batzordea egiten den aldiro, eta funtzionamenduari buruzko desadostasunik, zalantzarik edo galderarik duen edonor joan daitekeela batzordera horren berri ematera. Esan du ez dela izan kasua.

## "Argi dugu orain ez dagoela erabilera libreko aukerarik"

IBAI ETXANIZ KIROLETAKO BATZORDEBURUA

Etxaniz martitzenean elkartu zen taldeko bi kiderekin.

**Zelakoa izan zen hartu-eman?**

Kontaktua izan dugu, eta elkartu ginen berba egiteko eta nor bere ikuspuntua emateko. Azaldu nien zein den dagoen zerbitzua, eta zergatik dagoen horrela. Argi dugu orain ez dagoela erabilera libreko aukerarik. Ezin da. Erreserba bidez izan behar du. Beraien eskaera zen erabilera libreko sistema bat jartzea non ordua hartzerik egongo zen, baina ordaindu gabe. Kontua da ezin dugula zerbitzu beragatik kobratu batzuei eta besteei ez.

**Zein da erabilera sistema gaur egun?**

Mila aldiz aldatu dugu; dekretu berri bat irten den bakoitzean. Frontoiko egutegian hiru eremu mota daude. Urteko erreserba duten erabiltzaileena tartea dago. Gero, erreserba normala egin daitekeen ordu tartea, eta erreserba izan daiteke urte osokoa zein momentukoa.



L.Z.L.

Azkenik, momentuko erreserba bakarrik egin daitekeen tartea dago. Azken horiek zergatik? Asteburuan ez dugulako urte osorako erreserbarik egoterik nahi, eta, aste tartzet oraingo etenda egonda ere, itzultzea aurreikusten dugun zerbitzuetako orduak direlako –pilota eskolako saioak, umeen erabilera, maskara erabiltzea derrigorrezkoa delako urte osoko erreserba behin-behinean eten duten taldeen orduak, eskolaren orduak, eskola kirola...–.

**Eskolak eta eskola-kirolak ere badute tartea.**

Hor ez dugu zalantzarik. Lehentasuna dute, eta, egun dagoen egoerarekin, are gehiago. Asteartetik ostiralera arratsalde guztiak erreserbatzeko eskaera egin zigan eskolak –eskola ordutegian–, eta eskola-kirola martxan jarri denean ere frontoia erabiltzeko aukera jarri genuen. Egia da ez dutela erabili kasu askotan. Hala, elkartu eta adostu dugu asteko planifikazioa egingo dutela, guztiok jakiteko noiz erabiliko duten frontoia eta noiz ez. Egutegi hori astero eguneratuko da, eta ikusgai izango da bolatokian astelehenean. Urtarrileko batzordean hartutako erabakia da.

**Noiz arte horrela?**

Egoera normaltzen denean eta frontoia zabaldu ahalko denean, hau guztia lehengora bueltatuko da, eta, ahal dela, hobekuntzekin. Baina, bitartean, ezin da. Gaur-gaurkoz, ezin dugu espazio itxi bat halako erabileretarako zabaldu.

## Koplari Santa Ageda bezperan

Atzo arratsaldean, makilak eskuan irten ziren kantura Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako neska-mutikoak. Urteroko ospakizuna da, eta aurtan, segurtasun neurriekin eta bizikidetzako talde iraunkorrak mantenduz ospatu dute. Taldeka igaro ziren plazatik, eta Santa Ageda bezperako koplak abestu zituzten, entzun nahi zuten guztiendako.



L.Z.L.

## COVID egoerak baldintzatutako Aratusteak aurtan

2021eko Aratusteak pandemia egoerak baldintzatuta egongo dira, zalantzarik gabe. Hilaren 12an izango da Aratusteetako barikua, eta Herri Eskolako neska-mutikoak dagoeneko hasita daude kantuak eta dantzak prestatzen, baina bizikidetzako iraunkorreko taldeak mantenduta. Hala, Maala guraso elkarrekin jakinarazi du egun horre-

tan irabiaki eta San Blas opila bana banatuko dietela umeei, ikastetxe irteeran. Urtero moduan, Aratuste-astelehena eta Aratuste-martitzena jai izango dira eskolan.

Goibeko euskara elkarteak, berriz, 2022rako antolatuta nahi duen koko-eskearen edo kokobatzearen gaineko hitzaldia iragarri du eguaztenerako, hilak 10. Eibarko antropologo eta Kezka dantza taldeko kide Oier Araolazak egingo du, Espaloia kafe antzokian, 19:30ean.





Bederatzi kale ditu igerileku handiak; ura 27 gradutan egongo da. O.E.

## Abonatuendako eta erreserbak eginda soilik

Gaur, otsailak 5, zabaldu dituzte Zubikoako igerileku berriak, eta egoerak agintzen duen neurrietara egokituko dute zerbitzua. Egun, ordubeteko txandak daude eta kaleak aurrez hartu behar dira: telefonoz zein Internet bidez egin daitezke erreserbak

### Oihana Elortza OÑATI

Hamahiru hilabetez itxita egon eta gero, gaur, otsailak 5, egubakoitza, zabaldu dituzte Oñatiko igerileku berriak eta gaurtik aurrera erabilgarri egongo dira. Igeri egitera joateko, baina, abonatu egin beharko da eta erreserba egin aurrez.

### Erreserbak online egin daitezke

Egoerak horrela eskatuta, erreserba bidez erabili ahal izango dira igerilekuak gaurtik aurrera. Abonatuak soilik izango dute aukera kaleak aurrez hartzeko, eta telefonoz, kiroldegira deituta, edo Internet bidez egin ahal izango dira erreserbak. Ordubeteko txandak dira, instalazioaren itxiera-orduak izan ezik; horiek 45 minutukoak dira.

Hiru eguneko epearekin egin ahal izango da erreserba, baina ezingo da bi egun jarraian igerilekua erabili. Plaza librerik badago, egunean hartu ahal izango dira. Igerileku handiko kaleetan banan sartuko dira,

kale bakoitzean igerilari bat; familia-erreserbak igerileku txikian bakarrik hartuko dituzte. Egindako erreserba erabili behar ez bada, ahalik eta azkarren baliogabetu behar da; behin baino gehiagotan baliogabetu gabe gelditzen bada, ezingo da bi astean erreserba gehiago egin.

Dutxei dagokienez, zabalik egongo dira, baina, egungo egoera aintzat hartuta, banaka erabili beharko dira. Dutzak eta eserlekuak, erabilgai daudela adierazten dutenak soilik erabili ahal izango dira.

Osasun agintariek hartzen dituzten neurrien arabera egokituko dira erabilera baldintzak. Etengabe aireztatuko dira instalazioak, eta erabiltzaileak

**WEBGUNE BATEN JASO DITUZTE TARIFAK, ERRESERBAK ETA GAINERAKO INFORMAZIOA**

maskara erabili beharko du eremu guztietan, igerileku barruan eta dutxan izan ezik.

### 2019ko tarifak

Saunak geroago zabalduko dituzte. Oraingoan, igerilekuak egongo dira erabilgarri, eta abonatuendako eta igeriketa elkarreko kideendako bakarrik. Aste barruan 07:30-21:00 izango da ordutegia, zapatuetan 09:00-13:30 eta 15:00-19:30 eta domeketan 09:00-13:00.

Bazkide zirenei bidali dizkiete dagoeneko abonatu txartelak; sarreran erakutsi beharko dute, igerilekuetara sartzeko. Bazkide egin gura duenak Zubikoa kiroldegira joan beharko du, zein abonamendu mota atera gura duen esan eta eskuorriak bete. Banakako zein familiako abonamenduak atera daitezke eta prezioa 2019ko bera izango da.

Tarifak, erreserbak eta bestelako informazioa helbide honetan dator: <https://zubikoakiroldegia.oñati.eus>.

## Aparkaleku gutxiago egongo dira erdigunean astelehenetik

Ur sarea konpontzeko lanak hasiko ditu Gipuzkoako Urak enpresak Aita Mortara eta Aita Madina kaleetan

### O.E. OÑATI

Gipuzkoako Urak enpresak ur sarea berritzeko lanak abiatuko ditu astelehenean erdigunean, eta hainbat aparkaleku ezingo dira erabili. Zirkulazioan ere izango dute eragina obra horiek.

### Bi obra elkartuko dira

Aita Mortara kaletik hasi eta Aita Madina kalean barrena Zazpibideta bidegurutzeraino helduko dira obrak; Portu eta Lope de Agirre kaleetan ere egingo dituzte. Horren ondorioz, Aita Mortara eta Aita Madina kaleetako aparkalekuak ez dira

erabilgarri egongo astelehenetik aurrera. Obrak Zazpibideta heldzen direnean, semaforo bidez arautuko dute zirkulazioa. Hor, gainera, gune horretan jarriko dituzten pibote edo zutoinen obrekin egingo dute bat Gipuzkoako Urak enpresak astelehenean hasiko dituen lanek. Datozen egunetan dute bilera, lan biak nola uztartu eta tarte horretan zirkulazioa nola bideratu erabakitzeko. Zazpibideta jarriko dituzten piboteak hidraulikoak izango dira, eta orain dauden semaforoak ordezkatuko dituzte.



Aita Madina kalean dauden aparkalekuak. O.E.

## Berdura plazaren sotoa nola aprobetxatu hasi dira lantzen

Gipuzkoako azoken sarean sartu da Oñati, eta merkatuaren etorkizuna bermatzea da helburua

### O.E. OÑATI

Gipuzkoako azoken sarean sartu da Oñati, beste 15 herrirekin batera, eta merkatuaren etorkizuna bermatzeko zer egin aztertuko dute guztien artean. Merkatu handiak zein txikiak dituzten herriak daude sarean: Tolosa, Ordizia, Zarautz, Arrasate, Bergara, Azpeitia eta Legazpi, esaterako. Eta bakoitzaren erronkak eta ekintza planak pentsatzea eta diseinatzea da asmoa, gero martxan jartzeko.

Dagoeneko egin dute lehen bilera, online, eta proiektua

egiten lagunduko dien aholkulariarekin batuko dira datozen egunetan udal ordezkariek; Iker-talde egokitu zaio Oñatiri.

Egun, COVID-19agatik, berrantolatuta dago berdura azoka; pasilloak, esaterako, zabalagoak dira. Zenbat postuendako tokia dagoen, herriko zenbatek duten interesa hor lekua izateko eta beheko sotoa nola aprobetxatu landuko dituzte, besteak beste, egitasmo horretan. Ideia bat da behean barazkiak, ogia, gazta eta okela saltzea baita aste barruko egunetan ere.



# "Emakumea lanean badago, lanean dago"

**JONE MARKULETA BARGASTAK TALDE FEMINISTAKO KIDEA**

Herriko taberna eta ostatueta lan egiten duten hogeit hamar emakumetik gora elkarrizketatu ditu, bezeroen aldetik zer-nolako eraso edo tratu desagokiak jasaten dituzten jakiteko

**Oihana Elortza OÑATI**

Oñatiko ostalaritzan lanean diharduten emakumeen testigantzak jaso ditu bi bideotan Jone Markuleta oñatiarrak.

**Zein izan da ikuspuntua?**

Ni neu ere zerbitzaria naiz eta badakit zer den emakumea izan eta barra baten atzean lanean egotea. Konfinamendu ostean, Bargastak taldea berriz martxan jarri zenean, taldeko kideei komentatu nien asmoa, eta eurekin batera egin ditut bideoak.

**Zeure esperientziatik abiatu zara, orduan?**

Bai. Nik lehen pertsona jasan izan ditut erasoak, tratu desagoinak. Iruditzen zitzaidan feminizatuta dauden beste sektore batzuetan hitz egiten dela emakumeak jasaten duen tratua, baina ez ostalaritzan. Taldean badaude beste zerbitzari batzuk ere, eta haiekin komentatzea eta haiei ere pasatzen zaiela jakitea hunkigarria izan da.

**Non identifikatu dituzue bezero eta zerbitzari arteko eraso horiek?**

Adin ezberdinetako emakumezko zerbitzarien testigantzak jaso ditugu, batzuk Oñatin jaiotakoak dira eta beste batzuk kanpotik etorritakoak. Eta tabernak eta ostatuak ere era askotakoak dira; hau da, ez gara parranda girokoetara bakarrik joan, badaude familia osoak, ume eta guzti, joaten diren tabernak eta badira normalean gazteak egoten direnak. Gura genuen erakutsi erasoak ez direla gaueko tabernetan bakarrik gertatzen, adibidez. Izan daiteke gaueko alkoholak ematen duen "atrebentzia" horrekin erasoak areagotzea momenturen batean, baina bestela ere gertatzen dira. Bazkalosteko kafea hartzeko orduan ere bai, esaterako.

**Adinak badu zerikusirik errespetu gehiago edo gutxiago erakusteko?**

Ez. Nik uste dut ez dakigula zein puntutan hasten garen errespetua galtzen zerbitzariarekiko.



Jone Markuleta oñatiarra. O.E.

## "USTE DUT EZ DAKIGULA NOIZ HASTEN GAREN ERRESPETUA GALTZEN ZERBITZARIAREKIKO"

Dokumentalean emakumeek argi esaten dute gazteen zein helduen kontua dela eta edozein ordutan gertatzen direla.

**Zein egoera, adibidez?**

Niri "Jone" deitu beharrean "guapa" deitzea, esaterako. Txikieria dirudi, agian, baina detaile horiek ez dute zertan gertatu, diferentzia markatzen dute gero. Era berean, "gero aterako zara juerga egitera?" galdera ere askotan egiten dizute, adibidez. Nire aitari, berriz, esaten diote: "Eskerririk asko, oso ondo jan dugu".

**Dokumentalean batek baino gehiagok aitortzen du birritan pentsatu behar izaten duela zein arroparekin joan lanera.**

Bai, eta hori 35 urte zerbitzari doan emakume batek zein hasiberri batek esan digu, adibidez. Hau da, ez da gauza isolatua edo gazteei esaten zaiena. Beraiek

esandakoa da, lanbide honetan, emakumei edozer gauza esan ahal digutela; hori uste dutela bezero askok eta askok. Nik ere bizi izan dut, adibidez, mutila den lankidea praka motzetan lanera joatea, baina ni luzeekin joatea, zer esango didaten pentsatu eta gero.

**Zer jakin behar dugu?**

Jakin behar dugu lanean dagoen emakumea, kasu honetan barra baten atzean, lanean dagoela. Askok ez dute, agian, zerbitzari lana lan moduan hartzen, ez dakit, baina lana da. Askorendako, ni barne, aldi baterako lana izaten da tabernakoa, baina berdin dio horrek, momentu horretan lanean baldin badago, lanean dagoela ulertu behar da, eta errespetatu. Zerbitzaria eta bezeroa ez daude egoera berean ia inoiz, bat lanean dagoelako, eta hori errespetatu egin behar da, beti.

**Baduzue asmorik beste sektoreen batean lan egiten duten emakumeen testigantzak jasotzeko?**

Bai. Zaintzan eta garbiketan gura dugu egin. Oso sektore feminizatuak dira, eta uste dugu izango dutela zer kontatua. Noiz egingo dugun, baina, ez dakit.

## Udaltzainek kontrolak jarriko dituzte herriko hiru puntutan

Domekara bitartean, Arrikruzen, Azkoagainen eta Osiñurdinen jarriko dituzte, itxiera perimetrala zaintzeko

**O.E. OÑATI**

Oñatiko udaltzainek kontrolak jarriko dituzte, domekara bitartean, herriko hiru puntutan, itxiera perimetrala betetzeko. Azkoagainen, Zubillagan-Osiñurdingo biribilgunean eta Arrikruzen jarriko dituzte, azken toki horretan baita aste barruan ere. "Ertzaintzarekin batera adostutako kontrolak dira eta hiru puntu horietan jarriko ditugu, behin baino gehiagotan batzuetan, eta ordu ezberdinetan", adierazi du udaltzainburuak. Legazpi aldean jarriko dituzten

kontrolean ardua Ertzaintzarena izango da.

Aurreko asteburuan ere jarri zituzten kontrolak herrian udaltzainek, eta mugak hautsi zituzten dozena erdi bat gidari atzeman zituzten. Tartean, esaterako, Arantzazura autoa bedein-katzera Zumaiatik zihona eta mendira joateko asmotan beste herri batzuetatik etorritakoak. Itxiera perimetrala urratu duten kasu horiek Barne Sailera bideratuko dituzte, udaltzainek ez baitute eskumenik isunak jartzeko, ertzainek baizik.

## Hobekuntzak egingo dituzte Elorregirako errepidean

Aldundiak jakinarazi duenez, biribilguneak eta seinaleztapenak egingo dituzte GI-2630 errepidean

**O.E. OÑATI**

Aldundiak Elorregi eta Oñati arteko errepidean hobekuntzak egingo dituela aurreratu du, eta zehaztu bi biribilgune egongo direla: bat Garibain, ULMaren elkargunean, Munazategi aldean, eta bestea San Pedron, GI-2630 errepidea eta Otaduy kalea elkartzen diren tokian. Munazategiko lanak Aldundiaren, Udalaren eta ULMaren artean ari dira lantzen; kooperatibak egin du proiektuaren exekuzioa eta Udalak 91.000 euro jaso ditu aurrekontuetan proiektu horre-

tarako. Lurrekin lagundu du Diputazioak, galtzadaren zabalera murriztuko dute, eta zintarriak dituzten irlatxoak jarri. San Pedroko biribilgunea, berriz, Aldundiak egingo du; bi autobus geraleku egongo dira, "Udalak horrela eskatuta". Aintzane Oiarbide diputatuaren esanetan, Aldundiaren helburu nagusien artean daude industrialdeen eta hiriguneen irisgarritasuna hobetzea eta erabiltzaileen segurtasuna handitzea, eta, "Oñatiren kasuan, aurreikusitako jarduerak helburua beteko dute".

## Elikadura sistemaren ezaugarriak ikertuko ditu Ingurumen Bekak

*Oñatiko elikadura sistemaren karakterizazioa: oinarri sozial eta fisikoen definizioa* proiektuak irabazi du Udalaren Ingurumen Bekak. Etorkizun hurbileko elikadura sistema irudikatu eta diseinatzen saiatuko dira lanean, eta, horri erantzun ahal izateko, lur ondarearen katalogazioa zehazten. 2022ko abendurako amaitu beharko dute.

## Txokolateixan eta azokan ditu salgai motxilak Hotz Oñatik

Kotoi organikoak elkartzasun motxilen salmenta kanpaina jarri zuen abian Hotz Oñatik Gabonen aurretik. Herriko dendak, enpresak zein ikastetxeak batu ziren laguntzeko. 1.200dik gora saldu dituzte, eta denei eskerrak eman gura dizkie Hotz Oñatik. Hemendik aurrera, elkartearen hileroko azokan eta Txokolateixan egongo dira salgai motxilak.

# "Helbururik ez izateak zaildu egiten du dena"

**ERIC MARTIN ATLETA**

Kros denboraldia hasi berri du Aloña Mendiko atletak. Denboraldi berezia izaten ari den arren, otsailean jokatu den Euskadiko kros txapelketa egiteko gertu dago

**Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI**

Oñatiko atleta Huescan bizi da azkeneko bi urteetan; hain zuzen, hango unibertsitatean dabil Tafyd ikasketak egiten. Entrenatzeko lagun kuadrillatxoak egin du, eta horiekin batera parte hartu zuen joan den aste bukaeran Control (RFEA) Nivel II. Cross lasterketan, Zaragozan.

**Zaragozako lasterketa jokatu berri duzu. Denboraldiko lehena?**

Bai, hala izan da. Aste bukaera honetan, adibidez, beste lasterketa bat dago, baina hori Aragoiko atletendako bakarrik izango da.

**Pozik zaude egindako lanarekin?**

Bai. Egia da ez ginela jende asko batu, 15 bat atleta izan ginen. Laugarren egin nuen sailkapen orokorrean, eta, nire mailari dagokionez, 23 urtez azpikoetan, hirugarren sailkatu nintzen. 8.500 metroko lasterketa izan zen Zaragozako.

**Zaragozan egindako lasterketa test moduko bat izan da Euskadiko kros txapelketara begira jartzeko?**

Bai, hori da. Denboraldi-aurrean beste bi test egin genituen: bata bost kilometrokoa eta bestea bost minutuko testa. Bigarren hori oso gaizki egin nuen, larregi zen niretzako. Hala ere, entrenatzen ondo genbiltzala ikusita, sentsazio onak izan ditut Zaragozako lasterketan.

**Ze probatan parte hartuko duzu?**

23 urtez azpikoen kategorian parte hartuko nuke, 10.000 metroko lasterketan.

**Aurtengo urtea berezia izan dela kontuan hartuta, noiz hasi zineten entrenatzen?**

Betiko moduan, irailean hasi ginen, bigarren astean. Denboraldi-aurrean hilabete egin genuen, eta ondoren, betiko moduan hasi ginen: plangintza bera jarraitu dugu.

**Plangintza bera izan arren, lasterketarik ez duzue izan.**

Hori da, aurtun ez dugu lasterketarik izan. Guk gure kontutik



Eric Martin, lehenengoa, Zaragozako lasterketan. E.M.

## "BETIKO PLANGINTZA BERA JARRAITU DUGU, BAINA LASTERKETARIK JOKATU GABE"

egin izan ditugu korrikaldiak, edo testak. San Silvestre lasterketa, esate baterako, ez zuten antolatu; bada, lagun taldetxo bat elkartu ginen, talde txikian, Oñatitik Bergararaino korrika egiteko. Izan ere, entrenamendu gogor moduan hartu izan ditugu horiek.

**Hala ere, ez da berdina izango hori egin edo benetako lehia egitea.**

Bai, hori da. Ez da berdina. Nik nahiago dut benetako lasterketa bat jokatu. Adibidez, San Silvestre egunean 10 bat lagun elkartu ginen, eta hor gustura zoaz. Baina bost minutuko testa egin nuenean, ni bakarrik nengoen... Horrelakoak gogorrak izaten dira; are gehiago, ez denean zure distantzia.

**Pandemia egoera honetan, nola moldatu zarete entrenatzeko?**

Ez dakit Oñatin nola egin duten, baina Huescan lau laguneko

taldeetan kirola egiteko baime-na dugu.

**Eta lehiaketarik jokatzeko ez horrek nola eragin dizu zuri?**

Ba, batzuetan, gogo aldetik baxu sentitzen naiz. Entrenatzen ibili arren, helbururik ez izateak zaildu egiten du dena. Entrenamendu gogor batean, bakarrik zoazenean... burutik gauza asko pasatzen dira.

**Norekin entrenatzen zara?**

Iaz, bi lasterketa herrikoi egin nituen; pertsona batek Aloña Mendiko kamiseta nuelako ezagutu ninduen, Ritxar Fernandezekin ezaguna zen eta. Hala, eurekin entrenatzeko esan zidan. Hala ere, ni Aloña Mendiko atleta naiz eta Mikel Quelle da entrenatzailea.

**Aurtun ere, krosa eta errepidea, biak egingo dituzu?**

Bai. Nire denboraldia oinarritzen da 10 kilometroko lasterketan; izan daiteke krolean edo errepidean.

**Euskadiko kros txapelketaz gain, badago beste lasterketarik?**

Espainiako txapelketa otsailaren 28an izango da, Getafen; baina horretarako sailkapena lortu behar da Euskadikoan, bestela nahierara aukeratu dute eta.



Ekain Guridi, Jokin Madina eta Unai Gomez. MIREIA BIKUÑA

## Lehiarekin hasteko gogotsu daude tenis jokalariek

Tenis eskola egonkortuta dago Oñatin: 40 neska-mutiko eskola kirolean, federatuak eta jokalariek helduak ditu

**A.E. OÑATI**

Zubikoa kiroldegiko tenis pistetan gogotsu ari dira entrenamenduetan federatu mailako tenis jokalariek. Tenis eskolako gaztetxoak, aldiz, eguaztanean hastekoak ziren entrenamendu saioekin, baina irakasleek COVID formakuntza bat jaso arte ezin izango dira entrenamenduekin hasi.

Ainhoa Zumalde dabil tenis eskolan arduradun. "Tenis eskola egonkortuta dagoela esan daiteke. Iaz, kopuruari dagokionez, jauzi handia egin genuen, eta aurtun mantendu egin gara", dio Zumaldek. Gaztetxoak poliki-poliki maila eta itxura hartzen dabiltzala nabarmendu du. Tenis eskolan 40 bat gaztetxo dituzte.

**Kalitatezko entrenamenduak**

Zubikoako tenis pista estali zutenetik baliabide gehiago dituztela azaldu du Zumaldek: "Gau-

zak serioago egiteko aukera ematen du honek; kalitatezko entrenamenduak egin daitezke hemen".

Aloña Mendin federatuta daudenek eurek nahi dituzten txapelketak joka ditzakete: "Ez dago ligarik. Txapelketak daude eta bakoitzak erabakitzen du nora joan. Zenbat eta puntu gehiago egin, orduan eta gorago egingo duzu rankingean".

**Dedikazio handia eskatzen du**

Eskola-kiroletik federatu mailara jauzi handia dagoela dio: "Kirol individual guztien moduan, dedikazio handia eskatzen du. Maila batetik aurrera gogor entrenatu behar da".

Unai Gomez jokalariek gazteak dio "jokatzeko gogoz" daudela. Hark dio besoak indartsuak eta hankak arinak izan behar direla tenisean pilota guztietara iristeko.

## Igerilariak gaur dira hastekoak Zubikoan entrenatzen

Gaur, otsailak 5, Aloña Mendiko igerilariak Zubikoako igerileku berrian hasiko dira entrenatzen. Hori da, behintzat, asmoa.

Orain arte, Bergarako Agorrosin igerilekuan ibili izan dira entrenamendu saioekin; baina aste honetan ezin izan dute hara joan. "Ikastaro batzuk antolatu dituzte eta ez dugu lekurik izan entrenatzeko", azaldu du Aloña

Mendiko entrenatzaile Josune Odriozolak. Igerilari nagusiez gainera, kirol eskolako igerilariak ere entrenamenduekin hasiko dira.

2019ko abenduan itxi zituzten igerileku zaharrak berriak egiteko. Bazkide egin behar da erabiltzeko, eta, hasiera batean, igerilariendako zein igeriketa taldekoendako egongo dira zabalik. Aurrez hartu behar dago txandak. Bost kale izatetik bederatzikale izatera pasa da putzu handia.



# Antixena gaztetxean, ikastaroak abiatzear

Erromeriatako dantzak ikasteko tailerra, soinu teknikari lanetan jarduteko oinarritzko ezagutzei buruzkoa eta katalanez modu ludikoan jarduteko ikastaroa dira otsailerako proposatutakoak; edukiera mugatua duten arren, herritar guztientzako zabalik daude

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Egubakoitzetan, 18:00etan, egiten du bilera Antixena gaztetxeako Asanbladak –herritar guztientzako zabalik dagoena–, eta bazar horietan jasotzen dituzten proposamenekin osatzen dute, gero, hilabete horretarako edo hurrengoetarako programazioa.

Otsailerako egitaraua prest dute, eta, besteak beste, bi kontzertu iragarri dituzte: Arima taldeak *Biluztasunez jantzita* lana aurkeztuko du otsailaren 19an, eta Ameba taldea gonbidatu dute otsailaren 28rako. Zuzeneko emanaldiez gainera, erromeria tailerra, soinu teknikari tailerra eta katalana ikasteko tailerra dira hileko berrikuntzak.

## Erromeria tailerra, bi egunetan

Dantzak jakin gabe erromerietan geldit egoten diren horiei zuzenduta dago otsailaren 14an eta 21ean egingo duten tailerra. "Helburua ondo pasatzea da arinarinaren eta fandangoaren oinarritzko pausoak ikasten. Askotan, dantza horiek ondo ez menperatzea izaten da askorentzako erromerietan parte ez hartzeko aitzakia, eta tailerraren bidez lotsa edo traba horiek alde batera utziko ditugu. Nire behar edo gogotik abiatuta proposatu nion Asanbladari ideia, ondo hartua izan zen eta hala proposatu genien Oñatz taldekoei. Eneko Uriarte eta Aitor Tatiegi dantzariekin, bada, bi eguneko ikastaroa izango da; bi domekatan egingo dugu, 12:00etan hasita, eta ordubete eta erdi inguruko iraupena izango dute. Egun batean arin-arina landuko dugu, eta fandangoa bestean", azaldu du Unai Beitiak, Antixena gaztetxeako kideak.

Dantzarako proposamena gustuko dutenek aurrez aipatutako egunean eta orduan agertu besterik ez dute. "Ikastaroa doan da, eta egun bakarrean edo

bietan etortzeko aukera dago. Ez da alde aurretik izenik eman behar, eta batzen den jende kopuruaren arabera antolatuko ditugu saioak. Interesa dutenei lasai etortzeko eskatu gura diegu; izan ere, gaztetxea handia da, bi solairutan banatuta hainbat gela ditugu, eta ikastaroa segurtasun neurriak bermatuta egin ahal izateko moduan gaude".

## Teknikarien taldea osatzeko

Antixena gaztetxean askotariko ekitaldiak egiten dituzte, eta horietarako soinu teknikariak trebatzea da soinu teknikari tailerraren helburua; otsailaren 20an egingo dute –ordua oraindik ez dute zehaztu–, eta Imanol Astudillok gidatuko du. "Ezin soinu teknikari izateko behar den guztia irakatsi, baina helburua gaztetxeako soinu ekipoa ezagutzea eta oinarritzko treba-

## IKASTARO GUZTIAK DOAN DIRA, ETA INTERESA DUTEN HERRITAR GUZTIEI ZABALIK DAUDE



Imanol Astudillok eskainiko du soinu teknikari ikastaroa Antixenean. I. A.

kuntza hartzea da. Urtero egin izan ditugu gaztetxean soinu teknikari lanetan jarduteko prest dauden taldetxoak osatzeko gero. Bargasta talde feministako kideek proposatu zuten berri bat egitea, hainbat neska lan horretan jarduteko prest daudelako. Asanbladak proposamena onartu zuen, arlo honetan ere parekidetasuna bermatzeko asmoz. Ikastaroa etortzeak ez du derrigortzen lantaldean sartzera, baina aukera ona da jasotako azalpenak praktikan jartzeko eta urteko ekitaldien egutegia hainbat talderen artean banatzeko", azaldu du Imanol Astudillok.

## Katalanez, lagun artean

Martitzenetan egingo dute, 18:30etik 19:30era, eta asteon abiatu dute. "Bartzelonan ikasi duen Oneka Anduaga oñatiarrak eta Oñatin bizi den Carol Palacio valentziarrak gidatuko dute. Helburua irakaspen serioak ematea baino, modu informalean eta lagun artean katalanez berba egiteko aukera ematea da. Oso oinarritzko klaseak izango dira, jolas eta antzerakoetan oinarrituta", azaldu du Asanbladako kide Mikel Garaik.



Asier Oruesagasti, Kepa Errasti eta Libe Aranburu dira protagonistak. IÑAKI ARANBURU

## Janari osasungarriak umorez eta goxotasunez aldarrikatuta

Borobil taldeak 'Hansel eta Gretel' antzezlan eskainiko du bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan

## A. Aranburuzabala OÑATI

Iaz martxoan ziren Oñatin *Hansel eta Gretel* lana eskaintzekoak, baina itxialdiagatik ezin, eta bihar, zapatua, izango da Borobil taldea Santa Ana antzokian, arratsaldeko bostetan; sarrera gutxi geratzen dira.

## Familia giroan gozatzeko

Grimm anaien ipuinetik badu, baina istorioari gaurko begietatik begiratuta. "Hanselen eta Gretelen aitak janari osasuntsua egiten duten jatetxea dauka, eta, egun batean, bere errezeta-liburua desagertu egingo da, eta, antza denez, munduko errezeta liburu guztiak ere desagertuko dira; hortaz, jendea behartua dago janari lasterra jatera. Aita jatetxe barik geratuko da, eta semea eta alaba hari laguntzen saiatuko dira. Jaten dugunaren gainean arreta jartzeko mezuak dira", kontatu du Kepa Errastik.

## Hiru aktorek, hamaika paper

Anartz Zuazuak zuzendu du lana eta hiru aktore dira taularen gainean: Kepa Errasti aretxabaletarra, Asier Oruesagasti eta Libe Aranburu.

Bakoitzak launa pertsonaia antzeztzen ditu; Errasti, esaterako, Hanselen eta Gretelen aita, lagun bat, sorgina eta polizia da. Taularen gainean hiru lagun eta dekoratu gutxiarekin izatea erronka dela dio Aretxabaletakoak: "Espazio huts bat da, ez daukagu inolako eszenografiarik; hiru sukaldari pertsonaia desberdinak gorpuzten, aldaketa fisikoak bakarrik baliatuta. Gauza horiek teknikoki nahiko konplexuak dira, konkretutasun handia eta lan handia eskatzen dutelako. Soinuek ere indar handia daukate. Proiektura batzeko asko erakarri ninduen taularen gainean hiru aktore bakarrik egoteak".

## La Excavadora taldea gaztelekuan izango da otsailaren 20an

Egubakoitzean argitaratu zuen la Excavadora taldeak izen bereko estreinako lana, Mauka Musikagintzaren eskutik. Talde berria bada ere, eskarmentuko musikariek osatzen dute: Raul Lasa *Txiki* (Gatillazo, La Polla) eta Angel Otxoa de Eribe (Gatillazo, Rockaina, Salvate Si Puedes) gitarra-joleak; Mikel Azpiroz *Buton* (Gatillazo, Al Karajo) ba-

xu-joleak, Mikel Berrozpe *Pollo* bateria-joleak (Childrain, Vicepresidentes) eta Iñaki Urbizu *Pela* (Obligaciones, Sumision City Blues, Marky Ramone...) abeslariak. Rock hiritar zuzena eta indartsua egiten dute.

## Sarrerak, otsailaren 13an salgai

Otsailaren 20an bi emanaldi egingo dituzte gaztelekuan, 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak otsailaren 13an jarriko dituzte salgai, Txokolateixan, plazako *Totem*-ean eta *Oñati.eus* atarian.

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Domeka goiza urduritasun puntuarekin pasa zuen Iñigo Igartua (Bergara, 52 urte). Munduko ziklo-kros txapelketa jokoan dagoen bakoitzean gertatzen zaio. Ordu gutxian, 15:00etan, Flandriako mendebaldean dagoen Ostendeko hondartzak azken hamarkadetako ziklo-kros lehia handienetako baten testigu izan behar zuen, nahiz eta, egiari zor, lasterketan, zulatuak eta erorikoak tarteko, borroka ez zen horren estua izan. Hondartza hotz hartako harean, ziklista guztien artean, aurreikuspenak bete eta bi oilar nabarmendu ziren, errepidean izar bilakatu diren Mathieu van der Poel eta Wout van Aert. Hala, lasterketa ikusten, Igartuari duela 30 urteko irudiak etorri zitzaizkion gogora, bizikleta dendako muralean ondo gordetzen dituenak; izan ere, Ostendeko harea horren gainean lehiatu zen bergararra 1992an. Eta zortzigarren geratu zen.

**Herbehereetako ziklo-krosetako maisuen kontra lehiatzea zer den dakien batek nola bizi du munduko txapelketa?**

Urduritasun puntuarekin, hitzorduarekin adi, lasterketa ze telebista katetan emango duten begiratzen... Munduko txapelketa egun bakarreko lasterketa izaten da, eta sekulako ikusmina pizten duen hitzordua da.

**Lasterketak bi faborito garbi zituen, Mathieu van der Poel eta Wout van Aert, eta pronostikoak bete egin ziren, bien arteko lehia izan zen.**

Bai; denboraldian zehar garaipekin bien artean banatu dituzte, nahiz eta Van der Poel lasterketa gehiago irabazi dituen. Beste maila batean, baina Pidcock [Thomas] ere faboritoen taldean sartzen zuten. Baina pronostikoak bete egin ziren, bai.

**Bi horiek dira ziklismozaleak ziklo-krosa jarraitzen hastearren errudun?**

Esango nuke baietz, eta sekulako meritua dute, gainera. Eurak ziklo-krosetik iritsi dira errepidera, eta, hala ere, ez dute ziklo-krosa bazterrean uzteko asmorik. *Chapeau* eurengatik. Izan ere, ez da erraza. Denboraldiko prestakuntza beste modu batean egin beharko dute, barneratuta dute ziklo-krosetako denboraldia eginda min hartzeko aukerak dituztela eta errepideko lasterketa handiak arriskuan jarri, baina euren taldeei garbi utzi diete eurek ziklo-krosa egiteko asmoa



Iñigo Igartua, aste barruan, Bergaran daukan bizikleta dendaren hormetako batean erretratu zaharrekin egindako argazkiak erakusten. XABIER URZELAI

# "Van Aerten eta Van der Poelen lehiak hauspotu du ziklo-krosa"

**IÑIGO IGARTUA** ZIKLISTA OHIA

**ZIKLO-KROSA** Superprestigio proba batean euskal ziklisten artean postu onena egin izanaren errekorra du Bergarakoak; Espainian, Felipe Orts iritsi da orain parera

daukatela. Eta gero, errepideko munduko lasterketa handienetan aurrean ibiltzeko kapaz dira, onenekin batera.

**Zeu ere Ostenden lehiari ibilitakoa zara. Zer iruditu zitzaizun zirkuitua?**

Asko gustatu zitzaidan, hondartzako tramuak, malda handia zuten zubi artifizialak... Hareazko zatietan ezinbestekoa zen abiadurarekin sartzera, ahalik eta metro gehien bizikleta gai-

nean egiteko. Bazituen korrika egin beharreko tramuak, eta, hala ere, proba azkarra izan zen. **Duela 30 urte, zuen garaiko zirkuituak ere halakoak ziren?**

Ostendeko proban, 1992an, guk ere hareazko tramuak izan genituen, baina zirkuitua ez zegoen hondartzan. Gure belaunaldian hasi ziren zirkuitu azkarren aldeko apustua egiten, Yurrebasoren [Jose Maria] eta Maio-

raren [Iñaki] sasoian zirkuitu gogorragoak egiten zituzten. **Zure kasuan, Iñigo, zelan iritsi zinen ziklo-krosera?**

Umetatik gustatu izan zait bizikletan ibiltzea, eta baita mendian gora eta behera korrika ibiltzea ere. Kontrara, errepideko bizikletarekin egin beharreko ordu askoko entrenamenduak luzeak egiten zitzaizkidan, aspertu egiten nintzen. Eta hor ere egin

nuen bidea, gazte mailan irabazi nituen lasterketa batzuk, baita pare bat amateur mailan ere. Baina ni ziklo-krosetan ibiltzen nintzen gustura. Ziklo-krosa oso kirol jarduera gogorra da, ordubeteko tartean dena eman behar da, oso leherkorra da, baina nik hor gozatzen nuen gehien. Errepidean auto artean entrenatu beharrean mendian ibil nintekeen bizikletarekin, lokatz artean, bizikletarekin saltoka...

**Euskal Herriko probak etorri ziren lehenengo, Espainiako txapelketak gero, eta ondoren, nazioarteko probetara egin zenuen salto.**

Camping de Zarautzeko lagunei eskerrak eman behar dizkiet [orduko babesleak]. Haiek animatuta joan ginen Belgika aldera entrenatzera eta hango lasterketetan parte hartzera. Gogoan dut Paul De Brauwer-en eta halako ziklista handien ondoan entrenatzen egindako hilabeteak: zelan elikatu, zelan prestatu lasterketak, zirkuituen errekonozimendua zelan egin... Dena irakatsi ziguten, han ez zegoen sekreturik. Eta han geundela joaten ginen lehiatzera Herbehereetara, Suitzara, Italiara... Neurri batean, bide-erakusle lana egin genuen ondoren etorri ziren beste ziklista batzuek, David Seco, Ruiz de Larrinaga, Felipe Orts eta halako txirrindulariendako.



### Hain zuzen, orain arte zeneukan errekor bat berdin du Alacante-ko ziklista Felipe Ortsek.

Bai; Superprestigioko proba batean postu onena egin duen euskal txirrindularia naiz, eta Espainia mailan ere errekor hori izan dut 30 urtean. 1991n, Zarauzko nazioarteko proban sailkatu nintzen seigarren postuan, eta Ortsek berdin egin du duela hiru hamarkada lortu nuen seigarren postu hura. Gogoan dut Peter Hric-ek irabazi zuela lasterketa, eta hark ateratako tartea ez zen minutura iritsi [38 segundora helmugaratu zen bergararra, eta atzetik helmugaratu ziren, besteak beste, Radomir Simunek, Frank Van Bakel, Martin Hendriks, Huub Kools eta Danny De Bie ziklistak].

### Zeure kirol ibilbidean ze lasterketa nabarmenduko zenituzke?

Burrianan lortutako Espainiako Txapelketa absolutua garaipen garrantzitsua izan zen, 1991-1992 denboraldian, eta baita lehena-go 23 urtez azpikoen kategorian Legazpin lortutako Espainiako Txapelketa ere. Gero, Zarauzko Superprestigio proban lortutako seigarren postua ere garrantzitsua izan zen niretako, proba hartan jada munduko txapeldun ziren kanpoko ziklistekin batera aurrez aurre ibili nintzelako. Maitasun handiz gogoratzen dut, baita ere, Ormaiztegin lortutako garaipen bat, 1992-1993 denboraldian; izan ere, aurreko belaunaldikoak ziren Yurrebaso, Benito Duran, Izagirre... Haiekin lehiatzeko kapaz nintzela ikusi nuen, eta haiek erreferente ziren guretako. Eta ondo gogoan dut, baita ere, Overijse-ko (Belgika) Superprestigioko lasterketa. Pentsa, 130.000 pertsona zeuden munduko Txapelketan zortzigarren... Hala ere, nahiz eta au-

90eko hamarkada hasieran, nazioartean bizpahiru urte oso on egin zenituen; izan ere, jakinekoea da iparreko lasterketa haietan hamabost onenen artean sailkatzea ze zaila den.



Igartua, Munichen (1985), elurrak zurituta zegoen zirkuituan egindako lasterketan. X.U.



Van der Poel eta Van Aert, joan den domekako Munduko Txapelketan.

Ez da batere erraza, ez. Erroman (Italia) hamaikagarren egin nuen, Zillebeke-n (Belgika) bederatzigarren, Ostenden egin zuten Munduko Txapelketan zortzigarren... Hala ere, nahiz eta au-

### "ZIKLO-KROSA BATERAGARRIA DA ERREPIDEKO ZIKLISMOAREKIN, PISTA BEZALA"

### "MUNDUKO ONENEKIN LEHIATZEKO EZINBESTEKOA DA BELGIKARA JOATEA, HAN DAUDE ONENAK"

rreko postuetan ibili, ziklo-krosean ez zen errepidean irabazten zen dirua irabazten. Momentuan aurrera egiteko bai, baina etorkizunean pentsatu beharra zegoen eta 28 urterekin utzi egin nuen txirrindularitza. Oraindik banituen hiruzpalau urte on aurretik, baina 1997an bizikleta denda jartzeko aukera izan genuen; besteak beste, Flanders bizikleta etxearekin lan egiteko aukera izan genuen, eta bizikleta uztea erabaki nuen.

Gaur egunera etorrita, Felipe Ortsek erakutsi du ofizioa ikasteko Belgikara joan beharra dagoela.

Azken urteotan, gertutik nabil bere ibilbidea jarraitzen, eta ikustekoa da zelako aurrerapausoa eman duen ziklo-krosean. Domekan ez zuen lasterketa onik egin, ez dago haren ibil-

tzera ohituta eta ez zen batere ondo egokitu zirkuitu horretara, oraindik badu zer ikasi. Baina ziklo-krosean ibili gura duenak derrigor joan behar du Belgikara, han daude onenak, eta onenen ondoan ikasten da gehien. Ikusi Munduko Txapelketan bertan zer gertatu zen; Van der Poel herbeheretarra da salbuespena, aurrean helmugaratu ziren gehienak Belgikako selekzioak ziren.

### Zuk ziklo-krosa errepideko bizikletarako osagarri moduan ikusten duzu, eta ziklismo eskola askotan, duela urte batzuk, behintzat, ez zen oso bateragarri ikusten.

Ziklo-krosarekiko beldur hori kendu egin behar dugu, eta uste dut Van der Poel, Van Aert eta halako ziklistek kirol jarduera hori errepidearekin batera egin daitekeela erakusteak ekarpen galanta egingo diola, gazteak erakarriko dituela. Ziklo-krosa, pistako ziklismoa bezala, bateragarria da errepidearekin.

### Gurera etorrita, pena da, baina, gaur-gaurkoz, Debagoienean desagertu egin da ziklo-krosa. Urte batzuetan Bergaran, Arrasaten... egin izan dira lasterketak. Oñatiko probak urteak egin izan ditu, baina, pandemiaren harago, desagertu egin dira proba horiek.

Penagarria da, bai. Batetik, halako lasterketak antolatzeak babes ekonomikoa behar da, eta badakigu gaur egun enpresak ze egoeratan dauden. Eta bestetik, jendea behar da lanerako. Hasi denak hasten gara ilusio handiarekin, baina konpromiso horri urteetan eustea ez da erraza, azken batean, ardurak hartu behar izaten direlako. Pena da, bai; ea mundu mailako erreferente horiei esker berpizten den berriro ere ziklo-krosa gurean, kirol jarduera ederra da eta.

### "OVERIJSE-KO PROBAN 130.000 PERTSONA ZEUDEN ZIRKUITUAN GU ANIMATZEN"

### "ERREPIDEKO ENTRENAMENDUETAN ASPERTU EGITEN NINTZEN, LOKATZETAN NENBILEN GUSTURA"



Pilotari bat Bergaran. GOIENA

### PILOTA Gipuzkoako Federazioko partidua, bertan behera

Gipuzkoako Pilota Federazioak egoeraren azterketa egin ondoren erabaki du berriz ere lehiaketa bertan behera uztea. Honela azaldu dute: "Urtarrilaren 31ko jardunaldian jokatu den partidaren portzentajea %28koa izan da. Era berean, zenbait klubek komentatu digute ez zaiela egokia iruditzen osasun egoera honetan jokatzeko jarraitzea, ez dutela COVID-19ak eragindako aurkariaren ez agertze bati esker partidarik irabazi nahi edota zein zaila den etxeko partidak antolatzea". Hala, urtarrilaren 31ko asteburuan jokatzeko aurreikusten ziren partidak jokatu ahal izateko neurriak hartuko dituztela ere gaineratu dute.

### FUTBOLA Otsailaren 20an berrekin gura diote liga txapelketari

Ohorezko erregional mailan 2020/2021 denboraldian norgehiagoka bakarra jokatu dute, eta urriaren 18ko asteburutik bertan behera egon da txapelketa. Hala, Gipuzkoako Futbol Federazioaren asmoa da otsailaren 20an berrekitea ligari.

Hala, Federaziotik hartu-emanetan daude Gipuzkoako klubekin, euren iritzia batzeko. Proposamenak aurrera egiten badu, txapelketak formatu berezia izango luke, onenek mailaz goetzeko eskubidea izango lukete, baina jaitsierarik gabeko txapelketa izango litzateke. Astelehenean Arrasate Irratian emango ditu xehetasunak Federazioko presidente Manu Diazek.

# "Istorioa migratzaileak kontatzea da indargunea"

ANDER LIPUS AKTOREA

Artedrama eta Huts Teatroa taldeek 'Atzerrian lurra garratz' lana estreinatuko dute otsailaren 12an Oñatin, Santa Ana antzokian, 19:00etan; sarrera gutxi geratzen dira

**Aitziber Aranburuzabala OÑATI**

Amancay Gaztañagak zuzendu du eta Ander Lipus eta Laura Penagos dira aktoreak.

**Zer sentsazio duzue estreinaldiaren atarian?**

Sentimendua arraroa da, ezbehar honek egunerokotasunean inprobisatzen eramatean gaituelako. Orain dela bi urte hasi ginen proiektuarekin eta gogotsu gaude jendaurrean erakusteko; apur bat urduri ere bai.

**Oñatin da estreinaldia; zer dela eta?**

Otsailaren 5ean ginen, beste lanekin egin dugun moduan, Luhuson estreinatzeak, baina COVIDa dela-eta Iparraldean debekatuta dago emanaldiak egitea eta bigarren saioa izan behar zena estreinaldi bihurtu da. Oñati beti izan da eskuabaltasunez hartu gaituen herri bat eta horrek bere errekonpentsa izango du orain; hau da, oñatiarrek ikusiko dutelako estreinaldia. Estreinaldiak daukan urduritasunarekin, baina berezia izango da.

**Aurora Mora Euskal Herrian bizi den artista kolonbiarra da protagonista nagusia. Zer jasotzen du istorioak, finean?**

Orain dela lau urte Euskal Herrian bizi den artista garaikidea *performance* edo instalazio bat estreinatzeak atarian dago, eta,



Ander Lipus eta Laura Penagos, *Atzerrian lurra garratz* antzeztzen. AINHOA RESANO

bat-batean, bere ahizparen dei bat jasoko du, eta bere ama hil dela esango dio. Momentu horretatik abiatuta, Aurorak dolu gaua nola pasatzen duen jasotzen du istorioak. Mamu bezala, errealismo magiko batetik abiatuz, hainbat pertsonaia agertuko zaizkio: bere ahizpa; hil berri den ama; bere amama indigena; Kepa, Euskal Herriko mutil laguna eta haren aita.

**Hortik abiatuta, galdera asko planteatzen dituzue. Zelakoak, adibidez?** Emakume artista atzeritar batek kontatu ahal digun horretan

jarri dugu fokua, gu, euskaldunok, gai askoren gainean hausnartzera bultzatzeko asmoz. Ez dugu erantzun zehatzik ematen, baizik eta galderak botatzen dizkiegu ikusleei, esaterako: posible al da gurea ez den lur batean sustraitzea? Eta posible da familiaren eta aberriaren zama gainean dugula hegaldi propioari ekitea?... Migratzaile askok euren herrian kargu inportanteak dituzten arren, alde egitera behartuta daude, eta hona etortzen direnean oso egoera prekarioan bizi dira, lan

kaxkarrenak eurek dituzte, esaterako, zaintza arloan, eta hori eskertu egin beharko genukeela uste dugu. Begiak ixten ditugu; geure buruari ere galdetu beharko genioke zertan ari garen. **Fikzioa da, baina errealitatetik asko du, ezta?**

Hala da, bai; Laura Penagos, Aurora pertsonaia nagusi moduan, kolonbiarra da, eta haren ikuspegitik dago, bereziki, istorioa kontatuta; eta horretan datza, gure ustez, lanaren indargunea. Orain dela bi urte ezagutu nuen Laura, Nafarroako antzerki eskolan eman nuen ikastaro batean, eta harritu egin ninduen euskara zekielako. Antzezlan bat zuela esan zidan, baina antzokietan tokia egiteko zailtasunak zituela. Buruan beste antzezlan baterako ideia bat zuela kontatu zidan, eta nik Aulestiko antzerki topaketetara gonbidatu nuen. Bere ikuspegitik arrazakeriari eta Kolonbiari buruzko gauzak kontatu zizkidan eta hor ikusi nuen bere bizipenetatik abiatuta fikzionala zitekeen istorio bat zegoela. **Hala hasi zineten biak lanean; Amancay Gaztañaga batu zitzaizuen gero, eta hark zuzendu du antzezlan.**

Hasiera batean, monologoa egitea zen asmoa, baina taularen gainean beste aktore bat ere egotea interesgarriagoa iruditu zitzaigun. Garai hartan, Amancay Gaztañaga ezagutu nuen eta une aproposa iruditu zitzaigun elkarrekin lan egiteko. Zuzendari izatetik aktore izatera pasatu nintzen ni, emakume baten istorioa emakume batek idaztea aberasgarriagoa zelako, nire ustez, eta hala hartu zuen Amancayk zuzendaritzaren ardura. Hortik abiatuta izugarriko ekipoa osatu dugu arlo guztietan –jantziak, argiak, musika...– eta

pozik gaude lanak hartu duen dimentsioarekin. Niri ere mundu bat zabaldu zait; asko ikasit dut eta aberastu egin naiz.

**Sortzeko prozesua ikasgaia izan duzuela diozu; non ibili zarete?**

Hirurok elkarrekin idatzi dugu, bakoitzak bere ikuspuntua eta bestelako ekarriak eginda. Oso inportantea izan da Lauraren ikuspegia, eta bere bitartez asko ikasi dugu; esaterako, Kolonbiako erbestertuen elkartetara eraman gaitu eta Kolonbiako familia bat erroldatu dut nire etxean. Bizipen horiek kontatzen ditugu fikzio bat sortuta.

**Osagai guztiak mimoz zaindu dituzue; zelakoak dira dekoratuak?**

Gela batean gertatzen da dena; artista abangoardista eta garaikide baten gela umila da. Bertan ari da bere *performance*-a prestatzen, eta gauza askorekin ari da jolasean estreinatzeak duen lan hori prestatzen ari dela.

**Nola daramazue pandemia egoera?**

Egoera arraroa da, baina bada-kigu jendeak bizitza *normala* egiteko gogoia duela, eta, nire ustez, antzokia leku segurua da. Gure apustua hori da, hauskortasunetik gure teatroarekin istorioak kontatzea eta gure herriari antzerkiarekin gozatzeko aukera ematea.

**Agenda nahiko lotuta duzue; Debagoienean, oraingoan, bi herritan izango zarete.**

Oñatin estreinatu ondoren, Andoain, Erreterian, Donostian eta Bilbon izango gara, eta martxoaren 7an, Arrasaten.

**"BEGIAK IXTEN DITUGU, ETA GEURE BURUARI GALDETU BEHARKO GENIOKE ZERTAN ARI GAREN"**

## HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 5EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

SANTA ESKEAN (DENBORALDI BERRIA)

goiena  
Zu hemen zaude.







Arrasaten bizi den Serge zarauztarrak bakarkako bigarren lana argitaratu du otsailaren 19an. ANIBAL CARMONA

# Barruko mina kanporatu, eta bigarren lana sortu

'Leihotik mundura' bilduman itxialdian sortutako zortzi kantu berri batu ditu, gitarrari doinu elektrikoak gehituta, beldurrari, alde egiteko nahiari, lagunei eta beste gauza askori abestuta; otsailaren 19an kalean izango da, Elkar argitaletxearen eskutik

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Eraso! eta Osso taldearekin zortzi disko kaleratu ondoren, 2019an bakarkako lehen lana *-Enarak itzuli dira-* argitaratu zuen orain dela urte asko Arrasaten bizi den Serge zarauztarrak.

Pandemiak bete-betean eten zion aurkezpen bira, baina ez, ordea, sortzeko gogoia, eta hala ondu du *Leihotik mundura* izena duen bigarren kantu sorta. Otsailaren 19an argitaratu du, Elkar argitaletxearen eskutik.

## Etxean eta etxekekin sortua

Gari Berasaluzeren olerkiekin osatu zuen aurreko lana; oraingoan, haren hitzekin kantu bakarra dago, eta Sergek itxialdian sortutakoak dira gainontzekoak. "Pandemia luze, ez nengoen momenturik onenean, eta banituen gauzak esateko. Musikariontzat terapia da, eta lagundu dit. Ez nuen, oraingoz, bigarrena grabatzeko asmorik, baina hala ateratu da. Izenburuak argi adierazten du nola izan den sortua.

Itxialdian hasi nintzen idazten, eta azalera eraman dudana marrazkia ere orduan egindakoa da. Inge alabak egin zuen, eta hozkailuko atean genuen jarrita. Kantuak ia bukatuta nituela, behin eta berriz begiratu eta lana ilustratzeko proposa zela konturatu nintzen. Leiho pila bat ditut eta koloretsua da; abestiei, berriz, mina sumatzen zaie".



**LEIHOTIK MUNDURA**  
SERGE

- **Estiloa** Folk garaikidea.
- **Argitaletxea** Elkar.
- **Grabaketa** Eñaut Gaztañagaren Zestoako Gaztain estudioan.

Denetariko gaiei buruz idatzitakoak dira, gauza intimoak kontatzen ditu batzuetan, eta gai sozialei egin die tokia beste batzuetan. "Beldurra, hutsunea, alde egiteko nahia, lagunei buruzko bat ere badago, Zaldibar-ko auziaz ere bai... Gai asko daude, abesti bakoitzak bere istorioa du. Musikari dagokionez, gitarra da oinarria, baina aurrekoan baino apaindura gehiago egin dizkiet, doinu elektronikoak gehituta, adibidez".

## Zestoako Gaztain estudioan

Eñaut Gaztañagarekin grabatu zuen aurrekoa, eta oraingoan ere ez du zalantzarik izan.

Ikus-entzunezkoetan, berriz, Eraso!-ko gitarra-jole Nestor Urdanpiletak laguntzen dio. Bi egin dituzte dagoeneko.

Zuzenekoak egiteko ez dago samur, baina lotu ditut lau zapabost; oraingoz, Debagoienean ez. Mikel Albistur izango du alboan, sintetizadoreekin eta programa elektronikoekin.

## Goiena Klubaren txokoa

### Hauek dira urtarileko irabazleak!

#### SPC TABLETA

Amalia Gorosabel Pagaldai (Bergara)

#### HARREMAN DENDAKO OTARREA

Juan Carlos Kortazar Uribesalgo (Eskoriatza)

#### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Mikel Lopez de Arkaute Guridi (Arrasate)  
Irene Santamaria Azkarate (Bergara)  
Itxaro Mendizabal Letona (Arrasate)

#### ITURRIETA SAGARDOTEGIRAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Iñaki Umerez Zabaleta (Bergara)

#### GOXO-GOXUAREN TARTAREN IRABAZLEA

Ion Sagasta Aranbarri (Arrasate)

#### MAUXKA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Arantzazu Murua Cortabarría (Oñati)

#### 'PORNO VS AFRODITA' ANTZEZLANERAKO SARRERAK

Antonio Gutierrez Miranda (Arrasate)

#### 'BART NON OTE NINTZEN NI?' ANTZEZLANERAKO SARRERAK

Leire Zenigaonandia Murumendiara (Arrasate)

#### SARRIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak: Goiena Klubeko barne-erakutsita, bira sarean zango dituzue Arrikrutzeko barne-erakutsita. Sarrerak 3 irabazleko sarrera bakoitzeko. ARRIRKUTZ KOBETAKO SARRERAK: Oñati, 943 05 20 00. Orotarria: Arrasateko irabazleak 10:00 - 17:00 (Auzoetako hitzorduek egiteko). Harreman dendako otarria: Otarria jasotzeko, bi zuzeneko bakoitzeko irabazleekin. Harreman dendako: Arrasateko irabazleekin elkarrekin duen dendako. SPC TABLETA JASOTZEKO: Oñati, GOIENA Klubaren egoitza. Goxo-jatetxeak: BAZKIDETZAREN TXARTELA erabiltzeko eta BAZKIDETZAREN ZENBAKIA jakiteko erabili behar da GOIENA Klubaren Lizenziadunak 31. Arrasate, 943 25 05 05. Orotarria: Arrasateko irabazleak: 09:00 - 18:00. Egoitza-erakutsita: 08:00 - 14:00.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Otsailak 9

943 25 05 05 • klubak@goiena.eus

KLUBA Jatorria  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko Udaleri eskerrak

"Konpromisoa" antzerki-erakutsita sarean ditugu.

Arrasate | Amalia Antzokia | Otsailaren 14an | 19:00etan

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: klubak@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Antzokia"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzaileon artean erango da zozketak. Irabazleak 19:00-19:05 bitartean zozketatuko dira. Irabazlearen izena Goiena Klubeko webgunean zuzenean irabazlearen izena erakutsiko da. Zozketak hurrengo aldizkoan egingo dira. Irabazlearen izena zozketaren ondoren irabazlearen izena erakutsiko da. Irabazlearen izena zozketaren ondoren irabazlearen izena erakutsiko da.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 57€

Deitur: 943 25 05 05 • klubak@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazte, denok irabazte!



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

